


ERROTAZAR

(ELEBARRIA)



“Euskerezaleak” Alkartek argitaratua

Zubiri'tar Iñaki
Euskerazaintzakoa

ERROTAZAR

(ELEBARRIA)

Zubiri'tar Iñaki
Euskerazaintzako

“Euskerazaleak” Alkartek argitaratua

AURKIBIDEA

ATALA	Orrialde
ERROTAZAR	7
EZUSTEKO IKERLEAK.....	15
AMORRUA.....	25
ESMERE	37
IKUSMENA	45
TXOMIÑ'EN BILLA	61
ZANTZUEN BILLA	75
NIKI BARRIRO	81
SUGEA	87
OBITEGIAN	91
ULE-GALPARRA.....	99
AUZITEGIAN.....	109
IZU-GABA.....	137
IDAZTOSTEA	147

Gure inguru oneitan ez dala asko irakurten diñoe, eta ori egi aundia dala, ezin ukatu. Gazteleraz ez da asko irakurten eta euskeraz gitxiago.

Orregaitik, bear-bearrekoak doguz irakurtearen poza sortzen daben liburuak.

Eta olakoak izaten dira Zubiri'tar Iñaki'ren elebarriak. Olakoa da eskuetan daukagun Errotazar elebarria.

Ez da luze-luzea be eta irakurten asten ba'zara ezin itzi izango dozu amaitu arte edo zure zeregiñak aldi baterako iztera beartzen ba'zaitue, barrero irakurten asteko gogo bizi-bizi geratuko- jatzu: Orixe da irakurtearen poza sortzeko biderik egokiena.

Astitsu bizi diranak naiz lanean gogoz diarduenak, bein irakurten asi ezkerero ez dabe itziko amaitu barik.

Liburu irakurgarri onen barruan irakurleak polizi-lana aurkituko dau, ertzaiñak eurak naiz euren inguruan dabiltzanak beteten daben lan arduragarria, baiña ez olako korapillo askatu-eziñik, errez jarraitzeko bide leunak baiño.

Maitemin apur bat be aurkituko dau, baiña ez beti bardin agertzen dan maitemin aspergarria, oraingo onetan maitemiña oso bereizia da.

Eta irakurlea gizarte-aztertzearen zalea ba'da, ori be ugari aurkituko dau. Ez, gero, azterketa garrastua, egokia ta zurra baiño. Lo-bedarren edo drogearen munduari be ikutu bizia egiten jako. Seme-alaben ezike-teari be bai eta erlejiño-giroa agertzen daben etoiak be eurena artzen dabe. Osagilleak be ondo baiña aztertuta geratzen dira.

I.S.B.N.: 84 -605 - 0670 - 3

Depósito Legal: BI- 1609 - 94

Fotocomposición e Impresión:

FLASH Composition, S.L.

Alda. Rekalde n.º 6

48009 BILBAO

Elebarrigintzara begiratu ezker, idazlea bera ez da inoiz agertzen, baiña bai oso-osoa norki nagusiagaz bat eginda dagoan neurrian. Norki nagusia bera da asieratik edeslea, Pruden maitagarria.

Aria oso ondo, ederto eroana da eta irakurtearen poza geitzeko egoia: Arlo bat artu eta une bizira arte jarraitzen dau, baiña azkena zertan izango dan ikusi barik, beste arlo batera jotzen dau irakurleagan egarria kendu barik, barria sortzeko. Gero azkenean dana agiri da argi ta garbi.

Edergarriak ez dabe aspertuko irakurlea. Azken-azkenean zati txiki batzuk olerkiz beterik ikusten doguz.

Norkiak be ez dira asko, irakurlearen oroimenak lan geiegi izan ez dagian-edo, baiña amabost bat norki naiko ondo zeaztuak bai agiri dira.

Elebarriaren tokia ez da ain zabala: iru kilometroren barruan dira jakizunik geienak. Uri naikoa aundi bat urrean eta baserri-giroa batetik, kalea bestetik.

Aldia be ez da luzea, bost edo sei urteren barruan gertatzen da dana, baiña noizbeinka ume-aroko edo gaztariko gomutakietara jotzen da, elebarriaren aldiari zabaltasuna emonez.

Orra or ba, elebarri onen jakingarri batzuk. Beren-beregi izten dogu oraingoz illunetan gaia ta zertzeladak agertzea, irakurleak berak aurkitu dagian adimenarentzat janari ugari ta gozoa eta gizarterako eziketa ta jokabide zuzen eta ederra.

Ikusi egizu zeuk eta esango dozu.

OLAZAR'tar Martin'ek

Udabarriko goiz ader aretan, Ibarreta erritik Errotazar'era inoiz edatzen zan bidetik, eguzki ederrak eta Erroman'en berbak lagundutako, zalpurdia bilin-bolaka atsegiñek bidean zear nindaroen, amaika gomutapen yatordezala, ain maite neban erroteari urreratzen nintzakiola.

Goiz aretan, sarri askotan egin oi neban lez, uriburutik Ibarreta'ra trenez eldu nintzanean, Erroman bere zalpurdiaekin begira neban.

– Eguraldi ederra errotara joateko, Pruden jauna –oi eban txeraz esan eustan–, bazan ordua eguzkia agertu zeiten, ainbeste euria izan ostante batez be. Aspalditxu da zu errotara etorri barik.

– Bai, Erroman, orregaitik, eta atzo goizean euria amaituta, eguzkia agertu zanean, nire buruari esan neutsan bazala garaia Errotazar'era joateko, eta orregaitik gaur tren-geltokian nire begira egoteko mezua bialdu neutsun.

– Bai, etxera eldu nintzanean, urrutizkiñez dei egin zenduala esan eustan emazteak, eta poztu nintzan benetan, aspalditik ez zaitut ikusi-ta. Ama ondo al-da...?

– Bai, Erroman, eta goraintziak zeuri emoteko esan daust. Etxekoak ondo, urrean, ezta...?

– Amagiñarraba geisorik izan dogu aspaldi onetan, baiña tira...! badirudi orain obetotxu doala.

Bitartean, errotarako bidetik giñoazan, eta Erroman'ek erriko gorabeerak emostazala, ikusi ezin nengikean bidean zear giñoazan...

Bai, baziran illabete batzuk itsu billakaturia nintzala, legegizon ikasketak egin ondoren, izparkarritza-ikastaroa asi ta iru illabetera, ain zuzen be. Lenengo, begi bat lausotu yatan, eta begilari on bategana joanda, begi-oskola kutsutu egin yatala iragarri ondoren, beste begia be kutsutu leitekidala esan eustan. Andik laster, beste begiaren ikusmena be galtzen

asten nintzala egiztatu neban, eta noizbait, itsu osoa billakatu nintzan. Izugarria izan zan amaibako illundi aretan bizi izatea, eta nire gatxa esku-sartze baten bidez osatu leitekidala begilariak esan arren, asiera baten bizi izateko guraria galdu neban. Aldiaren bidean, baiña, etsipen gorria arindu yatan, eta begilariaren esku-sartzean itxaropena jarrita, barru-dendua irabazten asi nintzan. Nire begi-oskol illunduak beste osasuntsuak ordeztu izan zeitekezan, baiña orretarako, emoilte bateri itxaron bear, eta neu lez egozanak ugari izanik, ezin nengikean jakin, ordezpena noiz egingo litzakidan.

Bitartean, eta amak eraginda, adoregarria izango litzakit-eta, izparkarritza-ikastaroa jarraitzea erabagi neban, eta etxetik Ikastola Nagusirako joan-etorriak, biotz oneko ikaskide baten laguntzaz egiten nebazan, eta izan be, zeri eustea izateak, jasaten nebazan gogoeta illunak uxatzen lagundu eustan, eta begilariaren esku-sartzeari itxaron bitartean, makilla zuri bataz bidea aztamuka billatzen neban. Irakurterik ez neban ezkerro, ikasketak magnetotsgailluz artzen nebazan, eta etxean entzunaren-entzunez, ikastaroari polito jarraitzen neutsan.

Amaren jarkipenari jaramon egin barik, makillaz kaleetatik ibilten ikasi neban, eta illuntzean egurastutea atsegin billakatu yatan. Onezaz gaiñera, astean bein begilariagana joan bear izaten nebanez, laster ikasi nengikean, espaloi ta kaleetan zear bakarrik ibilten. Ikerpen bakotxean, begilariari itauntzen neutsanean, noiz etorriko litzakidan eretia, begi-oskolen mendu edo txertoa egiteko, eroapena ez galtzeko iñostan berak, egunen baten abagunea etorrira, gazte izanik (ogei ta bost urteko nintzan-eta), esku-sartzea arrakastaz billakatuko litzakela-ta.

Aurreko egun baten amarekin berbetan niarduala, autu-gaia Errotazar izan zan, eta ango gora-beerak oroimenera genkarrezala, ez dakit zelan, ara joateko irrika bizia sortu yatan, azkenengoz an izan nintzala aspaldi zan-eta. Nire guraria ikusirik, ikerpen bat egitera eragin eustan amak, etxetik gitxitan urten oi nintzalako, antza, eta urrengo Igandean joango nintzakela erabagi genduan. Olan ba, Larunbatean, Ibarretan bizi izaten zan Erroman'en etxera urrutizkiñez dei egin neban, urrengo goizeko amaikatan zalpurdia gerturik izateko mezuaz.

Augaitik ba, udabarriko goiz eder aretan, Erroman eta biok zalpurdia bilin-bolakak eta txorien eresiek urrumaturik, ondo ezagutzen ne-

ban bidean zear giñoazan eguzki epelak laztantzen ginduzala. Iru kilometroko bitartea zetzan erria ta errotaren artean, arizti usuek inguraturik ikusi zeitekean. Lantzean bein soillik, zugaitzek larradiren bateri tokia izten eutsoen, tantai itzaltsuak barriro be agertzeko.

Erroman'en autuak eta zaldiaren draka-draka leunak etenbarik inguratzen ninduela, oroimenera etorten asi yatazan, Errotazar'en bizi izandako aspaldi zoragarriak, eta azkenean jazo zan ezbear izugarria...

Amar urteko nintzanean ama alargundu zan, eta orduan Munda-ka'tik uriburura aldatu gintzazan. Aurreztutako diruaz, eta aitaren eriotz-sariaz, polito bizi izaten gintzazan, ni seme bakarra izanik. Itsasburuzagia zan aita, maite-maite neban, eta berak agindutako ontzia doixtar urpeko batek ondatu izan ebala, itsastar bat bera be bizirik agertu ez zala jakitean, egundoko atsekabea artu genduan amak eta biok. Amar urteko baiño izan ez arren, aitaren eriotzaz jakitun ipiñi ninduean, aspaldi izugarria jasan neban, iñorekin alkartzen nai ez nebala, eta mendiko egi batetik itsasoari begira orduak eta orduak emoten nebazan, ugiñaren batek aita nire besoetara ekarri bai'legikidan... Errira biurtzen nintzanean, adiskideen oiko laguntza uxatzen neban, eta etxean nire barruan bilduta, utsari begira isil-isillik irauten neban, amaren berbeteari ia jaramon egin barik.

Egoera larri onetan, uriburura bizi izatera joatea erabagi eban amak, eta au lagungarri azaldu zan, eta ainbat areago, bigarren maillako ikasketak egiteko ikastetxe on batera sartu ninduean. Ikuspegiko aldakuntza au onuragarria azaldu zan, nire atsekabeak baita amarenak be aringarria idoroten ebela aldiaren bidean.

Martin eritxan amaren neba bat Errotazar'en bizi zan ezkondata, eta orduan errotea erabilli izan ez arren be, an bizi izaten zan bere emazte Edurne'rekin. Seme-alabak ez izanik, bakarrik bizi ziran, Txomin eta Sabiñe senar-emazteak zerbitzari ebezala. Baziran urteak erroteak geldirik zirauala, Martin mutikoa zanetik izan be. Garai areitan baserrietako errota tximistindarrak erabillitakoak ordeztzen asi ziran, eta bezeroak gitxiturik, Martiñ'en aitak errotea gelditzea erabagi eban. Ordutik eiotzearen burrunbeak eten egiñik, leku baketsu aretan ez zan besterik entzuten, ibaia- ren ur-jausteak sortutako zaratea baiño etxe-aurretik igarotean, batzutan leun-leun, eta bestetan trumoitsua, arrotutako urak arruan beera oldartzen zirala bitsezko zurrunbillotan.

Aita il yakonean, osaba Martin yarauntsi andiaren jabe billakatu zan, Errotazar etxalde aberatsa izanez gaiñera, baso ederrak zituan-eta, ogasun andia artu eban diru ta baltzu-zatitan (akziñoak).

Andik laster, Ibarreta'ko neska maratz batekin ezkondu zan, eta aberatsa izanik, umerik ez eben Txomin eta Sabiñe zerbitzaritzat akuratu ebazan.

Iru soru edo maillakoa da Errotazar. Etxazpian, anteparako urek (orain gelditutako) turtukoia garai baten erabilli eben. Errotea gelditu zanean, errotarriak-eta egozan lenengo mailla, areto zabal bikain-bikaiña biurtu eban osabak ezkondu aurretik. Ondo ezkotutako areitezko sorua besaulki erosoakaz orniduta dago, alde baten jagiten dan kebidu zabal apaiñak benetako on-izatearen itxura damotsala. Erdian, enbor-zati bakarreko mai lodia datza aulki sendoakaz inguratuta, eta izan be, mai ori ikusle guztien arritasuna da. Albo baten, eta orma lodiaz baztertua, zati biko sukalde argi ta zabala, bata benetako sukalde, eta bestea txikiagoa, jaki-gordetegizat erabilten dana.

Goiko maillaraiño zurubi ederra edatzen da, eta emen lau lo-gela zabal argitsuak ezker-eskoi sakabanatzen dira, igarobideko mutur biak garbi-gela banaz orniduta: bata etxeko ugazabentzat, eta bestea zerbitzariak darabiltzela.

Ibarreta'ko bidetik etortean, Errotazar ibaiatz bestaldean eraikia dan ezker, olezko zubi bat zearkatu bear da, eta uren oea naikoa zabal izanik, zubiaren erdian arrizko zutoin sendoaz eutsita dago, alde banatan arkesizko eskudelakaz babestua. Zubia igarota gero, etxe-aurrean enparantza zabala edatzen da, eta errotaren atzekaldean korta bat, etxeko bei bakarra, zaldia ta orga gordeteko. Osaba-izekok ez eben berebillik gura, eta Ibarreta baita inguruko errietara joateko, zalpurdia erabilten eben. Txomiñ'ek be, etxean bearrezko ziran gaiak ekarteko dalako zalpurdia ustiatzen eban.

Osaba-izekok oso txeratsuk ziran, eta uda elduta nire ikastaroa amaitzen zanean, ama ta biok etorri-erazoten ginduezan, eurokin udaldia emoteko, eta izan be, au guztientzat onuragarria zan, izeko Edurne'k uriburuko barriak eta guztitariko autuak izateko, ama alboan ebalako, eta osabak nire laguntza, egurastuteko ta bere jakintza noregan isurtzeko. Esan bearrean naz, osaba Martiñ'ek irakurtea guztiz atsegin ebanez, are-

toko liburu-apalak idaztiakaz beterik egozan, eta irakurteari ordu asko emoten eutsazan ezker, oso jakintsua billakatu izan zan, gure aberriari egokiozanetan batez be. Astean birritan, osabak Txomin igorten eban Ibarreta'ra "Euzkadi" egunerokoaren eta beste aldizkarien billa.

Ama be pozik egoan Errotazar'en bakeak eta isillak inguratuta; izeko Edurne'rekin guztiz ondo alkartzen zanez, udaldia igarri barik igaroten yakon, eta oartzen zaneko, uriburura biurtzeko garaia egiten yakon. Niri dagokidan aldetik, ikastaroa noiz amaituko irrikan nengoan, eta ikastaldia burutu ta urrengo egunean, abiamenak astirik galtzeke egiteko amari eragiten neutsan, eta Ibarreta'ko geltokian gure begira Txomin nenkusanen gu ta gure bide-zorroak eroateko, poztasun esan-eziñak menperatzen ninduan. Bidean zear giñoazala txorien txintak inguratutik, eta aize meea arnasten nebala, paradisuan zear niñoala begitantzen yatan, eta gero olezko zubi zearkaturik, gure begira egozan osaba-izekoak besarkatzean, zorion utsaz biotza taupada zorotan asten yatan. Jarraian, eta amak gure eskuarteak lo-gelatan egokitzen ebazala, janzkia kendu, eta nire biziko bustialdia errotako anteparan artu oi neban, batetik bestera ugerika, osabak urten-erazo arte.

Amari arin igaroten ba'yakon udaldia, niri ez yatan luzeagorik egiten. Osabak ondo ezagutzen ebazan jaiotetxeko inguruak, eta baso-mendietan zear giñoazala, guztitariko argibideak emostazan ikusten genduanari buruz, baita ikusten ez genduanaren barri ta jazoerai be. Abertzale sutsua zan, sentipen ori neugan ereintzen saiatzen zala, eta izan be, orrek nire barruan sustrai sendoak egin ebazan. Oso txeratsu ninderabilen osabak, eta arraintzari zaletasun andia eutsanez, ondo ezagutzen ebazan lekuetan, arraintzaren ezkutuak estalgetu oi eustazan, arrainkari, zaparda, ugotxoak-eta, eurrez artzen genduzala. Jaiegunetan, zaldia orgari buztartuta, bera, izeko, ama ta laurok Ibarretara giñoazan meza nagusira. Gero, inguruetako jatetxe on batera gure biziko bazkaria izateko, eta arratsaldean barrutiko ikusgarriren bat ikertuta gero, etxera, "Moro" eritxan zaldia draka-draka nasaiaz.

Aldiaren bidean, maitasun-lokarri sendoak alkartu ginduzan, eta nik osaba-izekoak maite-maite ba'nebazan, eurok semetzat ninduen, ni bai-zen luzetsiak udearen etorrerea itxaroten ebela, urrengo udaldirako asmo barriak egiñez, eta alkar ikusten genduanen, osaba Martiñ'en eta izeko

Edurne'ren aurpegiak zorian eta maitasunez piztuten ziran zein ederra billakatua nintzala, alkarri zirautsoela.

Etxaldeko aberastasunik andiena ariztiak ziran, eta noizean bein, baso-arloren bat saldu oi eban osabak, Errotazar'eko tantaiak entzute andikoa izanik inguru areitan. Etxe-ondoko baso-soil baten, guztitariko ortuariak jasoten ebazan Txomiñ'ek, eta beti solotik arako barazkiak gure aukeran genduzan, osaba ta biok artutako arrainkiaz edo erritik ekarrirako okelaz lagunduta. Zer esanik ez, mai-azkentzat ortuko igali ederrak beti irribarreka ziarduan Sabiñe'k mairatzen ebazan.

Nire logelak ibaiko ur-jausteara emoten eban, eta oeratzen nintzanean, atsegin yatan leio edegiaren zear uren suzmur eresintsua entzutea arruan beera oldartzen zirala, an beean itxarokion ur-loaren billa. Niretzat ezin a baiño eresi ederragorik. Lantzean bein, baiña, euri-jasa andien ostean oiko gozotasuna galduta, urak aldapan beera orruka ta zemaika oldartzen ziran, arrapatzen eben guztia asarre bizian narraz eroiela, zubiko zutoiñak zemaikor miazkatuz. Gabak amesgarriak ziran, eta iretargi-zuritan, oera sartu aurretik, luzaro emoten neban besoak leio-barenean kokatuta, lekoreko edertasun lilluragarriari nekatu barik begira ta begira. Iretargi-zuritan, basoko tantaiak erraldoi isiltsuak lez ortzian islaturik marrazten ziran, ibaiaren xingola zurixkaren eresiari ames zoroetan bai'litzazan, adi ta adi.

Gau baten, ibarreko laiñoaren gaiñetik iretargiko aurpegi gorrailla jagiten zala, ezustez, zubiz bestaldean urretxindor bat asiera baten leun-leun, eta gero ozenago, abesten asi zan. Gaberdia izango zan, eta loa nigandik joanda, arimaren goraldi betean ez dakit zein luzaro antxe iraun neban aldiaren zentzuna zearo galduta. Noizbait, gabeko erregea isildu zan, eta atsekabezko asperenaz oeratzen nintzanean, aretoko ordulariak ordu biak jo ebazan. Ezin nengikean siñistu, entzunaldi zoragarriak ordubete bi iraun izan ebal... Errotazar zan maitagarria...!

Maite neban paradisua, baiña, ustekabez, ezbearrak jota billakatu zan, eta zorian aren zati andi bat betirako galdu neban. Ona emen zelan jazo zan Errotazar ondatu eban zoritxar odoltsua...

Zidar-eztegua ospatu ebenean, osabak izekoari arribizi edo diamante jaukal-yaukala esku-erakutsitzat emon eutsan. Izan be, dalako bitxiak diruketa andia balioko eban, eta eztegu-urteurren aretan arribizia plati-

nozko apainketa baten erdian, izeko Edurne'ren bularrean dizdiraka ikusi nebanean, zur eta lur geratu nintzan. Ez neban iñoiz a lako bitxi ederra ikusi, eta izan be, osabaren aberastasun eta emaztearekiko maitasuna aldarrikatzen ebazan.

Eder-ederra izanik, eta beraganako senarraren ederrespena agirian ipinteko, izeko Edurne'k dalako bitxia erabilten eban beti urtetan zanean, naiz eleizara joateko naiz Ibarreta'n erosketak egin bear ebazantetan, eta zer esanik ez, osaba Martiñ'ek lagunduta uriburura joanetan. Ibarreta lako erri txiki baten, oso ezaguna zan izekoren arribizi jaukalaz asko itz egiten zan, baita larregi be, eta sartzan zan edonora, arribizi ospetsua urretik ikusteko jendea urreratzen yakon. Ain zuzen be, bitxi aren edertasunak guztitariko gorralpenak merezi ebazan. Baiña zoritxarrez, bitxiaren bikaintasuna madarikaziñoa biurtu zan...

Gau baten, osaba-izekok sastakaituak erail izan ziran. Zurubiko goikaldean ilteko zorian zaurituta Txomin zetzan. Goizalde aretan zoratu-agiñean Sabiñe Ibarreta'ko urizaindegian agertu zan, gertaera izugarri onen barri emoteko. Errotazar'etiko iru kilometroak etsiak jota, eta oetorraz jantzita ibilkatu ondoren eta ia berba egin eziñik, mintzo totalaz eta dardar baten, urizain bateri jazorikoa azaldu eutsan. Amaitu ebanean kordebagetu zan. Urizaindegitik aida baten uriburuko ertzaindegia urrutizkiñez jakitun ipiñi eben, eta andik ordubete bi eri-berebil bat iru ertzaiñekin Errotazar'era eldu zan.

Osaba Martin eta izeko Edurne, oean bertan sastakadakaz josita aurkitu eben, eta illazkia zearkatu ondoren, soruko oletan aztarna izugarria marratzuz, odola ateraiño edatzen zan. Osabaren gorpuak izekoarena erdiz estaltzen eban, azkenengo unetan emaztea babestu nai izan bai'leuan. Zurubiaren goikaldean, ilteko zorian eta konortea galduta, Txomin aratiñik zetzan. Oraindiño bizirik egoala oartu ziranean, eri-berebillera sartu, aalik ariñen geisotegira eroan, eta odol-artze ugariaren bidez bizirik iraun aal izan eban errotako zerbitzariak. Egunsentian auzitegiko osagilleak osaba-izekoen gorpuak jasoteko agindu eban, eta gorpu-azterketak uriburuko geisotegian eginda gero, urrengo eguneko arratsaldean, Ibarreta'n eben obi ederrean lurperatu izan ziran.

Biamonean, amak eta biok agindutako illetak ospatu ziran bertako parrokian. Ezin nengikean siñistu, maite-maite nebazan osaba-izekok

orren zitalki galduko nebazala, eta burua urratu arren be, ezin ulertu nortzuk izan zeitekezan erailleak. Amorru gorriak artuta, ertzaindegia egunoro ikertzen neban barriren bat jakiteko, baiña dana alperrik, erailleak edo erailleek ez eben ezetariko zantzurik laga, ezta azpuru-aztarnarik txikiena be.

Jazoera au erabillen ertzaiña, Satur eritxana, oso begikoa azaldu yatan, eta erailketea argitzeko sarri askotan beragana niñoan, zertan egoan arazoa jakitearren, baiña asko aalegindu arren be, ertzaintzaren billaketak ezer gitxi lortzen eben. Argi egoan ertzaintzarentzat, baita niretzat be, ekintza izugarri aren eragiña edo zioa, arribiziaren ostuketea izan zala, etxeko txoko guztiak eta altzariak arakatu ostean, erailleek gauzak zabalerik-zabalera laga izan ebezalako, au da, zalaparta bizian jardun izan ebela, iraduak artuta-edo. Illabete bi igaro ziran, eta arazoa ez zala argitzen ikusirik, gogo txarrez bazan be, ertzaindegia ikertzeari uko egin neutsan.

Izan be, bazan beste zio bat nire jakingurea epeldu ebana, eta auxe alegia: itsu billakutzen asten nintzan, eta egoera onetan nire gatxak, erailleak arrapatzeko nai bizia otzitu eustan, eta areikiko amorruek neugan piztuta iraun arren, zeozer baretu izan yatan, txingarrek errautspean bizi-rik jarraitzen daben antzera.

Eta bein baten, edeski onen asieran azaldu izan danez, erailketa izugarria jazo zanetik urtebete bat inguru igaro izan zala, barruko zerbait esan-eziñak Errotazar'era biurtzera eragin ninduan, eta barruko bultzada oneri jarki eziñik, ain lege andia neutsan txoko maite aretara biurtzea erabagi neban. Nire errota aztueziña...! Bai, neurea zan biotzez eta jabetasunez, osaba-izekoak il eta illabete batera azken-naia irakurri genduanean, Errotazar eta oneri zegokion etxaldea baita beste ogasun guztiak be, yarauntsizat lagaten eustezan. Aberatsa nintzan, baiña izan be, jabetasun guztioi uko egingo neutsen zorionez gaiñezka, osaba Martin eta izeko Edurne, aspaldian lez barriro besarkatzearren...

Udabarriko goiz eder aretan Erroman'en zalpurdiak bilin-bolaka leunetan Errotazar'era nindaroala, nire buruari autortu bear izan neutsan, aurreguneko biozkada indartsuan, baegoala beste eragintza bat... Bai, izekoaren arribizia, erailleek ostu izan eben ala ez egiztatu nai neban. Ordurarte ez egoan iñongo ziurtasunik oneri buruz, erailketeak jazo ta gero ertzaintza errotara joan zanean, etxeko gauzak eta arasako gaiak batez be, or-emen jaurtita naaspil andian aurkitu ebezalako. Ertzaintzaren eritxiz gaizkilleek iradu andiaz jardun izan eben, gela guztiek erakutsitako naaste-borrasteak adierazoten eban ez. Eta nik egun aretan, bitxia ostu izan zan ala ez egiztatu gura neban. Agiri zan niretzat, osaba-izekoen gelan nai-ta-ez aurkituko zala, edozein lekutara joateko gelatik urteten zanean, dalako arribizia bularrean josita ekarrelako izekoak beti, eta lekuren baten izatekotan aren apain-maitxua izango litzake. Argi egoan bestetik, erailleek mai ori ardurarik andienaz arakatuko ebela... Baiña nire ustez, apain-maitxu orretan ezkutuneren bat egongo zan, sarri askotan izekok amari esan eutsalako, onek bitxiari buruz itauntzen eutsanean, toki idoro-eziñean gorde eroiala... eta egun aretan bertan ezkutunearen billa jardungo neuke, orretarako zenbat-gura astirik nire aukeran neban-eta.

Oldozkun oneitan murgilduta niñoala, Errotazar'etik ur gengozala esan eustan Erroman'ek, eta zubia zearkaturik, etxeko ate-ondoan gelditu eban zalpurdia auxe iñostala:

- Pruden Jauna, eldu gara. Zein ordutan biurtuko naz zure billa...?
- Ze ordu da, Erroman...?
- Amaika ta erdiak.
- Orduan zer deritxazu arratsaldeko bostetan...?
- Ederto, Jauna, bost-bostetan emen izango nozu.

Zalpurditik jaisten lagundu eustan, eta janari-zorrotxu ta itsu-makilla emostazala, ateraiño lagundu eustan.

– Nai al-dozu atea edegi dagitsudan...? –itaundu eustan–.

– Ez, eskerrik asko, gero arte.

Zalpurdia biurtu zan, eta zubia zearkatuta, luzaro barik aren ibilte-zaratea galdu zan, ate-aurrean bakarrik geratzen nintzala. Giltza atara neban, eta morroilloan sartuta, kurrinka bat aditzen zala, atea edegi zan. Itxi neban atea giltza emon barik, eta makillaz lagunduta itsu-mustuka ibiltzen asi nintzan. Laster eldu nintzan aretoko mai ederreraíño, eta zuru-bira joateko inguratzen nebala, mailla batek karrask egin eban. Argi egoan niretzat baten batek zapaldua zala. Izu bakanak artuta gelditu nintzan, eta aurpegia jasota,

– Nor da or...?

Ez neban erantzunik artu, baiña nire entzumen argiak gizaki bien jaiste isil eta arduratsua aditu eban. Latz-ikara batek alderik-alde zearkatu ninduan, eta egundo ez jasandako larritasunaz, zerbaitek zemaitzen ninduala oartu neban. Isiltasun a eroan eziñik, bildurrak urraturiko mintzoz, barriro itaundu neban:

– Nor da or...?

Orduko, ziranak-zirala, nire ondoan egozan, eta isillune baten ostean, mintzo zakar batek auxe itaundu eustan:

– Nor zara, eta zertan diarduzu toki onetan...?

Asiera baten ez neutsan erantzunik emon, eta izan be, nire izuturiko adimenak ezin egikedan berba egokirik ezpanetara ekarri, eta olan ezpaitsu nengoala, atzaparra zirudian esku batek besoari eutsi eustan, eta lengo mintzo zakarrak barriro:

– Itaundu dautsut –zemaitu ninduan– nor zarean, eta zer egiten dozun emen, papao, babalasto orrek, eta arin baten erantzunik emoten ez ba'dauskuzu, damutuko zara, bai orixe...!

Dardar baten nengoan, eta au ikusirik, gizon arek bultzada bat az aulki baten jesarri-erazo ninduan, eta gero nire aurrean jarrita,

– Jesarri zaitez, bildurri madarikatua –esan eustan zemaikor–, izua-zen-izuz ezin zaitekez zutunik egon-eta. Azkenengoz galde egiten dautsut zertara etorri zarean etxe onetara...

Ulertu neban gizon zakar arek benetan ziarduala, eta arin erantzun ezean gorriak jasango neukezala. Orduan auxe esan neutsan:

– Etxe au nirea da, eta eguraldi ederra ustiatuz, eguna emotera etorri naz.

Asierako bildurra joaten asten yatan, eta gero ta nire buruaren jabeago oartzen nintzan. Orduan erabagi neban bazala nire eretia itauntzeko, eta,

– Zergaitik zagoze etxe onetan...? –galdetu neutsan–.

– Ori gero jakingo dozu, kaiku orrek. Esan bear dautsut, itaunak egitea niri dagokidan gauza dala, eta ez zeuri. Esan daustazu etxe onen jabea zareana. Nor zaitut ba...?

Erantzun aal baiño len, gizon aren laguna tartetu zan, auxe iñotsala:

– Baiña aita, ez al-dozu ezagutzen etxe onetako jabe zanaren lobeia, Pruden kaiku ta bildurtia...?

– Ixo, ganorabako ori...! –eten egin eutsan besteak–. Ez gara etorri etxe onetara iñongo zantzurik emoteko, zeatz garrantzitsu bat argitzera baiño.

Eta gero niri mintzatuz,

– Aizu, gazte, esango daustazu zure izekoak non gorde eroian diamantea...?

Izan be, nire egoerea ez zan onenatarikoa, eta zelan edo alan astia irabaztea izan zan otu yatan gauza bakarra, arazoari luzabidea emonez, eta,

– Diamantea edo arribizia diñozu –erantzun neutsan–, zein baiña...?

Urreratu yatan, eta nire besoari atzaparra zirudian esku batez eutsirik, mintzo zemaikorraz,

– Ez neuri ziria sartu gazte milika orrek –esan eustan–. Zeuk ondo bai ondo dakizu zeri nagokion, baiña ez zaiataz orren erraz nire eskuetatik iges egingo, ez orixe...! Gau aretan nire semeak eta biok egin gendua ez da gaberdiko auntzaren estula, asmo zeatz eta ondo ausnartua baiño...

Isildu zan une batez, eta nire besotiko atzipena kenduta, beste aulki baten nire aurrean jesarten zala, onetaraxe jarraitu eban:

– Bai, gau aretan orrek eta biok egin gendua ez zan beingo bateko arazoa, ondo ausnartua baiño, eta jakin dagizun nortzuk garean, gau aretako gora-beera batzuk emongo dautsudaz, eta amaitu dagidanean, oartuko zara baita ondo be, ez ba'daustazu esaten egia, zeureak egingo dauala.

Isildu zan barrero be, bere barruan biltzen zala, urrean, eta gero mintzo arranditsuz,

– Ara... –jarraitu eban–. Zeure izeko txaldanak diamante yaukala bazterretatik arro-arro erakusten ebala jakin nebanean, Ibarreta'n eta beste lekutan be barri-ekarle onak badodaz-eta, bereala otu yatan aberas-teme baten apaingarria baiño, askozaz egokiago izango litzakela sendi beartsu baten jabetasuna izatea. Bai, niri eskiñitako arazo batentzat dirua bear izaten neban, eta gaiñera, etxean gorriak jasaten genduzanez, bein betiko nire ataka larriari azken emotea otu yatan.

Ona elduta, isildu zan nire aurrean jesarrita egoan gaizkillea, eta gero,

– Bai, jakin bear dozu gazte aberaskume orrek, mundu onetan ezbar-dintasun jasangatxak dagozala; batzuk, zeuretarrak lez, dirutan ler egiteko zorian, eta beste askok gosez il-agiñean. Esan bear dautsut, beraz, ostutea ez dala iñongo pekaturik, aitzitik, gizartearen bidebagekeriak konpontzeko tresna egokia baiño. Beraz, Errotazar'en gaiñezka ebenai bitxi bat kentzea gosez ebiltzenai emotearren, bidezko gauzatzat artu daiteke. Ez zatoz bat nirekin, gazte kokolo ori...?

– Zeuk diñozun ezker... –erantzun neutsan, nire buruari itauntzen asten nintzakiola, aurrean berba egiten eustan gaizkillea, burutik eginda ez ete egoan.

– Neuk eta beste askok esana da ori, gazte papao ori, eta gaiñez jabetzen dabenez gogo onez emon ez daroien ezker, aalik eta geien kentzea zillegitzat dogu, buruan adimen pittin bat daukagunok. Onezaz gaiñera, garai aretan gorriak jasaten genduzan gurean. Bai, jarduten neban lantegiko nagusiak, ezerezkeri bategaitik kalera jaurti ninduean, nire lagun batek, arazo bikain-bikaiña eskiñi eustan, baiña zoritxarrez, bearezko-dirurik ez, jardun barrian asteko. Orduan, zure izekoaren diamantearena burura etorri yatan, eta bereala egitasmu zeatz bat atondu neban, eta gau baten, illuntasun betean isil-ostuka Errotazar'era etorri gintzazan. Goizeko ordu bietan inguru etxe onetara elduta, atea eta leioak itxita egon arren, neuk bakarrik ezagutzen nebanetik sartu gintzazan isil-tasun betean. Ez uste, kokolo orrek, zelako sarbidea erabilli genduan azalduko dautsudanik, bai zera...! Ori zerorrek garandu bear dozu, baiña ez dot uste bearezko adimena izango dozunik orretarako, kaiku orrek.

Ona elduta, barre-santzo andia jaurti eban bere semeak lagunduta. Orduan, nire buruari itauntzen asi nintzan, aurrean neban gaizkillea bere senaren jabe izango ete zan... Edozelan be, erara ez etozan zeatzak niri emotea alperriko jokaerea iruditzen yatan, eta ainbat areago bearezkoak ez izanik.

Barreak amaitu yakezanean, onetaraxe jarraitu eban:

– Baiña noakion gau aretan jazo zanari. Etxe-barrukoa illun-illun izanik, esku-tximistargi bataz, orko zurubian gora abiatu gintzazan txintik txikiena bera be atara barik, orretarako oiñetako isiltsuak gerabillezan-eta. Goikaldera iritxi gintzazanean, gela nagusia edegi, eta esku-argia oera zuzenduta, oiu egin neban:

– Arin, eta zaratarik egin bage, emoidazue diamante ospetsua, bestelan onek eta biok ilgo zaituegu oraintxe bertan...!

Nire berbok entzutean, oean jesarri ziran, eta begiak zuringotuta begiratu ginduezan eskuak dardar baten, txintik atara barik. Eroapena gal-tzen asi nintzan, eta bigarrenez bitxia emon egiden agindu neutsen. Orduan, atsoa didar baten asi zan, dalako bitxia ez ebala ta ez ebala esanez. Aren oiuek nire onetatik atara ninduen, eta itsu eginda isildu zeiten agin-du neutsan. Alperrik, baiña, atsoak gero ta zaratatsuago ziarduan. Etxeko zerbitzariak itxartu zeitezkan bildurrez, oldartu nintzakion, eta aboa eskuaz estaldu neutsan. Une aretan, bere senarrak eraso eustan, eta nera-billen aiztoa kendu egidan baiño len, bikotea sastakatu genduan. Esan bearean nozu, gazte papao ori, zure osabea gizon indartsua zala, eta nire semeak eta biok estu ta larri ikusi genduan gure burua, baiña azken baten eriotzak artuta senar-emazteak isildu ziran...

Era onetan berba egiten ebana, ezin nengikean ikusi, baiña ziur nintzan zoratasun otzaren karantza erakutsi bear ebala, gau aretako izugarria orren nasai gomutara ekartean, eta bere buruaren arrandia eginez. Isillune aren bitartean, zelako izu esaneziña jasango eben osaba-izekok, zoro basati aren eta bere semearen sastakada eraikorrak artu bitartean, ikara bizian gogora etorri yatan. Laster, baiña, aditu neban barrero eraille aren mintzo iguingarria onetaraxe iñoala:

– Senar-emazteak erailda gero, igarobidean zear oiñotsak eta berba itaunkorrak aditu, nebazan. Gelatik urten, eta Txomin, etxe onetan ziar-duan morroia ikusi neban. Madarikatuak, igarobideko argia piztu izan

eban, eta oe-arkondaraz jantzita, zer jazoten zana jakiteko etorren. Zorionez, igarobideko argia motela zan, eta onezaz gaiñera, ikusmen urrikoa izanik, ez dot uste une aretan dalako Txomiñ'ek ezagutu nindegian. Edozelan be, ez neutsan aukera andirik emon orretarako, eta aren aurka oldartuta, soñez-soin burrukan egin genduan, baiña bein eta barriro saskaturik, noizbait bultzada bataz zurubian beera eperturtika igorri azken maillaraiño, eta emen iltzat laga neban. Zoritxarrez, ez zan il, eta gero jakin nebanez, bizirik urten zan. Beste urrengo baten arrapatuko ba'neu, ez litzake onik urtengo morroi madarikatua, ez orixe...!

Ona elduta, une batez edeskiari eten egin eutsan, aiñen eta biraoka Txomiñ'en aurka itzelak botaten ebazala, eta gero zeozer bareturik, gertakizunaren ariari jarraitu eutsan onetaraxe:

– Orduan gela nagusira biurtuta, argia piztu, eta zeatz-zeatz txoko ta ezkutune guztiak arakatu genduzan. Olan giarduala, burura etorri yatan ustekabez, Txomiñ'ez gaiñera, etxe aretan bere emaztea ziarduala, eta astirik galtzeke zerbitzarien gelara joan nintzan, baiña ez neban iñor ikusi. Suzmo batek jota, leio bat edegi, eta ozta-ozta atorra zuriz jantzitako emakume bat zubian zear joiala ikusi neban. Lenengo bultzada baten, aren atzetik joan, eta neskamea iltea bururatu yatan, baiña alperriko izango litzakela pentsatuz, berak ez ginduzan ikusi-ta, gela-arakatzeari jarraitu geutsan, eta arrakasta barik jardun ondoren, beeko areto onetan billaketea jarraitu genduan, baiña emen be ezer ez. Orduan, azterketea beste egun baterako geroratzea erabagi genduan, neskame madarikatua Ibarreta'ra eldu-agiñean izango zan-eta. Len sastraka baten ezkutaturiko mototxirindolea artu, eta arin baten iges egin genduan, beste urrengo baten arakatzeari jarraitzeko asmoz. Norbaitek ikusi gengizan bildurrez, urtebete bat igaro zeiten itxaron dogu, eta garaia zala uste izanik, atzo illuntzean ona biurtu gintzazan, etxea utsik egoala ziurtatuta gero...

Isildu zan gaizkillea barre egiteko isekari, eta,

– Bai, gazte eztimetxa ori –jarraitu eban–, izan be, alagala etorri zaiakuz, geurok alperrik billaturikoa idoroten lagundu dagiskuzun. Diamanteari buruz norbaitek jakitekotan, nor zeu baiño egokiago benetako argibideak emoteko...?

Itzok esanda, jagi zan, eta nigana urreraturik, bere atzapar iguingarria lepoan jarten eustala, mintzo zemaikorraz auxe esan eustan:

– Ez dogu astirik galdu gura, naikoa galdu dogu-ta onezkero. Augaitik ba, oraintxe bertan zugandiko argibideak artu nai doguz, ostantzean, zure osaba-izeko ergelak garbitu genduzan lez, zeu be beste mundura bialduko zaitugu, baita arin be gero...!

Au esanda, saman sastakai edo aizto baten mutur zorrotza oartu neban. Ikara esan-eziñak artuta nengoan, eta ainbat areago nire itsutasuna zala-ta. Nengoan egoera larrian ezin besterik egin, eriotza itxaron baiño. Bapatean, ezin nengikeala olan beste barik, eraille zakar eta zoro aren eskuetan nire bizi izateari uko egin otu yatan, eta etsiak eraginda, urtenbideren bat billatzeari emon neutsan. Ezustean, tximistaren antzera, burutapen bat etorri yatan, eta sastakaiaren muturra gero ta mingarriago sentitzen nebala, auxe esaten otu yatan:

– Mesedez, kendu nigandik aizto ori, eta dakidan guztia esango dautsut.

– Ondo da –erantzun eustan–; jesarriko naz zure autorpena entzutearren, baiña ez erabilli ezetariko amarrurik, bestelan zirt-zart...! kokotea kenduko dautsut begien itxi-edegi baten. Asi zaitez beingoan...!

– Ara ba... –ikara baten asi nintzan– Konturatu bear zara, izekok non gorde eroian arribizia neuk edo amak jakin ba'gendu, onezkero nire amaren etxean edo diru-etxe bateko kutxan egongo litzakela, eta ez etxe onetako edozein ezkutunean. Baiña egi-egitan esan dagiketsut, dalako bitxia ez dagoala etxe onetan, ezta nire amarenean be.

– Zelan dakizu ori...?

– Etxe onetan emon neban azkenengo udaldian, Ibarreta'ra lekaide edo praille bat bederatziurren bat emoteko etorri zan. Izlari bikain-bikaiña ei'zan, eta aren ospeak eraginda, amak eta izekok dalako bederatziurrenera joatea erabagi eben. Egunoro Txomiñ'ek, Errotazar'eko morroiak, zalpurdiz eroan eta ekarten ebazan. Gabeko otordua egiteko baten gintzazanean, egunik-egun izeko Edurne'k jasaten eban aldakuntzea agiri zan. Bazirudian bere baitan bilduago, ozta-ozta berba gitxi batzuk esateko gai zala. Bederatziurreneko azken egunean apaltzen giarduala, izekok osabari auxe esan eutsan:

– Aizu, Martin, badira egun batzuk oldozkun sakonetan murgilduta nagotzula, eta gaur bederatziurrena amaituta onantza nentorrela, ustekabez, egunokaz larritzen ninduan arazoa argi-argi ikusi dot.

– Zeri buruz mintzatzen zaiataz, Edurne...?

– Ara... egunotako sermolariak, bein eta barriro esan dausku, bene-tako giristiñotasuna bearrizan gorrian dagozanai laguntzea dala, eta aberastasun-zati bateri uko egitea lagun-urkoari emoteko, egin dagikegun ekintzarik ederrena dala. Izan be, Martin maite ori, bizi izateko bear dogun baiño askozaz geiago emon dausku Jaungoikoak, eta bidezkoa deritxat, beraz, enparautik zeozer emotea beartsuai.

– Tira, Edurne –erantzun eutsan osabak–, esaidazu zenbat emon gura dozun, eta diru-agiri (txeke) bat emongo dautsut.

– Eskerrik asko, Martin, baiña neuk beste modura egingo neuke.

– Zelan...?

Izekok une batez ezpaitsu iraun eban, eta gero mintzo errimez,

– Zeuk emon zeustan arribizi yaukala saldu, eta artutako dirua beartsuen artean banandu.

Une batez begiratu eutsan osabak arrituta, eta gero,

– Ainbeste ederresten dozun bitxiari uko egitea diñostazu...? Eta gaiñera geure zidar-ezteguaren oroigarri bikaiña izanik...?

– Bai, Martin, niretzat zeugandik artutako bezuzarik ederretsiena dot, eta augaitik egin dagikegun eskintzarik baliotsuena izango da.

– Baiña zure bularrean beti ain arro eroan dozun bitxi maiteari, zelan uko egin itzetik-ortzera...?

– Naiago dot biotzean eroan bularrean baiño, eta zeuk emoniko arribizia, goseti ta beartsuai laguntzearren erabilli izan dala gomutara yator-danetan, zorionaren andia...!

Andik egun batzutara, izekok bere guraria bete eban, eta etxe onetatik arribizi yaukala beste iñora joan zan betirako...

Une aretan, seme gaizkillearen abots asarratua aditu zan auxe iñoala:

– Aita, ez jaramonik egin berbalapiko orreri, esan dauskuanari asieratik azkeneraiño guzur-usaiña dario-ta.

Kinka larri aretan gaizkille nagusiari burutara emon bear neutsan, nik esandakoa egia zala, eta orduan mintzo arranditsuz,

– Uste dozu –erantzun neutsan–, estu ta larri dagoan neu lako bat, ipuiñak asmatzeko gai danik...? Nire begien argiagaitik zin dagitsuet esandakoa egi utsa dala, eta egiztatzeko ez dozue besterik egin bear, uriburuko gotzaindegian itaundu baiño.

Lege-gizona nintzan aldetik, banekian gauzak itxura egitiaz esaten. Banekian baita be, gotzaindegira joatekoa alperrik zala Jaungoikoaren legetik urrun ebillen areintzat, baiña egi-kutsua emon legikiola begitandu yatan. “Nire begien argiagaitik” zin egitea, ez zan iñongo ziñausterik, nire begiek argirik ez eben ezagutzen-eta, baiña niñotsenari benetasuna emotsan.

Bitartean, gaizkille nagusiak isillik zirauan, eta nire ipuiña asi nebanetik ordurarte, ez eban ezer esan. Bera lako barritsuek, erailketearen zertzelada ugariak emon eustazan-eta, orren luzaro iraun egian, zeozer esan gura eban, eta auxe alegia: nik esanikoari ardura emotsala, eta onek itxaropen-izpi bat emostan, jarritako amuzkia irunsi egikealaren zantzua zalako. Oldozkun oneitan murgilduta nengoala,

– Ez dakit ba –oldozkor esan eustan–, egia diñostazun ala ez, baiña ainbeste arakatze ondoren, dalako diamantea iñondik ez agertzea, emen ez dagoalako izan daiteke... Diamante madarikatua...! Egitasmo arduratsuren ostean, etxe onetan egin genduan lana alperrik izan, eta bart bururiko arakatze osoa emen ez egoan bitxi baten billa izan zala pentsaten dodanean, zorotzeraiño oartzen naz...

Au esanik, emen ipiñi ezin dagikedazan aiñen eta biraoak jaurtiten asi zan. Noizbait, iztegi zantarra amaitu yakonean, aulkitik jagi zan, eta nigana urreraturik, belarrondoko itzel bi emon eustazan auxe iñostala:

– Ez dakit, zuur jokutzen dodan ala ez. Edozelan be, oraingotz bizerik lagako zaitut, baiña entzun auxe ondo bai ondo: gaurkoa salatzearren ertzaindegira joango ba’zintzaz, ez zara luzarorako izango, ergeltzar ori...!

– Ez, aita –eten egin eutsan semeak–, il dagigun oraintxe berton. Beste mundura joandakoez ez dabe barbarik egiten. Gaiñera, len esan dauskuna ipuin ustela izan da, bakean laga dagigun. Emon dagiogun beste mundurako txartela, eta kitto. Esaera zaarrak diñoanez: “Ildako astoak ostikadarik ez”.

– Ez, Niki, ez, kaiku au erailteak ez lekarkiguke diamante madarikatua, baiña bai ordea ertzaintzaren beste billaketa bat, eta aregandik urrunago ta obeto. Goazen ba, seme, artu dagigun sastrakaren artean ezkutatuturiko mototxirindolea, eta biurtu gaitezcan etxera, badakizu bialketa bat artu bear dogula gabeen. Goazen, Niki.

– Bai, aita, baiña joan aurretik kakati oneri gaurko ikerpenaren gomutagarri bat emongo dautsat, aspaldi luze batez aztu ez gagizan...

Kebidera joan zan, eta aditu neban zelan an eskegita egoan kate-zati bat artzen ebalá. Zati au, aspaldian errotako aztakiñaren oroigarria zan. Gero, urrats astirotsuaz urreratu yatan, eta bapatean, katekada izugarria aurpegian zear bururaino oartu neban, eta nire baitan illuntasuna eginda, kordebagetu nintzan.

Ez dakit zein luzaro iraun neban soruan etzanda, baiña noizbait nire senetara biurtu, eta aalegin itzela egiñez, jesarri nintzan soru-gaiñean. Burukomin izugarria oartzen neban, eta gero apurka-apurka nire zentzu-naren jabe billakatu nintzan, jasandako izua gomutara yatordala. Aurpegian beera zerbait eridala iruditu yatan, eta eskuaz ukututa, odola zala oartu nintzan. Nire ondoan lengo aulkia egoan, eta indarraldi andia egiñik, jagi ta jesarri nintzan, burua aulki-bizkarrean ipinten nebala atzerantz biurtuta. Zoratzerañoko miña sentitzen neban, eta nire lenengo bultzadea, etxe aretatik aalik ariñen urtetea izan zan, baiña nora joan ni itsu gaixoa...? Lekoretik ibaiaren suzmurra aditzen neban arruan beera atxen artetik oldartzen zala. Len niretzat eresi lilluragarria izan zana, orain itun eta zamaikorra etorkidan, nire bakartasuna gogora ekarkidala. Kinka larri aretan, ez litzakit inor etorriko laguntza emoteko... Bai, bos-tetan Erroman nire billa etorteko zan, zalpurdiz Ibarreta'ra biurtzeko. Nire ustez, arrezkero ordu bata izango zan, eta lau ordu luze, izugarri, minkorrek iraun bear izango neukez, zoratzeko zorian oartzen nintzala...

Ustekabez, ezin nengikeala antxe jarraitu erabagi neban, eta nonbaiten jausita egongo zan nire itsu-makilla billatzen asi nintzan. Laster idoro neban nigandik ez urrun, eta soruan zear aztamuka ateraino joan, eta giltza emonda, zubirantz abiatu nintzan. Zorionez, zati au ondo ezagutzen neban, eta luzaro barik zubiz bestaldean nengoan.

Iru kilometroko bitartea egoan erriraino, eta ordubete bi barik an izango nintzake. Zorionez, eguraldi ederra zan, eta zabaldian zear etorkidan aizeñno mee batek zeozer bizkortu ninduan, nire burukomiña baretu ez arren be. Eta bidean zear aztamuka aurrera niñnoan batzutan aieneka, bestetan egoera aretara eroan ninduen gaizkilleen aurka abo-betekoak jaurtiten nebazala. Noizbait, bide-erdian egoan biurgune zorrotzera

eldu nintzan. Leku onetan, Errotazar'ena zan alor-une zabala aurkitzen zan, eta andik ur egoan basetxe bateko maisterrak erabilten eban. Alako baten, didar ozen bat aditu neban,

– Euuuup...!

Gelditu nintzan itxaropentsu, eta abotsa ezagutzean dei egin neutsan urreratu ekidan. Erein-barria zan arloa ikertzeko etorrira, Peli, Errotazar'eko maisterra zan, eta arin baten urbilduta, urretik ikusi ninduanean, mintzo urduriz,

– Pruden Jauna –esan eustan–, zer jazo yatzu, baiña...? Aurpegia gainbeera odoldu ta ubelduta ikusten zaitut. Izan be, jausteko zorian emoten dozu...

Jazotakoaren barri ez neutsan emon gura, urrengo egunean bala-bala ibilliko litzakelako, eta augaitik,

– Ez da gauza andirik, Peli –esan neutsan mintzo nasaia itxuratuz–. Gaur goizean errotara joan naz, eta goiko mailladitik uts egiñik, beeko aretoraiño eperturtika jausi naz, eta soruan egoan burni-antzeko zerbaitek zauritu egin nau. Arratsaldeko bostetan Erroman nire billa etorteko zan, baiña egoera onetan ez dot orren luzaro itxaron gura izan, eta errirako bidea artu dot nire kabuz.

– Baiña, Pruden Jauna, zelan otu yatzu ori, itsu izanik...?

– Bidea ezagutzen danean, itsu-makillaren laguntzaz, itsua ez da itsu osoa.

– Jauna, zauri izugarri ori lenbailen zaindu bear yatzu. Neuk lagunduko dautsut erriraiño. Nora eroango zaitut...?

– Eroan nagizu Erroman'en etxera.

Besapetik artu ninduan, eta bide enparaua Peli'ren gidaritzapean laster egin neban. Bidean gaindi giñoazala, Erroman'eri gertatuaren egia esan ala ez gogoan erabili neban, eta noizbait, jausiarena egitea erabagi neban. Nire ezbearraren zabalkundea ez egitea zerbaitek eragiten ninduan, eta oldozkun oneitan Erroman'en etxera eldu gintzazanean, Peli'ri agur esanda, atea jo neban.

Erroman'en emazteak, Mari'k, atea edegi eustanean, aieneka asi zan, eta didar baten senarrari dei egiñik, besaulki baten jesarri-erazo ninduan, eta zauriak garbitu bitartean, Erroman min-aringarri baten billa bialdu eban sendagaitegira (parmatzira), jasaten neban buruko min itzela

arindu ekidan. Andik laster, aringarria artu neban, eta senar-emazteen itaunai erantzun emonez, zurubian beera jausi izan nintzaneko ipuiña esan neutsen. Ez dakit burutara emon ete neutsen, baiña orduko, egia isiltea erabagi neban. Andik laster.

– Aizu, Erroman –agindu neutsan–, etxera nai dot lenbailen, eta be-raz, erriko taxia bear dot. Joango zara aren billa...?

Joan zan Erroman zintzoa, eta andik laster biurtuta, une aretan aukuran ez egoala taxirik esan eustan. Nik, baiña, uriburura aalik lasterren biurtu nai neban ezkerro, tren-geltokira lagundu egistan eskatu neutsan, eta bere zaintzagaitik Mari'ri eskerrak emonda biotzez, bere errukizko sentipenak inguratzen ninduala, Erroman eta biok geltokira joan gintzazan. Uribururako urrengo zerbitzua seiretan zan, eta Erroman'en berbeta errukitsu ta bakunak lagunduta, noizbait, burdinbideko jarraigoa eldu zan. Leio-ondoko jarleku batera lagundu eustan, ibiltean aizeak aurpegian jo nindegan, eta guztitariko onginaiez inguratzen ninduala, gurdien jarraigoa abiatu zan.

Aurrera giñoazala, aurpegi betean emostan aize pizgarria, baita Mari'k niri artu-erazotako baregarria zirala-ta, burukomin erogarria guztiz ez ba'zan be, zeozer arintzen asi yatan, eta astiro-astiro, ordu batzuk lenago jasandako une larriak argi ta zeatz ausnartu nebazan. Ain zuzen be, osaba-izekoen erailleen pean jasandako une aztu-ezin areik, neugan amorru bizia piztuten asi yatazan. Eraiketa bikotxetik igarotako urtebe- te aretan, beti eragin bizi batek bultzatu izan ninduan erailleak billatze-ko, eta augaitik, sari askotan ertzaindegia ikertu oi neban, barriren bat jakiteko, baiña len aipatu dodan lez, ez zan iñongo aztarnarik agertu. Azkenengo ikertaldian jakin-erazo neban, ezkutukia estalgetzeko norbaitek argibideren bat ekarriko ba'leu, milloi erdiko saria emongo neuskiola. Baiña au be alperrik azaldu zan.

Zabaldian zear tximispurdiak uriburura nindaroala, aita-seme gaizkilleen jokaerea gogoan nerabillen, eta gero ta andiango egiten zan sumin batek artuta, zin egin neutsan nire buruari, lerrenak egingo neukezala osaba-izekoen erilleai merezitakoa emotearren. Basati areik neu lako itsu bateri egiñikoa ezin nengikean ulertu, eta amorru biziak artuta, nire buruari zin egin neutsan, dalako Niki'k niri emondako kate-zartada mingarria, ez neukela edozelan be aztu egingo. Trenaren bilin-bolaka bako-

txak ziztada jasan-eziñak eragiten eustazan buruan, garuna ler egiteko zorian bai'lebillkidan. Baiña oroz gaiñetik nire amorrua sututen eustena, osaba Martin eta izeko Edurne'ren eriotz izugarriak ziran, kontuan izanik batez be, noraiño maite izan nebazan.

Oldozkun oneitan niarduala, uriburura eldu nintzan, eta taxien geldiunera lagundu egistan alboko gazte bateri eskatu neutsan. Zorionez, eguraldi ona izanik, laster idoro neban bat, eta erabillariak nora nai ne-bala itaundu eustanean, ertzaindegira eroan nindegian agindu neutsan. Andik urrun samar egoan, baiña jaiegun izanik, berebillen joan-etorria ariña zan, eta luzaro barik aratu gintzazan.

Txandako ertzainegana lagundu eustan atezaiñak, eta eldu nintzanean, ezaguna zala egiztatu neban. Izan be, buru ta aurpegiko zauriak ikusi eustazanean, arritasunezko oiu bat iges egin yakon.

– Baiña zer jazo yatzu...? –itaundu eustan–.

– Eraso bat jasan dot, eta dagokidan salakuntzea egitera nator. Aizu, bidebatez, Satur'ek jai-eguna izango dau, ezta...?

– Bai, baiña nagusiak dei egiña, alanbearrean emen dago.

– Esango dautsazu, emen nagoala...?

Laster etorri zan Satur, osaba-izekoen eriotz-billaketea erabillen nire aspaldiko ezaguna. Ikusi ninduanean, zur eta lur geratu zan mintzo txeratsuz auxe itauntzen eustala:

– Baiña, Pruden, adiskide maite ori, zer jazo yatzu, orren zauritua etorteko...?

– Eraso dauste, Satur, eraso dauste, eta ain zuzen be, orren salakuntzea egitera etorri naiatzu.

– Ze salakuntza ta salakuntza-oste...! Gorpu baten itxuraz ez dago iñongo salakuntza egiterik. Oraintxe bertan erri-geisotegira eroango zaitut, nire berebilla ate-ondoan dot-eta. Konortea galtzeko zorian emoten dozu, eta nire eritxiz, zauri orreik, burukoa batez be, osagille baten esku-sartze ezinbesteko ta azkarrena bear dabe. Goazen astirik galtzeke...!

Laster gengozan erriko geisotegian, eta txanda-osagille batek nire zauriak aztertuta gero, esku-sartzea ezinbestekoa zala esanik, mai baten gaiñean etzan-erazo ninduan, eta logarri bat idunean ziztaturik, konorte barik billakatu nintzanean, buruko narruaren etendurak astiro ta ardurasu josi eustazan. Buruko esku-sartzeak ordubete bi iraun eban, eta gero,

oraindiño lotan negoala, aurpegiko zauriak banan-banan osatu eustazan. Senetara biurtu nintzanean, osagilleak,

– Zegaz zauritu zaitue...? –itaundu eustan–.

– Kate-zati batatz.

– Koska izugarria artu dozu. Erasotzaillea indartsua zan benetan, eta bizirik urten ba'zara, zure gogortasunari zor dautsazu. Betirako laskitua ez izateko gitxik egin dau. Ori ez eban edonork jasan aal izango. Aurpegiko odolbatuak aspaldi batez iraungo yatzuz ostendu arte, baiña buruan jasandako sarraskiakaitik orban meeak betirako izango dozuz; zorionez, baiña, zure billo naroak estalduko ditu. Orain etxera joanda, oeratu zaitetz beingoan lo-erazle bat artu ondoren. Nire ustez, biar askozaz obeto aurkituko zara, eta egun batzuk igarota gero betikoa oartuko be.

Satur'ek etxera lagundu eustan. Gabeko amarrak inguru izango ziran, eta amak ikusi ninduanean, didar baten asi zan zer jazo yatan bein eta barriri itaunduz. Berbatuari jarraituz, nire itsutasuna zala-ta jausi egin nintzala esan eutsan Satur'ek, eta biaramonean jazotakoaren zertzeladak emongo neuskiozala. Bere etxera biurtzeko zorian, urrengo egunean ertzaindegian nire begira egongo litzakela esan eustan Satur'ek.

Lo-eragilleak osagai bikaiña azaldu zan, eta biaramonean indar barrituaz itxartu nintzan. Gosaldu bitartean, errotako zurubian beera zelan jausi izan nintzan, guztitariko guzurrezko zeatzakaz azaldu neutsan amari, eta amaitu nebanean,

– Izan be, seme –esan eustan–, itsu-mutil batek lagundu bear izango leuskizu edonora joateko. Beti esondatu (proposatu) dautsut auxe, baiña zeuk jaramonik ez. Benetan diñotsut, seme, kalera zoazenetan estu ta larri nozu etxera biurtu arte.

– Begira, ama, itsu-mutil bat ba'neu, askatasuna galduz gaiñera, nire burua ezgauzatzat eukiko neuke. Bein baten jazo yatanak, ez dau esan gura egunoro gertatzeko dala, eta izan be, illabeteak badira itsu biurtu nintzanetik, eta olako ezbearra atzo bakarrik jazo yat. Gaiñera, Ikastola Nagusira joan eta etorteko, Erramon nire ikaskideak laguntzen daust egunoro, eta onezaz kanpo, kaleetatik nabillenetan ia beti zurekin noa.

Ama nasaitu zan, eta aize garbia artu gura nebalako atxakiaz, agur esanda, etxetik urten nintzan. Amari burutara emon izan neutsan, aurregunekoa soster bateko ondorea izan zala, eta orrek nasaitu ninduan.

Amari egia esan ba'neutso, aren izua...! Ain zuzen be, egoera bereizietan guzurren bat esatea mezedegarria da.

Goiz aretan ertzaindegira joan nintzan, Satur'ekin berbaturikoa betearen. Eldu ta bereala, abetaldu ninduan aspaldiko ezagun orrek, eta besaulki eroso banatan jesarrita, zeatz bat bera be ezkutatu barik, aurregunean gertatu yatana edestu neutsan. Noizean bein eten egiten eustan zertzeladaren bat argitzearren, eta edeskia amaitu nebanean,

– Izan be, Pruden –asi zan Satur–, atzo zeuk bizi izandakoa izugarria da, eta ainbat areago itsu izanik.

– Biotzbako eraille arein artean, txingote baten antzera oartu nintzan, itzez eta egiñez apaldu ta iraindua. Ezin dagiket ulertu gizaseme areik orren zitalki jokatu egikienik, eta alde egitean dalako Niki'k katekada izugarri a jaurti egistanik, ez yat sartzen adimenera.

– Zoritxarrez, lagun-urkoaren oiñazeaz poztuten diran gizakiak badira mundu onetan.

Orduan, barruko amorruek eraginda, nire onetatik urten nintzan, eta didar baten,

– Arrapatu egizuz, Satur –zorotuta jaurti neutsan–, zelan edo alan atxillo egizuz, osaba-izekoez eriotzak ordaindu dagiezan...! Olako piztiak aske ibilli daitezkan bidebagekeria da, eta gizarterako egundoko arriskua. Atzitu dagiguzan bein betiko Satur...!

Une batez isillik irauin eban ertzaiñak, eta gero, berekiko mintzatu bai'litzan:

– Urtebete bat igaro da arrezkero, eta oraindiño benetako zantzurik ez...

– Arein abotsek nire entzumenean betirako irarrita irauingo dabe, Satur, eta egunen baten entzungo ba'neuz...

– Ori, ia eziña da, Pruden, zelan entzun barriro atzo aditu zenduzan mintzoak...? Kenduizu ori gogotik.

Isildu zan ostera be, eta gero, apal batetik artutako orri-txorta bat aztertzen asi zan irazezan, eta irakurri-ala, berekiko lez, auxe iñoan:

– Guztitariko billaketak egin genduzan erailketea jazo ta urrengo egunean. Sabiñe'ren, Txomiñ'en emaztearen urrutizkin-deia Ibarreta'tik ertzaindegira artu genduan, ertzainburuek Errotazar'era joateko agindu eustan, eta ordutik ona gertatu zan guztia ingurrazti onetan idatziz ar-

tu neban. Errotara eltzean ikusi neban izugarria izan zan. Olako ikuskitunetara oitua izan arren be, izututa billakatu nintzan. Nik ikusi neban ikustekoa...! Eguberdi-inguruan, auzitegiko osagilleak gorpuak eroateko agindu eban, eta txarto zauritua baiña oraindiño bizirik egoan Txomin, etxeko morroia, uriburu onetako geisotegira ekarri eben. Etxea naasteborraste utsa zan, arasa guztietako gauzak sorutik iraulita, mai-aulkiak ankaz gora, sukaldeko tresneri ta jangaiak lurretik sakabanatuta, amaika demoniño zoro andik igaro izan bai'litzazan. Izugarria izan zan, Pruden...!

Une batez isillik irauin eban, eta gero,

– Etxea aalik zeatzen arakatu arren nire laguntzailleak eta biok ez genduan aztarnarik txikiena be idoro aal. Onen ostean, erroteaz zer-ikusirik ebenen jendeai itaunketa zeatza egin geuntsen, ezetariko arrakasta barik. Amabost egunez Errotazar'etik errira, eta emendik etxerako joan-etorriai emon arren, ez genduan ganorakorik ezer jaritsi, eta noizbait, tokiko aztertzeari uko egin bear izan neutsan. Orduan ez genekian, erailleek arribizia idoro izan eben ala ez, baiña atzo jazo yatzunetik, agiri da erailleen ekintza izugarria alperrik izan zala, bitxiaz jabetzearren atzo biurtu ziran-eta...

– Bai, Satur –eten egin neutsan–, eta jasan neban izualdian, ba al-dakizu zer izan zan adoretu ninduana...?

– Zer...?

– Ara... izugarrikeri ta guzti, eraille zitelok arribizia ez dabela lortu. Ez dakizu, Satur, oldozkun onek zelako adorea emon eustan.

– Ertzaiñok gogoan beti daukagu auxe: txulut egindako erailleek, goizago edo beranduago erailtza-lekura biurtzen dira, eta izan be, atzo errotan gertaturikoak eritxi ori ontzat emoten dau.

Isildu gintzazan biok, eta ingurraztiko jakingarriak barriro aztertuz, Satur'ek onetaraxe jarraitu eban:

– Dakizunez, Txomin, Errotazar'eko morroiak, ez-il bai-il aspaldi luzea emon eban erri-geisotegian, eta noizbait, osagilleek baimena emonda, beragana joan nintzan oiko itaunketea egitearren. Bere autorpetetik ez neban gauza andirik atara, eta bein eta barriro zantzuren baten billa itaunketea aurrera neroiala, zeozer ikusi ete izan eban amaikagarrenez itauntzen neutsala, une batez ezpaitsu geratzen zala begitandu yatan.

– Zeuk autortua lez –esan neutsan–, erailleak eraso eutsunean, igarobideko argia piztuta egoan, eta bera urreratzen yatzunean, une batez bederik, aren aurpegia ikusi bear izan zenduan.

Bapatean, aurpegian zear zalantza baten itzala edatzen yakola oartu neban. Orduan bertan, oeburuan egoan Sabiñe bere emazteak, auxe esan eustan:

– Amaika bidar esan daust onek, gau aretan ez ebala ezer ikusi, argia motel samar izanez gaiñera, betaurrekodun dan ezker, ezin izan eban erasotzaillea ondo ikusi. Ez, Jauna, orreri buruz Txomiñ'ek ez daki ezer.

– Orduan –jarraitu eban Satur'ek–, antz emon eustan, zauritu izan aurretik Txomiñ'ek zeozer oartu ebala, baiña bildurrak jota, edo emazteak eraginda, autortzera ez zala azartzen. Ezin ba, Txomiñ'egandik bear neban autorpena jaritsi, eskuen artean nerabilen arazoari bearrezko argia emoteko. Tamala da, Pruden, errotako morroiagandik nik somatzen dodan argibidea lortu ez izatea. Zerbaitek badiñost, baiña, berak zure osaba-izekoeu eraillea ezagutu ebala, baiña bildurrak jotako emaztearen eragintzaz, ez da azartzen autorpen ori egitera; tamal andia benetan...

Ingurraztiko zirriborroak irakurten jarraitu eban Satur'ek, eta alako baten, bekokiari txalo bat emonez,

– Baiña zertan nabiltzu...! –oiu egin eban mintzo urduriaz–. Aztu egin bear be...! Ona emen jakingarria dan auxe: Txomin ilteko zorian erri-geisotegira eroan ebenean, ukabillean ondo atzituta, ule-galpar bat eukan, eta bada-ezpadako argigarria izan zeitekealakoan, ikertzera joan nintzakion baten, erailleari erauzitako dalako galparra, osagilleak emon eustan, eta emengo gordetegian jarri neban, bear izatekotan bere garaian erabilteko.

Au esanik, Satur'ek txiliña jo eban, eta agertu zan ogipekoari txaltaltxu bat eskuratu eutsan esanez,

– Emen idatzita dagoan zenbaki onen zorroa ekarri egistazu.

Laster biurtu zan ogipekoa eskaturiko zorroa ekarrela, eta mai-gaiñean jarrita, joan zan. Barrukoa arakaturik, estalki bat atara eban. Onen barrutik, aipaturiko ule-galparra atara, eta erakutsi eustan esanez,

– Ona emen, bietariko iltzaille baten bekoki gaiñeko ule-galparra. Eutsi, eta aztertu egizu.

Esku-arran ipiñi neban arduratsu, eta begiratu bat jaurti neutsan. Ur-

dinzka itxurakoa zan, eta ez dakit zergaitik, baiña zauskada bakanak menperatu ninduan, lilluratuta lez begiztatzen nebala. Nor izango ete, ule-galpar aren jabea...? Egunen baten ikusiko neuke...? Batek-baki, baiña une aretan zeozer emongo neukean burutik yabildazan galderai eranztzun egokia emotearren.

Azken begikadea galparrari jaurtirik, Satur'eri biurtu neutsan, astiro ta murriz auxe niñotsala:

– Zerbait emongo neuke ule-galpar orren jabea arrapatzearen.

Satur'ek zigarro bat piztu eban, eta pautada luzeak emotsazala,

– Bada beste zer bat –esan eustan oldozkor– oraindiño erantzun egokia emon aal izan ez dautsadana, eta auxe alegia: Txomiñ'en emazteak autortu eustanez, gau aretan etxetik zoratuta urten zanean, atea barrutik giltza emonda aurkitu, eta eragin bear izan eban andik iges egiteko. Ez eban ulertzen zelan sartu zeitekezan erailleak errotara...

– Leioren baten zear –eten egin neutsan– sartuko ziran. Dakizunez, areto nagusia ta sukaldea leio zabalakaz orniduta dagoz.

– Badakit ori, Pruden, baiña gau aretan Sabiñe'k berak beekaldeko leio guztiak oi eban lez itxi ebazan, zeure izeko Edurne'ren agindu zorrotza zalako. Dirudianeaz, bildur zan baten bat andik sartu zeiten-edo...

– Leio asko dago, aretoan batez be, eta areitariko baten bat itxitea aztu egingo yakon, urrean...

– Ori eziña da. Egokidan billaketea egitearren errotara eldu nintzanean, leio guztiak banan-banan aztertu nebazan, eta danak ondo itxita egozan. Oiko kisketaz gaiñera, leio bakotxa langa lodi bat az ziurtatuta ikusi zeitekean. Erailleek andik sartzerik ez.

– Egunez atetik sartuko ziran-edo, eta ganbaran ezkutatu gautu arte, urrean...

– Ganbarea autsez estalduta ikusi neban, eta baten bat andik ibilli ba'litz, oiñatzak itzi bear, baiña nik ez neban ezetariko aztarnarik ikusi.

– Eta kebidetik...?

– Onek ez dau eskintzen bearrezko zabalunerik gizaki bat sartu daiten. Izan be, arazo onek geien arritu ninduana izan zan. Ez dakit egunen baten ezkutuki ori argituko ete dan, baiña zure senitartekoeu erailketeari buruz ezer gitxi dakigu. Txomin eta Sabiñe zerbitzariak zeozer badakielakoan nago, baiña bildurrak jota, antza, ez dira gai dagokien argibidea

emoteko. Egun aretan, autorpena artu neutsenean, une batez begitandu yatan Txomin zeozer esateko gerturik egoala, baiña orduantxe emazteak keiñu bereizi bat egin utsan, isildu zeiten-edo adierazoz, eta beragandik itxaroten nebana ezin izan neban jaritsi.

– Esan, Satur, ez al-dagikezu jakin non bizi diran orain zerbitzariok...? Ikertuko neukez, eta edozelan be, baietz egingo neuke zeozer esango leuskidela.

Nik au esan bitartean, Satur'ek zeozer idatzi eban ingurraztian, eta onen ostean,

– Ez da orren erraza izango –esan eustan murriz–, baiña saiatuko naz. Ain zuzen be, Txomin osatu zanean alde egin eban, ezetariko aztar-narik laga barik. Agindu izan neutsan, joan aurretik bizileku barriaren argibideak emon egistazan, baiña bildurraren bildurrez, urrean, ez zan azartu orretara. Dana-dala berba damotsut, euren bizilekuaren barriak artzekotan, astirik galtzeke jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitudala.

– Eskerrik asko, Satur.

– Aztu egin yat zeuri itauntzea, atzo artutako zauri izugarria dala-ta, zelan aurkitzen zorean.

– Askozaz obeto, burukomiña osoki ostendu izan ez arren. Atzo zoratzeko zorian nintzala uste izan neban, Errotazar'en nire senetara biurtu nintzanean batez be, eta andik Ibarreta'raiñoko ibillaldian. Ezin dagiket ulertu, Satur, barruko gaiztakeria asetzeko soillik, itsu bat orren basaki erabilli izan daitela. Piztiak dira Niki ta bere aita, eta barriro be eskatzen dautsut, zelan edo alan arrapatu dagizuezala. Osaba Martin eta izeko Edurne iñoiz be ikusiko ez dodazala burura yatordanean, amorrubizia nitzaz jabetzen da. Arrapatu egizuez, gaizkille orreik gizarterako galtzori andia diralako, eta ostera be badiñotsut, bear dan dirua emoteko gerturik nagoala.

– Ez da diruaren arazoa, Pruden. Niketz berba emoten dautsut, ez dautsadala ukorik egingo dagokidan billaketeari. Patuak zantzuren bat emongo ba'leusku... Izan be, oraiñarte ezer gitxi dakigu, ara... eraille baten ule-galpar bat badaukagu, eta onen semea beste eraillea dogula, Niki izenekoa izan be...

– Onezaz gaiñera, Satur –eten egin neutsan–, Txomiñ'ek dakiana,

egunen bat autortzeko gerturik ba'lego, ez litzake uskeria izango, garrantzi andiko autorpena baiño.

– Bai, ori bada zeozer, eta ziñez diñotsut aren bizilekua ezagutzeko lerrenak egingo dodazala, baiña ez dakit Txomiñ'eri burutara emongo dautsagunik, bearrezko autorpena egiteko. Emazteak batez be, izuak zoratuta dirudi, eta ez dakit...

– Ori laga neureztat –eten egin neutsan–, eta bere garaian zeozer lortuko dodala, baietz egingo neuke. Onezaz gaiñera, ez yat iñoiz aztu egingo aita-seme iltzailleen abotsak. Orretarako itsuak apartekoak gara.

– Ez dautsut ukatuko bereiztasun ori, baiña kontuan artu egizu, uribururu onetan berreun millatik gorako lagun bizi dirala, eta zeuk mintzoaren doiñu orreik entzumenean ondo irarrita izan arren be, zelako aukerak dozuz egunen baten barriro be entzuteko...? Lastotegian orratz bat aurkitzea lez izango litzake.

Izan be, nire buruari autortu bear izan neutsan, Satur zuzen egoala, eta autua zala-ta berandu samar izanik, jagi nintzan, eta ertzaiñak lagun-duta urtenbidera abiatu nintzan. Atera eldutakoan,

– Aizu, Pruden –itaundu eustan– zer diñostazu zure begien gatxari buruz...?

– Astero-astero begilariagana noa oiko azterketea jasateko, eta dirudiane, txerto edo mendua egiteko egoera onean nago. Ez dot besterik egin bear itxaron baiño baten batek begi-oskolak emon dagiazan, eta orduan begilariak bearrezko esku-sartze egingo daust. Mendua arrakastaz egiteko, ordu gitxi batzuk igaro bear dira emoillean eriotzetik, eta beraz, gerturik nago eguneko ordu guztietan osagillearen bapateko deia artzeko.

– Eta gero...?

– Mendua eginda gero, aste batzuk geldi ta nasai iraun bear izango dodaz, eta aldiaren joanean, begimena birrirabaziko dot.

– Olan gertatuko al da...! Bitartean ez urratu burua errotan jazo zana gogoan erabilliz. Sarri askotan gauzak berez atontzen dira bapatean. Bitartean, kendu burutik amorrua, eta ekarri oroimenera jazokizun pozgariak.

– Badaukat orain gogoan, poztuten nauan oldozkun atsegiña.

– Zein...?

– Iltzaille madarikatuok elburu eben arribizia, jaritsi ez izatea. Zen-

bat eta gogorago ainbat eta pozago oartzen naz. Uste dot orixe dala burukomiña arintzen daustana.

Barre egin eban Satur'ek, eta alkarri bostekoa emonda urten-agiñean nintzala, auxe esan eustan:

– Zaindu zure burua, Pruden, errotako iltzailleek ez dautsoe orren erraz arribiziari uko egingo-ta. Kontuz ibilli.

– Zer egin dagiket nik gaixo onek...? Ozta-ozta espaloietatik itsu-makillaz ibilli aztamuka, nire ardurarik andiena izanik kaleko oztopoak garaiz oartzea.

Une aretan Satur'ek taxi bat geldi-erazo eban, eta andik laster etxean nintzan. Bazkalordua zan, eta amarekin mai-ondoan jesarrita, jateari emon geutsan, nire zauriari buruz giarduala. Alako baten,

– Entzun, Pruden, laztana –esan eustan–, ez deritxat ondo kaleetan zear zu bakarrik ibilteari. Lagun bat bear dozu, eta gaur bertan iragarki bat ipiñiko dot egunkarietan, eta laster agertuko yaku bear dozun itsu-mutilla.

– Ez dot olakorik bear, ama. Ikastola Nagusira egunoroko joan-etorria egiteko, nire ikaskide Erramun'ek laguntzen daust.

– Baiña begilariagana, eta erriko egurastegira zoazenetan, ez yat bape atsegin bakarrik ibilli zaitez. Neronek lagunduko neuskizu, baiña zeuk ez dozu gura.

Izan be, ez neban nai ama nire itsu-mutilla biurtu zeiten. Arratsalde guztietan beste andrakin alkartu oi zan karta-jokoan jarduteko, eta orreri uko egitsanik ez neban gura ezelan be.

– Begira, ama –esan neutsan–, begilariaganako bidea ondo ezagutzen dot, eta egurastegia etxetik ur dago. Gaiñera, noizean bein soillik urteten naz, ikasketak etxean atondu bear dodaz-eta.

– Bai, baiña atzo neronek lagundu ba'neutsu, ez zintzakez zurubian beera jausi, eta zauritzar ori artu.

– Egia da, ama, eta zin dagitsut urrengo baten errotara joateko, baten batek lagunduko daustala.

Andik laster, eguneko ikaskaia magnetozengailuz artuta Erramun etorri zan, eta ikasteari emon neutsan.

Len aipatu dodan lez, astean bein begilariagana joan bear izaten neban. Ikertaldi oneitan, dalako berezlariak nire begi biai azterketa sakona egin oi eutsen, makurraren egoerea zelan garatzen zan egiztatzearren, eta beti oar bardin auxe esaten eustan:

– Zorionez, gatxa begi-oskoletan gelditu da, eta bearreko mendua eskura izan dagidanean, beste barik esku-sartzea egingo dautsut.

Onen ostean, begiak garbitu oi eustazan, eta gantzuki bataz igurtzita, etxera biurtzen nintzan. Bitartea luzea ez izanik, eta oroimenean ondo irarrita neban, itsu-makilla ustiatuz, astiro ta arduratsu etxerakoa egiten neban. Oinkarien gurutzetan gelditzen nintzan, eta nire makil zuria ta betaurreko baltzak ikustean, alboko baten bat beti neban gerturik, kaleko beste ertzero niri laguntza emoteko.

Erramun neban ikaskide txeratsua goiz guztietan etxera yatordan, eta erri-berebilla artu oi genduan Ikastola Nagusiko Izparkaritzasaille-riño. Lege-baimendua billakatu izan nintzan lengo urtean, eta idazteko zaletasun andia neban ezker, urte aretan izparkaritzaren ikastarora joatea erabagi neban, lengo ikasketak erraztasun andiak emostezala, urtebete bateko irakaskintzaz izparkari-baimena jaristeko. Augaitik ba, magnetotsgaillu bat erabilten neban, itzez emoten euskuezan ikaskaiak artzeko, eta gero etxean bear ainbat bidar abiadan jarten neban, irakatsitakoa go-goan ondo tinkatu arte. Idatzizko gaiak, Erramun'ek berak irakurten eustazan bear ainbat aldiz. Era onetan ikastarora polito joiakidan, eta urrengo udazkenean baimen-agiria lortuko neban.

Bajoiagian egunak aurrera, eta buru-aurpegian artutako katekada basatia osatu izan yatan, buruan orban ariña izanik, ezbear aren ondore bakarra. Alan-bearrez, ule narokoa izanik, ezin zeitekidan igarri jasandako zartada izugarria. Baiña, eta au bai garrantzitsua, begilariaren eritxiz, ez eustan iñongo kalterik ekarri nire begien gatxari.

Bein baten, makilla aztamuka erabilliz begilariagana niñoa, kaleko agintza-argi baten ondoan gelditurik, lurra makillaz joten asi nintzan, norbaitek bestaldera igaro nindegian. Olan niarduala, alboan mintzo gozo eresintsua onetaraxe aditu neban:

– Aizu, gazte, bestaldera lagunduko dautsut.

Eta itzok esanik, nire besoari eutsita, beste ertzera lagundu eustan. Ona elduta, eskerrikasko esanik aurrera niñoa, dalako mintzoak nire ondoan jarraitu eban, eta,

– Begira, mutil –esan eustan–, astirik dodan ezker, lagunduko dautsut. Nora zoaz...?

– Iratxe kaleko begilariagana. Emendik ur samar dago.

– Ezagutzen dot kale ori, eta lagun joango niaitzu.

– Eskerrik asko, andereiño.

– Ez da zergaitik.

Aurrera isillez giñoazala, alako baten,

– Aizu, andereiño –esan neutsan–, nirekiko ain ona izan zarean ezker, zelan dozu izena...?

– Esmerale dot izena, baiña adiskideek Esmere esaten dauste.

– Izenaren ederra...! Baietz egingo neuke, esmeral margozko begiak dozuzala.

– Egunen baten ikusiko al dozuz...!

– Ez dakit, Esmere, ikusiko ete dautsudazan, baiña zerbait, eta ez gitxi, emongo neuke zu begiz ezagutzearren.

– Zer diño begilariak...?

– Baietz diño. Begi-oskol osasuntsuen begira dago, eta eretia etorri daitenean, mendu edo txertatuko daustaz. Bitartean, astero banoakio aztertu dagistazan, eta oiko osaketea egiteko.

– Aizu, zelan billakatu zara itsu...?

– Ara... Bein baten gauzak lainñotsu ikusten asi nintzan, eta begilariagana joanda, begi-oskol bat gaitzak jota nebala esan eustan. Aldiaren joanean beste begia be gandutu yatan, eta luzaro barik itsu osoa billakatu nintzakizun.

– Izugarria izango zan...!

– Asiera baten, eriotza lakoa azaldu yatan, baiña polliki-polliki artaratu nintzan, egunen baten ikusiko neukela begilariak ziurtatu eustanean

batez be. Itxaron bear dogu, baten batek begi-oskolak emon dagiazan, eta orduan, astirik galtzeke dagokidan esku-sartzea jasango dot. Anartean itxaron bear...

– Izango al da, aalik laisterren...! Esan, zein izena dozu...?

– Prudentzi, Mendizabal'dar Prudentzi, baiña adiskideek Pruden esaten dauste.

– Izen polita benetan, dotoretasun andikoa, izan be.

Barre egin neban, eta berak bardin, barre-soiñu eresintsuaz erantzun eustan.

Autu onetan giarduala, begilariagera eldu gintzazan, eta,

– Agur, Esmere –esan neutsan– eskertzen dautsut nire alde egiñikoa.

– Ez niri agur esan oraindiño –mintzo gozoaz erantzun eustan–.

Gaur zenbat-gura astirik nire aukeran dot, eta ementxe zure begira izango nozu osaketea amaitu arte, eta gero etxeraiño lagunduko dautsut.

Zirrara esan-eziña nitzaz jabetu zan itzok entzutean, eta besterik esateko gai ez izanik, kale-sestran egoan begilariaren atea jo neban. Oiko azterketea egin ostean urten nintzanean, Esmere nire begira egoan, eta len lez besotik nindaroala, etxerakoa egin genduan. Nire itaunai erantzunez, bera onetaraxe asazkatu zan:

– Ara, Pruden, gure parroko ongille-talde batekoa naz, geure zeregin nagusia izanik, edozelako bearrizanean dagozanai gure laguntza emotea. Augaitik ba, geisoak ikertu, txiroai diruz eta gaiakaz sorosi, agure-atsoai ordu batzuk etxean lagundu etabar, gure eginkizun beiñenak dira. Eta jakiña, kalean estu ta larri dabillan edozeiñeri gure laguntza emon be. Augaitik ba, len agintza-argiaren ondoan ikusi zaitudanean, opa izan dautsut nire laguntza, eta ori ez yat gaur lenengoz gertau, askotan baiño.

– Eginkizunaren ederra...! –esan neutsan eskerronez–. Eta ori dana duan egiten dozue...?

– Bai, gure ongille taldekuok ekintza orreikaitik ez dogu dirurik artzen.

– Ori benetako giristiñotasuna da, eta izan be, nire buruzalekeria agiriago ipinten daust.

– Naikoa ta lar dozu itsu izateaz. Olako ezbearra jasapenez eroaten dauana, santutasun-bidetik doala esan lei.

Arrituta nengoan neskatiilla bategan alako zuurtasun eta ontasuna aurkitzean, eta nire buruari esan neutsan, soñez barrukoz baizen ederra ba'zan, neskatiilla zoragarria izango litzakela.

Eta autu onetan giarduala, nire etxeko atadira eldu gintzazan.

Alkarri agur esateko zorian,

– Aizu, Pruden –itaundu eustan– zein sarritan zoaz begilariagana...?

– Astean bein, eta Barikuetako ordu onetan izan be.

– Orduan, datorren Barikuan eguberdiko amabietan emen izango nozu begira. Ez deritxat ondo ordu orretako joan-etorri andian, bakarrik ibilli zaitez, galtzori andikoa da-ta.

Asiera baten, nire alde olako nekea artu ez egiala esan neutsan, bakarrik joan neintekealako, baiña berak ezetz eta ezetz, betekizun ori berarentzat atsegiña litzakiola, eta beraz, urrengo Barikuan ordu aretan nire begira egongo zala. Poz bakanaz jabetuta etxera sartu nintzan, nire buruari itauntzen neutsala, zelakoa izango litzaken bere burua on-egiteari eskiñi izan eutsan neskatiilla ezagutu barria.

Bazkal-orduan, amari esan neutsan:

– Ez al-dakizu ama, itsu-laguna badodala...?

– Zelan daiteke ori, egunkarietan iragarkirik ez dogu ipiñi-ta...?

– Eta gaiñera, itsu-neskatiilla atsegiña, mundu onetan atsegiñik ba'da.

Ama jakin-gureak erreta egoan, eta,

– Esan, esan –itaundu eustan– zelan aurkitu dozu olako bitxia...?

Jazotakoa edestu neutsan, eta amaitzean,

– Zuretzat, Pruden –esan eustan–, gauza ezinbestekoa da laguntzaillea izatea kalera zoazenetan, eta zu biurtu arte estu ta larri nabiltzu. Badirudi gaurko onetan Jaungoikoak jara emon daustala. Zelakoa da, seme...?

– Bere itxureari buruz, ezin dagiketsut barririk emon, eta oldez zelakoa dan goizegia, ezagutu-barria dot-eta, baiña zeozer egingo neuke neskatiilla polit eta ona dala. Berari buruz ezer gitxi dakit, baiña bere mintzoa zidarrezko koskabilloen antzekoa da, eta barre egiten dauanean, badirudi argiz beteriko eresi maitagarria inguratzen yatzula. Egunen baten jakingo al dot zelakoa dan...!

– Bai, seme, zerorrek jakingo dozu egunen baten. Ez galdu itxarope-

na. Uri onetako begilaririk onenak jagoten zaitu, eta bere aburuz, ikusmena birrirabaziko dozu. Aldiaren arazoa da, eta beraz, adoretu zaitez, seme...!

– Urtebetea igaro da, eta oraindiño itsu jarraitzen dot. Izan be, begien itsutasunak arimeari illuntasuna be dakarkio. Zein luze, ama, itsu izan bear au...!

Gero, ama mindu izan nebala oartzean,

– Baiña zuzen zagoz, ama –alai itxurazko mintzoz esan neutsan–, egunen baten ezustean dei egingo daust begilariak, bearrezko mendua gerturik dagoala esanez, eta orduan dana atonduko da.

Arratsaldean Erramun'ek egun aretan magnetotsgailluaz artutako ikaskaiak entzuten nebazala, berba arein artetik barre gozoen eresiak aditzen nebazala begitandu yatan. Ain zuzen be, Esmere'k zarrastada andia eragin izan eustan, eta zaila gertau yatan, egun aretako ikaskaiari oi neban adikuneaz jarraitzea.

Arrezkeroko egunetan oiko jardunai emon arren be, niretzat bizitzak sen berezia artzen ebala iruditu yatan, ariman argiño bat piztu izan bai'litzakidan, eta azaldu ezin nengikean sentipen esaneziñak menperatzen ninduan. Noiz elduko yatan Barikuaren begira astebete osoa emon neban, Esmere gogotik kendu eziñik, eta noizbait, ames egiñiko eguna etorri zan. Amabi-amabietan, betaurreko baltzak jarri, eta itsu-makilla neroiala, etxeko atadira jatsi, eta une batez gelditu nintzan. Alako baten, irrikatzen neban mintzoa aditu zan auxe iñostala:

– Egunon, Pruden, zer modu...?

Eta biotzaren taupadak arintzen yatazala,

– Ondo, eskerrikasko –erantzun neutsan–. Etxeko zurubitik jaistean, nire buruari itauntzen neutsan, etorriko zintzakidazan-edo...

– Zergaitik ez, Pruden...? –gozoki esan eustan– Izan be, akar egin bear dautsut ni aintzakotzat artu ez izatearren.

Eta jarraian nire besoari eutsirik,

– Goazen, Pruden –esan eustan txeratsu–, gozatu dagigun gaurko eguraldi ederra.

– Benetan esateko, alboan zaitudan ezkerro, ederragoa deritxat.

Barre egin eban doiñu zoragarriaz, eta espaloian zear giñoazala, auxe esan neutsan:

- Zeuri buruz, amari mintzatu nintzakion.
- Eta...?
- Ara... zelan zerean jakin ez arren be, zure abotsa barre egiten dauanean, zidarrezko koskabilloen antzekoa dala esan neutsan.
- Eta zer geiago...?
- Baietz egingo neukela, neskatilla on eta polita zareana.
- Ez dakit zer esan, baiña ori egunen baten zerorrek egiztatuko dozulakoan nago.
- Aurrera giñoazala, auxe eskatu eustan:
- Aizu, Pruden, oso gitxi dakit zeuri buruz, eta benetan atsegin izango litzakit dagokizuzan gora-beerak ezagutzea.
- Ara ba... -asi nintzan-.
- Eta jarraian egokidazan zertzelada batzuk emoten asi nintzakion, izparkaritzatik ikasketak buruzkoak batez be. Edu onetan giarduala, begilarienera eldu gintzazan. Oiko azterpen eta osakuntza jasan ostean, atadian Esmere'rekin batu nintzanean,
- Entzun, Esmere -esan neutsan-, orain badazaguzuz nire gorabeera batzuk, eta orren ordaintzat zeuri dagokizuzanak entzun gura izango neukez.
- Ain zuzen be -esan eustan nire besoari eutsirik kalean zear giñoazala-, edozein neskatillari dagokiozanak dira. Ara... sendi arrunteko alaba naz. Diru-etxe baten jardunda gero, aita zaar-saritu barria da, eta amak etxeko oiko zeregiñetan diardu. Lau seme-alaba gara, iru neba ta neu. Nebak ezkondata gero, gurasoekin etxean bakarrik geratu naz, eta oneik zainduz gaiñera, asti enparaua, lengo egunean aipatu neutsun parrorkiko ongille-taldean darabilt. Lekaimetxe baten ezi izan naz amazpi urteko izan arte, oiko ikasketan eta joste-lanetan jarduna. Oneixek dira lau itzetan nire gora-beerak. Izan be, nekez aurkituko zenduke neu baiño neskatilla arruntagorik.
- Lagun-urkoari eguneko zati bat damotsana ez da gizaki arrunta, jarraibide ederra baiño. Zeuk egiten dozunak munduko urre guztiak baiño geiago balio dau. Esan, Esmere, zein adifñekoa zara...?
- Emeretzi urtekoa. Eta zeu, Pruden...?
- Ogei ta seikoa.
- Ez dago txarto. Orren gazte izan, eta lege-gizona izanez gaiñera,

laster izparkari-agiria lortzeko bidean zaitugu. Zeintzuk asmo dozuz etorkirako...?

- Asiera baten, lege-ikasketak amaitzean latari-gela (bufete) bat jarzea nire asmoa zan, baiña aldia igaro-ala, nire benetako deia idaztea dala oartu naz, eta orretarako izparkaritzatik onuragarria izango yatalakoan, bide orretatik joan naz, eta datorren udazkenean, Jaungoikoak lagun, dagokidan agiria jaritsiko dot.

- Eta zelako liburuak idatziko dozuz...?

- Ez dakit, baiña orain Esmerale izeneko neskatilla zoragarriaren gora-beerak idaztea nai izango neuke...

Barre egin eban berak zidarrezko koskabilloen doiñuaz, eta,

- Zer esango dozu neskatilla orreri buruz...? -itaundu eustan-.

- Oraindiño ez dakit ziur, baiña sakon-sakon ezagutzeko aukerea izango ba'neu, elebarri ori idatziko neuke.

- Ziur naz, dalako elebarria bikaiña izango dala. Eta zein izenpurua emongo dautsazu...?

- Zer deritxazu "Zidarrezko Koskabilloak" edo-ta "Esmeralezko Begiak"...?

- Zein baiño zein ederrago begitantzen yataz.

- Orduan ale bat emongo dautsut eskintza egokiaz.

- Ziur naz arrakasta andia lortuko dozula, eta dirua parrastaka irabazi be.

- Diruak ez nau erakarten, baiña bai asmamenaren laguntzaz nire eriti-egarria asetzeak. Barruko bizitza aberastu-ala, gizaki baten arimea gaillurrerantz bideratzen da.

Autu onetan etxera eldu gintzazan, eta agurtzean, Esmere'k eskua emon eustanean, bost atalezko larrosa bat laztantzen nebala iruditutantan. Eskuaren biguntasuna...!

Illabete bi igaro ziran, astero-astero gero ta ederretsiago neban Esmere zoragarriak begilarienera laguntzen eustala. Gure autua labur samarra izan oi zan, ibillaldia aren baten zalako, baiña orain neskatilleak uts egingo ba'leust, nire atsekabeak ez leuke mugarik ezagutuko. Zorionez, baiña, zintzo-zintzo etxeko atadian nire begira neban Bariku guztietan, eta poz andiak artuta, besoz-beso begilariagana giñoazan.

Gau baten, apalostean amak eta biok oiko autuari emoten geuntsala,

urrutizkiñaren txirriñak jo eban, eta zarrastada bakanak menperatuta ots-gaillua jasotean, begilariaren abotsa aditu neban.

– Aizu, Pruden –mintzo urduriaz esan eustan–, badaukadaz, badaukadaz zuretzako menduak...! Entzun ondo auxe: biar arratsaldeko lauretan dana gerturik egongo da esku-sartzea egiteko. Ez dozu ezer bereizirik egin bear, bazkari arin bat artzea baiño. Ez zaitez larritu, dana ondo billakatuko da-ta. Orduan, beste barik biarrarte.

– Bai, Jauna, eta eskerrikasko.

Ezin nengikean siñistu egia izan zeitekeanik, eta amagana joanda, jakitun ipiñi neban. Alkar besarkatu genduan, amari malkoak mara-mara eriozala, eta jarraian, biaramoneko gertukizunak eginda, oeratu nintzan. Luzaro iraun neban begiak batu eziñik, eta noizbait, loak artu ninduan. Urrengo goiza luze-luzea azaldu yatan, eta bazkalduta gero, ama ta biok begilariagana joan gintzazan.

Illuntzea zan, amesaren antzeko lokumatik nire senetara etorri nintzanean. Aidean zear ugerika niñoalako oarpena apurka-apurka ostentzen joiakidan, eta gandu-errezel baten artetik, amaren mintzo arduratsua etorri yatan auxe iñostala:

– Pruden, maite ori, dana amaitu da onezkero, eta begilariaren eritxiz, esku-sartzea arrakasta osoaz gertau da. Edozelan be, egun batzuk itxaron bear, menduak zelan artzen dauan ikusteko. Begien oskolak bide-ezbear baten ildako gazte batenak izan dira, eta il-barria izan dan ez-kero, eta zeu aragi onekoa izanik, ondoreak zure alde dagoz.

Zeozar esan gura izan neutsan amari, baiña berak nire eskuari eutsirik,

– Entzun, seme –arrenkatu eustan–, ez dagizula berbarik egin agindu daust osagilleak, biar arte beintzat.

Jarraian, berba maitetsuak esanez, nire aurpegiko izerdia txukaturik, edaten emon eustan. On-izateko oarpen batek inguratu ninduan, eta barriro be, amesezko mundu baten murgildu nintzan.

Urrengo eguneko goizaldean, nire zentzunen oarpen osoaz itxartu nintzan. Aurregunear lez, oe-alboan amak zaintzen ninduan, eta eskuak laztandu eustazan, auxe iñostala:

– Bart, begilaria etorri yatzun ostera be, eta ondo zengozala ikusirik, gosaldue ostean etorriko litzakela agindu eustan.

Amaren berba maitetsuek baretu ninduen. Andik laster begilaria azaldu zan, eta nire berotasuna ta biotz-taupadak egiztaturik, auxe esan eustan:

– Entzun, Pruden, nire egitekoa, dirudianez, ondo joan da, baiña orain arte lez begiak estalduta jarraituko dozu, burua aalik eta geldien dala iraunez. Egun batzuen buruan, begiak estalgetu ta aztertuko dautsu-

daz, eta mendua artu edo artzeko bidean dala egiztatzen ba'dot, loturak kenduko dautsudaz. Baiña auxe jakin dagizun gura dot: luzaro samar etzanda jarraituko dozu, eta au aspergarria dan ezker, irratigailu baten bidez astia emongo dozu. Berba egin bear izatekotan, abots isiltsuaz egingo dozu, baita zure mintzakideek be. Olan jokutzen ba'dozu, argia ta gauzen mulkoa gero ta obeto ikusten asiko zara ikusmen osoa irabazi arte. Biotz on, Pruden...!

Eta olan jazo zan. Egun baten begien loturak kendu eustazan, eta andik laster argia ikusten asi, pozaren-pozez zoratzeko zorian oartzen nintzala. Orduan, ez dakit zerk eraginda, malkoak mara-mara isuri yatazan. Aldi berean, gauzen mulkoa ikusteko gai izan nintzan. Urtebete bi baziran itsutu nintzanetik, eta poz-malko areik, beste edozer baiño obeto nire zorionaren aldarririk ziran. Eta izan be, amaren zoriona ez zan nirea baiño txikiagoa.

Itxaropen barri batek dana edertzen eustan, eta len niretzat ezgauzak ziranak, orain beste ikuspegitik agertzen yatazan. Ama goizoro etorkidan, eta ondo niñoala ikusirik, etzeko zeregiñetan jardutera biurtzen zan. Arratsaldeetan, apalordurarte nirekin egoten zan. Erramun be, Ikastola Nagusitik artez-arte etorri oi yatan eguberdietan, eta eguneko ikasketak magnetotsgailluz artuta ekarkidazan. Onek, eta irriatiaren bidez entzuten nebazan eresi ederrek, astia emoteko laguntzen eusten.

Baiña gauza bat uts emoten neban oroz gaiñetik: Esmere'ren laguntza, alegia. Baziran iru astebete-edo, geiso-etxe aretan nirauala, eta neskatilla zoragarriaren zantzurik ez. Nitzaz aztu ete zan...? Oarpen onek atsekabez bete ninduan, eta azaldu ezin nengikean irrikaren antzeko zerbaitek menperatuta nengoan, Esmere'ren mintzo maitagarria uts emotean.

Bein baten, eguberdian oldozkun goibel onetan niarduala, gelako atea edegi zan, eta irrikatzen neban zidarrezko koskabilloen mintzoa aditu neban auxe iñostala:

– Pruden, sartu naiteke...?

Bera zan, ain biziro luzetsitako neskatilla zoragarria, eta biotzaren taupadak arintzen yatazala,

– Esmere, Esmere –oiu egin neban–, zein luzaro zure begira...! Jakingo ba'zendu zelan uts emon dautsuduan...!

– Neu be, berantetsia nozu, Pruden. Azken Bariku aretan, oi neban lez, eguberdi inguruan zure etzeko atadian alperrik itxaron ondoren, geisorik izango zintzazalakoan alde egin neban. Urrengo Barikuan bardin jazo yatan ezker, zure begilariagana joatea otu yatan, eta an esan eusten bazala astebete bat operatu zinduezala, eta geisotegi onen argibideak emonda, ona etorri nintzan. Geisozain batek esan eustan ez nebala ikerterik, osagillearen aginduz galazota egoalako, bake osoan iraun bear zenduan-eta. Arrezker, egunero etorri naz zure egoerari buruz jakitearren, eta gaur noizbait, zu ikertzeko baimena lortu dot. Au nire poza...! Zelan zagoz, Pruden...?

Au esatean, bere esku bigunetan neureak artu, eta une batez laztandu eustazan. Gelako erdi-illunean, bere irudiaren ebakuna oartu aal izan neban lenengoz, eta ezin azaldu nengikean sentipen bat nitzaz jabetu zan. Orduko ikusmen motelak irudi txairo baten ebakuna ekarstan, eta nire kautan esan neban, abotsa baizen ederreko neskatilla izan bearko leulela. Orduan, bere itaunari erantzun emonez,

– Gero ta obeto oartzen naz, Esmere –esan neutsan–. Nire aurrerape-nak egiztatzean, begilaria pozik dago, eta badiñost ikusmen osoa irabaziko dodala. Bai, Esmere, egunen baten zelakoa zarean jakin aal izango dot.

Barre egin eban berak, eta,

– Zelan ikusten nozu orain...? –itaundu eustan–.

– Laiñoaren artean dagerkidan aingeru bat. Ezin dagiketsudaz aurpegi ta soiñaren zeatzak argi ikusi, baiña baietz neskatilla polita zareala egingo neuke, zure mintzoa baizen zoragarria, izan be.

Barre egin eban oster a be, eta orduan,

– Bai, Esmere –esan neutsan bere eskuari eutsiz–, ez al-dakizu gauza bat...? Zure abotsa zidarrezko koskabilloen antzekoa da, eta barre egi-ten dozunean, ingurua eresiakaz beteten dala begitantzen yat.

– Izan be, Pruden, esatekoak diñozuz. Izparkaritza baiño, olerkari-tza-ikasketak artzen dozuzala esango neuke.

Gure autuak edu onetan jarraitu eban luzaro samar, eta noizbait, jagi zan, eta,

– Naikoa berandu da, Pruden –esan eustan samur-samur–, eta tamalez, joateko ordua dot, nire gurasoek onezkero berantetsiak aurkituko dira-ta.

- Agur, Esmere, noiz arte...?
- Datorren Barikurarte.
- Anartean luzetsia izango nozu. Ezin zaitkekez etorri sarriago...?
- Eziña da, Pruden. Nire gurasoen zaintzak eta parroko betebe-
rrak ez dauste astirik lagaten.
- Eta arratsaldeetan...?
- Baleiteke noz edo noz, baiña ziur ez dakit.
- Aalegindu zaitez nire ordu luzeak alaitzen.
- Aal dodanetan etorriko naz.

Jagi nintzan besaulkitik, eta bere eskuari oratuta, ateraiño lagundu neutsan. Bakarrik geratu nintzanean, nire buruari esan neutsan zein zora-
garria izango litzakit nirekin beti izatea.

Bazkalostean, ama egunoro yatordan apalordurarte, bidebatez Erra-
mun'ek artutako ikasketak ekarkidazala. Arratsalde baten amarekin nen-
goala, atea edegi zan, eta mintzo batek,

– Arratsaldeon...! –esan eban.

Esmere zan, eta orduan amari,

– Ama, auxe dozu Esmere –iragarri neutsan–.

Amak eta neskatilleak alkar mosukatu eben, eta biok jesarri zira-
nean,

– Aizu, Esmere –esan eutsan amak–, nire semeak beti zaitu gogoan,
eta zeutzaz sarri askotan berba egiten daust. Augaitik, beraz, niretzat ez
zara guztiz ezezaguna.

Ama jakingurea zan, eta guztitariko itaunak egin eutsazan bera ta bere
sendiari buruz, eta Esmere'k oiko xalotasunaz erantzun eutsan. Uste baiño
len, ordubete bat igaro zan, eta noizbait, neskatillea jagi zan joateko.

– Agur Andrea –irraberreka esan eutsan–, etxera joan egin bear dot,
baiña luzaro baiño len biurtuko naz.

– Bai, Esmere –esan eutsan amak–, etorri zaitez aal dozunetan, poz-
pozik abetalduko zaitugu-ta. Eskerrik asko nire semearen alde egin do-
zunagaitik.

– Izan be, ez dot gauza andirik egin, Andrea, baiña egin dodanak
atsegiñez bete nau.

Eskua emon eustan, eta ateraiño giñoazala,

– Eskerrikasko, Esmere –esan neutsan eskerronez–, ez dakizu norai-
ño atsegin yatan zure ikertaldia.

– Tamal dot, Pruden, sarriago etorri aal ez izatea. Agur eta urrengo-
rarte.

– Agur, Esmere, zure begira izango nozu.

Amagana biurtu nintzanean,

– Ta, ama –itaundu neutsan–, zer deritxazu Esmere'ri...?

– Zoragarria benetan, seme. Oso xaloa ta apala begintandu yat.

– Esan, ama, zelangoa da...?

– Zelangoa dan...? Ori egunen baten zerorrek egiztatuko dozu.

– Ezin dagikedazu zertzeladaren bat emon...?

– Soin lerdenekoa izanez gaiñera, aren aurpegi ta begiak... Baiña ez,
ez dautsut besterik esango, egunen bat zerorrek ikusiko dozu-ta.

Eta gero, gaia aldatuz.

– Gaur, gela onetara sartzeko zorian nintzala, begilari ikusi dot, eta
berak esan daust, luzaro barik betaurreko illun orreik kenduko dautsuza-
la, osabidetik aurrerapen andiak egin dozuz-eta.

Gau aretan begilariak oiko azken azterketea nire begiai egin ostean,
auxe esan eustan:

– Urrats andiak egin dozuz osabidean, Pruden, eta gaur ziurtatu
dagiketsut, begimen osoa irabaziko dozula.

– Esan, noiz kenduko daustazuz betaurreko aspergarriok...?

– Gitxi gora-beera, iru egunen buruan.

Iragarki au entzutean, ezin izan neban biotzaren taupada bizia men-
peratu, eta zorionak nire arimaren ateetan oles egiten ebala oartu neban.

Eta izan be, begilariak iragarrita lez jazo zan. Iru egunok igarota,
goizean etorri zanean, ardurarik andienaz begietako estalkia kendu eus-
tan, eta,

– Esan, Pruden, zeozer ikusten dozu...?

Biotz-ikara andiak artuta, erdi-illunean egoan gelatik, batetik bestera
begiak erabilli nebazan. Bazan urtebete bi baiño geiago begimena galdu
nebanetik, eta zorion bakanpean, gelako gauzak banan-banan aztertu ne-
bazan, eta gero begilariaren aurpegian begiak jarrita,

– Eskerrik asko, begilari Jauna –eskerronez gaiñezka esan neutsan–,
ikusmena biurtu daustazu, eta onekin bizi izateko guraria; ez nekian zer
zan ori galdu arte, eta gaur ikusmena irabaztean, neugan bizitzaldi barria
asten dala iruditzen yat.

– Esaidazu, Pruden, gela onetan ikusten dozuzan gauzak aalik eta zeatzen.

Nenkusanak banan-banan aalik zeatzen azaldu neutsazan. Amaitu nebanean.

– Ederto, mutil –esan eustan adoretu–, izan be, uste izaten neban baiño obeto aurkitzen zareala esan bearrean naz. Arrerantzean, egunean baiño egunean obeto ikusi aal izango dozu, eta gela onetako argia mailaka andituko dautsugu. Dana-dala, eta bide onetik joan arren, gogoan izan auxe: ez egin ezetariko zirkin zakarrik, buruaz batez be. Batetik bestera zoazanean, igitu zaituz katu baten biguntasun eta nagitasunaz. Arau oneik kontuan artzen ba’dozuz, astebete baten buruan, etxera joango zara.

Itxaropen eta zorionez beterik itzi ninduan begilariak, eta andik laster oi eban lez ama etorri zanean, nire eskuai eutsirik, zorionezko malakoak isuri ebazan, bein eta barriro etorkirako asmoak aletuz. Aspaldi zan orren zoriontsuak ez gintzazala, eta biziera barria asiko gendukela gogoratzean, gure pozak ez eban mugarik ezagutzen.

Begilariak aginduta lez, gelako argia egunik-egun geitzen zan, eta laugarren egunean nire aurrerapenak ikusita, oiko argitasuna emoteko agindu eban.

– Olan jarraitzekotan –esan eustan–, bost egunen buruan etxera igorriko zaitut, emen jarraitzea alperrik da-ta. Astean birritan etorriko zaizat, begien egoerea egiztatu dagidan, baita oiko garbiketea egiteko.

Ain zuzen be, nire ustez beintzat, geisotu aurretik baizen ondo ikusten neban, eta au ziurtatzeko amari liburu bat eskatu neutsan, eta pozez gaiñezka egiztatu neban parra-parra irakurri nengikeala.

Irika bizi-bizia oartzen neban Esmere ikusteko, eta orain, zelakoa zan bera jakin aal izango neukelako oldozkunak, etenbarik jazarten ninduan. Izango ete, bere abotsa baizen ederra...? Soiñaren bikaintasunak ez dau zer-ikusirik mintzoaren gozotasunaz, eta au ondo nekian gauza zan. Sarri askotan oneri buruz amari itauntzen neutsan, baiña berak irribarre bakanaz iñostan, neronek laster egiztatuko neukela.

Noizbait, ikusmena irabazi ta sei bat egunetara, gelako atean koxkox bat aditu zan. Une aretan, ama ta biok autu nasai bateri emotsagun, eta baimena emonda, atea zabaldu, eta atezubian neskaitilla zoragarri ba-

ten irudia marraztu zan. Ezin zeitekean beste iñor izan, BERA baiño, eta besaulkitik jagita, aregana joanda eskuai eutsi neutsazan, auxe niñotsala:

– Esmere zaitut, urrean, ezta...?

– Bai, Pruden, ni naz.

Bere mintzo zoragarriaz itzok iñostazala, irrika bizian bere aurpegia aztertu neban. Edertasun bardinbako aurpegi aretan, esmeralezko begi orlegi yaukalek begiztatzten ninduen, eta ezpanek larrosa-antzeko irribarre egiten eusten, marfillezko ortz txiki zuri-zuriak agirian jarten yakozala. Bekoki garbiaren gaiñean adats illunak buru txanbelina inguratzen eban. Une luze samar alkarri begiratzuz iraun genduan, eta noizbait, besaulki bateraiño eroan neban jesarri zeiten.

– Zer deritxazu, seme...? –itaundu eustan amak–.

– Egundo ez ikusiriko neskaitillarik ederrena dala.

Esmere’ren matraillak lotsaz gorritu ziran, eta,

– Izan be –irribarrez esan eustan–, aspaldi luze batez itsu izan danak, edozein neskaitilla edertasun bardinbakotzat artu dagian ez da arritzekoa.

– Ez, Esmere -tartetu zan amak–, zeu lako neskaitillak oso gitxitan ikusten dira.

Neskaitilleak autugaia saiesteko, urrean,

– Pruden –esan eustan–, noizbait, ain luzaro ames egiñiko eretia eldu da. Zer oartzen dozu zure baitan...?

– Ezin dagiketsut azaldu, Esmere, baiña zeozer esatekotan, bizitzara barriro jaio nazala esango neuskizu. Orain neure buruaren jabe oartzen naz.

– Orduan –mintzo jostaritsuz esan eustan–, ez dozu nire laguntzaren bearrik, eta beraz, nire ardurea beste bateri emongo dautsat.

– Esmere...! –oiu egin neban larri–. Ez olakorik esan, ezta txantxetan be... Olan ba’litz nire arimea itsutuko litzakit...

Ama tartetu zan orduan, eta,

– Begira, Esmere, nire semea zeure abotsa entzutera oitu da, eta berarentzat ori bearrezkoa biurtu yako. Aspaldi luze batez bereak eta bost jasan ditu; on litzake, beraz, eregatu dagigun aspalditxu batez bederik.

Esmere’k oldozkor iraun eban une batez, eta gero,

– Aspaldi onetan arazopetuta nagotzue parroko ongillleen taldea

dala-ta. Izan be, zoribako asko dago or bazterretan, baiña nire ustez, as-
tean bein ordu bi emon nengikeoz zure semeari, eta Igandeetan ain zu-
zen be, jaiegunetan bearra arintzen yat-eta.

– Begilariak esan dauskuanez –tartetu zan ama barriro–, lenengo as-
paldi onetan, laguntzaille bat izatea ondo etorriko litzakio Pruden'eri,
oraindiño kaleetatik ibilteko bearreko ziurtasunik ez. Augaitik ba, esker-
tuko geunskizu benetan lagunduko ba'zeuntso, berez ibilteko gai izan
arte beintzat.

Eskerronez gaiñezka artu neban amagandiko esondapen (proposizi-
ño) au. Izan be, asieratik esan euskun begilariak, ez nebala bear iñoren
laguntza kaleetan zear ibilteko. Isillean, biotz-biotzez eskertu neutsan
amari nire alde esandako guzurra.

Onen ostean, neskatilleari burutara emoten saiatu gintzazan ama ta
biok, astean birritan lagundu egistan, eta noizbait, Eguben eta Igandee-
tan laguntzeko etorriko litzakidala erabagi zan, ama ta bion atsegiñera-
ko. Andik laster, etxera biurtu bear ebala-ta, Esmere'ri ateraiño lagundu
neutsan, eta bere eskuai eutsita,

– Eskerrik asko, Esmere –esan neutsan aren esmeralezko begietan
nire soak untzaturik–, ez dakizu zein eskertsu nozun zure laguntzagaitik.

Iribarrez begiztatu ninduan, eta atezubipean geratu nintzan, igarobi-
dean zear bere soiñaren ebakun yaukala ezabatu arte. Biurtzean, amak,

– Zer deritxazu neskatilleari, seme...?

– Ez dot egundo be, ain neskatilla ederrik ikusi, ama. Bere begietan
zerbait esan-eziña nabarmentzen yako.

– Bai, seme, batzutan bere gogoia emendik urrun bai'litzakion derist,
amesetan murgilduta-edo, beste nonbaiten egongo bai'litzan. Dana-dala,
neskatilla zoragarri ta ona dirudi, lagun-urkoaren on-izateari emonda.
Eta gaur ainbeste neska txatxala ta ganorabako dagoanean, bitxi ederra
agertu yakula esan geinke.

Ama etxera biurtu zanean, besaulkian jesarrita ezin nengikean irudi-
menetik kendu Esmere'ren edertasuna, eta zin egin neutsan nire buruari,
bitxi yaukal aretzaz jabetzeko aaleginduko nintzakela. Urrengo egunean
begilariak etxera igorri ninduan, astean birritan joango nintzakiola bal-
dintzaz.

Bizimodu barri bateri asiera emon neutsan, eta orain nire igikundeen

jabea izanik, egunoro Ikastola Nagusira niñoan, oiko ikasketak artzeko
eguberridarte, eta arratsaldean urrengo eguneko ikastaldia atontzeko,
baita uritik egurasteko be. Nire aukeran nebazan Eguben eta Igandeetan,
Esmere'rekin aurretiaz erabagitako lekuan alkartzen nintzan, kaleetan
zear egurasteko edo kafe-etxe bateko mai-aurrean astia emoteko.

Neskatilleak gero ta lilluratuago ninduan, eta luzaro barik maitemin-
du nintzan. Bein baten, egurastegiko aulki baten jesarrita gengoazala, eta
alkarrekin genbiltzala illabete bi igarorik, borborka eridan maitasunari
jarki eziñik, egoerea zirt edo zart erabagitearren, mintzo kolokaz auxe
esaten azartu nintzan:

– Esmere, badira illabete bi-edo alkarrekin urteten gareala, eta ez
dot gura ezelan be, lagun etorri zakidazan mezedetzat. Ikusmena irabazi
nebanetik, banaz nor nire kabuz ibilteko, eta ezin dot jasan nire zaintza
artu dagizun. Naikoa neke artu dozu nigaitik zure ontasunak eraginda.

Isildu nintzan une batez, eta orduan berak esmeralezko begiak niree-
tan untzaturik,

– Zer esan nai daustazu, Pruden...? Gure adiskidetasunari eten egin
dagiogula...? Ziñez esan bear dautsut, zurekin egurastutea ez yatala
iñongo nekerik. Ain zuzen be, lagun-urkoari laguntza emotea atsegiñen
iturria dot. Ez, ez zaitez arrenkuratu nigaitik.

Baiña nik gura nebana, ez zan ongille baten laguntza, neutsan maita-
sunari ordaintza baiño, eta orduan nire begiak lurean untzaturik,

– Badakit ori, Esmere –zarrastada andiak artuta esan neutsan–, onta-
sun utsa zara-ta, baiña zugandik gura dodana ez da ori.

Eta jarraian inkeza andia egiñez,

– Begira, Esmere, geisotegia laga nebanetik, gai izan naz neurez
ibilteko, baiña zeu ez galtzeagaitik, languntzaille bat bear izaten nebala-
koa egin dot. Ez dot, baiña, ezelan be gura, zure errukia. Besterik da zu-
gandik nai dodana, eta ori jaritsiko ez ba'neu...

– Zer da nigandik gura dozuna...?

– Begira, Esmere... zutzaz maitemindua nozu, eta egoera orretan da-
goana ez da adiskidetasunaz soillik etsiten, maitasunaz baiño. Augaitik ba,
egunen baten nire emaztea billakatu zaitezala nire gurari bizia da, eta au
eziña ba'litzakit, oba dot egoera oneri uko egitea, niretzat jasangaitza da-
ta. Ataka onetan nire barrukoak zirt edo zart egitera bultzaten nau.

Esmere'k begi orlegi ederrak urrutira zuzendu ebazan, eta gero mintzo erabetiaz,

– Maitasuna diñozu... –esan eban astiro–. Egi-egitan ez dakit maite zaitudan ala ez, Pruden...

Sentipen bakanaz jabetuta, eskuai eutsi neutsen, eta,

– Orrek adierazoten dau –itxaropenaz gaiñezka irautsi neutsan–, egunen baten ni maite izatera eldu zaitekezala. Maitasuna, Esmere, egunoro zaindu bear dan landarea da, eta orduan egunen joanean azi ta aziten doa, zugaitz tantai, errimea, biurtzeraiño. Laga, Esmere, ikuspegi orretatik alkarrekin ibilli gaitezala, eta ez adiskide bateri erruki utsaz egiten yakon mesedeagaitik.

Iribarretsu samur begiztatu ninduan auxe iñostala:

– Zuzen zagoz, Pruden, egitan esateko zeuk ez nozu bear laguntzailletzat, zure buruaren jabea baizara.

– Ondo diñozu, Esmere. Izan be, maitasuna alkar-ezagutzatik ei' dator. Eta au olan izanik, zergaitik ez egunoro alkar ikusi...?

Oldozkor geratu zan une batez, eta gero,

– Nik uste dot –esan eustan–, luzaro barik askeago billakatuko nazala, eta orduan saiatuko naz egunoro utsune bat izateko geu biontzat.

Maitasunez gaiñezka begiztatu neban, eta gero alkarrekin egurastu gintzazan oiko ordurarte. Gau aretan etxera biurtzean, zorionak nire biotzaren atean oles egiten ebalá begitandu yatan.

Esmere'k itarantzun eustanez jazo zan, eta andik laster nirekin egunoro urten zeitekeala iragarri eustan. Ordutik, aspaldi zoragarria asi zan, eta maitasunaren egoetan egunek alkarri arin erraikioen. Bein baten berak auxe esan eustan:

– Begira, Pruden, alkar ondo ezagutzeko, gure artean ezkutukirik ez izatea biderik onena da. Zeure amak bein aipatu eustan, jabetzen dozun errota baten gertaera izugarria jazo zala.

– Bai, Esmere, itzela izan zan.

– Esango daustazu jazo zana...?

– Ara... goiz baten maite nebazan osaba-izekok, eriotzaraiño sastakatuak agertu ziran, Errotazar izeneko bizi izaten ziran etxean.

– Zergaitik...?

– Erailleak ziran aita-semeak, osabak izekoari emoniko diamante

edo arribizi batez jabetzearren. Izugarria, benetan, leiarkia dirudian zaitxu bategaitik olakorik jazo zeiten. Eta gaiñera, iltzailleok ezin izan eben bitxiar jabetu.

– Non dago dalako bitxia...?

– Iñork ez daki. Gertakizun izugarri ori jazota gero, etxea errotik arakatu arren, arribizia ez da iñondik agertu.

– Zelan dakizu gaizkille areik ez ziralá jabetu dalako arribiziaz...?

Isillik iraun neban une batez, gogoan nerabillela, aspaldiko goiz aretan jazo yatana Esmere'ri esan ala ez, baiña noizbait, neskatillearen begien lillureari ezin nintzakion jarki, eta beragan nire barrua asazkatu naiean,

– Lengo udabarriko goiz baten –esaten asi nintzakion bere esku bigunak laztanduz–, barruko eragin bakanak Errotazar'era eroan ninduan, illabeteak ziralá osaba-izekoeu erailketea jazo izan zanetik. Ez nekian orduan etxe aretara nindaroan eragiña, baiña gero oartu nintzanez, benetako zioa diamantea ostu izan eben ala ez, jakitea zan. Dakizunez, aspaldi aretan itsua nintzan, eta erriko ezagun batek errotaraiño zalpurdiz ni eroanda gero, biurtu zan, arratsaldean nire billa etorriko zala aginduta.

Isildu nintzan une batez, nire oldozkuna atontzearren, eta gero,

– Atea edegi, eta aretoan zear niñoala, zurubiko mailla batek krask...! egin eban, eta izu bakanak artuta, laster oartu nintzan osaba-izekoeu erailleen eskuetan nengoala. Izugarria izan zan, Esmere... jakin nai eben non gorde eroian izekok bere arribizi ospetsua, eta eriotzaz zemaituta, guzur-korda bat asmatu bear izan neban, azkenean, izeko Edurne'k gotzaintzari emon eutsala beartsuen laguntzarako esanez. Gero, aita erailleak –gaizkilleak aite-semeak ziran-eta– guztitariko zertzeladakaz erailketa bikotxaren barriak emon eustazan...

– Aizu, Pruden –eten egin eustan Esmere'k–, zelan dakizu aita-semeak ziralá...?

– “Aita” eta “seme” alkarri esaten eutsoelako. Gau aretan osaba Martin eta izeko Edurne erailda gero, gure morroi zintzoa zan Txomiñ'eri eraso eutsoen, eta sastakada batzuk emonda, iltzat laga eben. Jarraian, osaba-izekoeu logealea arakatu eben gauza guztiak azpikoz-gora itzirik. Alperrik, baiña, bitxi ederretsia ez zan iñon agertu-ta. Bitartean, erailleen arakatze-irrika ustiatuz, Sabiñ'ek, Txomiñ'en emazteak, igesari

emon eutsan. Gora-beera oneik aita erailleak edestu eustazan, goiz aretan euren atzaparretan ninduela, eta nigandik jakin gura eben non egoan irrikaturiko arribizia, eriotzaz zemaizten ninduela autortu nengian.

– Zuretzat inperua izango zan...!

– Bai, Esmere, baiña zorionez badirudi burutara emon neutsala eraille nagusiari, bitxia non egoan jakin ba'neu, orduko nire amaren jabetasuna izango litzakela, eta etxe aretan ez zan, beraz, egongo.

– Esaidazu, Pruden, bazenekian arribizia non egoan...?

– Amaika arakatze egin ziran osaba-izekok erailda gero, baiña dalako arribizia ez zan iñon agertu...

– Eta zer jazo zan goiz aretan, aita-semeen atzaparretan ezindua zengozanean...?

– Aitari burutara emonda gero, non egoan bitxia benetan ez nekiala, andik alde egin eben. Onen aurretik, baiña, Niki eritxan seme zitalak, aitari ni erailtea esondatu (proposatu) eutsan, goiz aretan gertaturikoa, ertzaintzaren ezaguerara iritxi ez zeiten. Dalako Niki'k aitari esan eutsanez, "Ildako astoak ostikadarik ez".

– Gazte zital alena –begiakaz laztantzen ninduala eten egin eustan Esmere'k– izan be, zailla da ulertzea gazte bat orren doillor billakatu daiten. Zer jazo zan orduan...?

– Aitak ez eutsan jaramonik egin, ni erailtean ertzaintzaren billaketea etorri leitekela esanez, eta ez ebala alperriko arriskurik jasan gura. Etxetik urten aurretik, baiña, dalako Niki'k aitari esan eutsan, ikerraldi aren gomutagarri bat emongo leuskidala. Entzun neban orduan, keburura urreratzen zala, eta kate-zati bat artu, nigana biurtu, eta buruan zartada izugarria emon eustan. Bapatean zentzumena galdurik, neugan illuntasuna egin zan.

Isildu nintzan, egun aretako jazoera aztueziña barrero be oroimenera etorkidala. Orduan, Esmere'ren itzok aditu nebazan:

– Nire gaixo ori... zeuri olakorik egin bear be...! Esan, zer egin zenuan senetara biurtu zintzazanean...?

– Aal nebanez etxetik urten, eta burukomin izugarriak jota, bidetik aztamuka Ibarreta'ra bideratu nintzan. Arratsalde zan, eta alboka nenbillela, nire baitan gaizkille areikiko iñoiz ez beste amorrua oartu neban, nire buruari niñotsala, ez neukela etsiko gaizkille areiri merezitakoa emon arte.

– Egoera aretan zelan konpondu zintzazan errira biurtzeko...?

– Aldarka niñoa, lanean ziarduan Errotazar'eko maister batek ikusi ninduan, eta bertanbera dana itzita, besopetik artuta Ibarreta'n bizi zan Erroman'en etxeraño lagundu eustan, eta an lenengo zaintza izanik, trenez biurtu nintzan. Etxera barik, baiña, erri-geisotegian nire zauria aztertu, garbitu, eta ertzaindegian egokidan salakuntzea jarri neban.

– Eta...?

– Benekian laguntza andikoa ez litzakela izango, baiña nire apentza-egarriak orretara eragin ninduan. Salaketea egin ostean, ezaguna neban ertzainak gauza bitxi batez jakitun ipiñi ninduan. Ara... sastakaiaz zaurituriko Txomin zerbitzari onak, burruka aretan erailleari ule-galpar bat erauzi eutsala, eta bada-ezpadan ertzaindegian gordeta dagoala.

– Zertarako, baiña, ule-galpar bat gorde...?

– Azken billaketen arauz, gizaki bakotxaren uleak izakera berezia darakus, eta eretia etorrita, laguntza andikoa izan leiteke eraillearen nortasuna egiztatzeko. Ez dakit gure arazorako lagungarria izango dan ala ez, baiña dalako galparra epaikari baten aukeran egongo da. Baiña bada beste zer bat Errotazar'eko erailketa bikotxan.

– Zein, Pruden...?

– Ertzain ezagunak esan eustan, Txomiñ'en argibideen billa bein baten erri-geisotegira joana zala, eta amaikagarrenez eraillearen aurpegia ikusi ete eban itaundu eutsanean, morroia ezpaitsu geratu izan zala eta oe-buruan egoan Sabiñe'ren aurpegian zear, itzal bat edatzen zala begitandu yakon, bere senarrak ez ebala ezer ikusi, argi motela izanez gaiñera, betaurreduna zala esan eutsanean. Satur ertzainaren eritxiz, senar-emazteak zeozer badakie, baiña bildurrak jota-edo, zeatz ori emoteko ez dira azartzen. Auxe da, Esmere, arazoari buruz dakigun guztia, baiña ziñez diñotsut gaizkille bi orreik epaikariaren aurrera eroateari, ez dautsadala ukorik egingo. Piztiak dira... goiz aretan euren atzaparretan nengozanean, eta eraille nagusiak zertzelada ikaragarri areik nasai-nasai edesten eustazala, azaldu ezin dagiketsudan izu gorria nitzaz jabetu zan, eraille izanez gaiñera, zoratasun bildugarriak jota egoala oartu nintzanean. Bera lako zoratasun arek artutakoa, gai da izugarrikeri andienak egiten jarraitzeko, ezerezeriak bai'litzazan. Bai, gizon arek eta bere semeak erailten jarraituko dabe, irrika orrek artuta dagozalako, eta sarri askotan nire buruari ditauntsat, zergaitik ez ninduen erail goiz aretan Errotazar'en...

Berba oneik esan ostean gauza bat gogora etorri yatan, eta auxe alegia: gau aretan bialketa bat artu bear ebela. Zer izango zan dalako igorpena...? Oldozkun onetan murgilduta nengoala, Esmere'ren mintzo atsegiña aditu neban auxe iñostala:

– Zertan oldozten dozu, Pruden...? Kendu zeugandik uste illunok; apentzaren egarriak ez lekarkizu ezer onik, eta are gitxiago bizitzara biurtuko zure osaba-izekoak. Uxa zeugandik mendeku-asmook, eta giritiño zintzo bateri dagokionez barkatu edo aztu egizuz besteen iraiñak. Kendu gogotik jazokizun izugarriok, eta zure barruko dendua edo oreka irabaziko dozu.

Itzok esatean, aren esmeralezko begi yaukalek, dizdir orlegietako urgeldi baketsuaren antzean begizatzen ninduen, eta bere lillureari jarki eziñik, eskuak neureetan arturik,

– Zeu zarean ona, Esmere...! –esan neutsan biotzez–. Zeure begi ederrok ikustean, eta zidarrezko koskabiloen antzekoa dan zure mintzoa aditzean, aingeru baten aurrean nagoala begitantzen yat...!

– Orduan, apentza-asmook aztu egingo dozuz...?

– Ez dakit, Esmere, ori zailla izango da. Nire asmoak ez dira apentzaren ondoreak, zuzentasunaren aldekoak baiño. Ezin dagikedaz aske ikusi, ezerezkeri bategaitik nire etxeko maiteak erail ebezanak. Onezaz gaiñera, Niki'ren aita batez be, zoratasun bakanak artua da, eta olakuok bizien gaiztoen antzekoak dira gizartearekiko, eta nire gardiz, jarei izatekotan osaba-izekoak ez dira azken opariak izango.

Esmere zoragarriari berbok esatean, banekian eraille bien jazarpenari ez neuskiola ukorik egingo. Niretzat nasaigarriagoa izango zan, berak eskatutakoari baietz erantzutea, baiña ezin negikean gauza bat agindu eta beste bat egin.

– Zure ikuspegiak, Pruden, aintzakotzat artzekoak dira, eta niretzat, beraz, itzalgarriak. Eskatzen dautsudana, baiña, auxe da: arazo orreri buruz jakiñaren gaiñean ipiñi nagizun. Izan be, ez dakit zergaitik, baiña zure gauzak gero ta urrago unkitzen nabe.

Itzok entzutean, biotzaren pilpira arindu yatan, eta bere eskuai eutsirik,

– Nasaitu zaitetz, Esmere –zorionez gaiñezka esan neutsan–, ziñez diñotsut, Errotazar'eri dagokionetan jakitun ipiñiko zaitudala.

Irribarretsu begiztatu ninduan, eta gero mintzo gozoaz,

– Banekian ori, Pruden, gure artean ez da iñongo ezkutukirik sartu bear.

Neskatillea zan maitagarria...! Izan be, egunean baiño egunean maitago neban. Gau aretan etxera biurtzen nintzala, Esmere'ganako bidetik ondo niñoala iruditua yatan. Aldiari berea emon bear izango yakon, besterik ez.

Apaldu bitartean, neugan zeozer ez-oitua oarturik, amak,

– Aizu, Pruden –itaundu eustan–, zer dala-ta gaur orren adoretu ta pozik egoteko...?

– Badakizu, ama, Esmere maite-maite dodala.

– Bai, seme, ori gauza agiria da niretzat.

– Ara ba... gaur lenengoz begitandu yat, zeozer banazala berarentzat. Badirudi nire gauzek ardura emoten dautsoela.

– Neskatiñaren zoragarria...! Zure alde egiñikoa ez da aztuteto gauza. Badirudi lagun-urkoari on-egitean zoriontsua dala. Ez itzi urrundu dakizun, seme, edozein gizonari zoriona ekarri dagikeon bitxi yaukala da-ta...!

– Bai, ama, oraindiño ez dot ereti andirik izan aren barrua aztertzeko, baiña baietz egingo neuke, bere irudia baizen ederra izango dala.

– Askotan, begikadea urrutian untzatuta ikusten dot amesetan bai'litzan, eta orrek barru andikoa dala adierazoten dau, ots, gogoz aberatsa. Aren begiak bitxi orlegien antzekoak dira, eta ezin berarentzat Esmerale baiño izen egokiagorik,

– Lengo egunean esan eustan berak, bataiatzera eroiela, etxekoek eztabaidatzen ebela zelako izena emon. Orduan, aititak besoetan artuta, aren begiak ikustean auxe esan eban: “Begi orlegi argitsuak ditu seiñak; bere izena, beraz, Esmerale izango da”. Eta izen ori jarri eutsoen. Izan be, aitita zuzen egoan.

– Neskatiñaren zoragarri ori bizitzaren bidean gurutzatu yatzu, seme, eta orain ez egizu galdu.

– Ez, ama. Mundu onetan geien maite dodana, nire ikusmen irabazibarria da, baiña ori be emongo neuke, bera ez galtzearren...

Bizitzaren egutegitik bajoiazan jalgiten banan-banan egunak. Gau baten, aspaldiz ez entzuniko mintzo baten deia artu neban. Satur'ena zan, eta bera entzutean biotzaren taupadak biziagotu yatazan.

– Aizu, Pruden –esan eustan–, amaika billaketa egin ostean, noiz-bait, Txomiñ'en, Errotazar'eko zerbitzari-oiaren elbidea jakin dot. Gomutean izango dozu, urrean, bein baten orixe eskatu zeustala, eta orra or, alan-bear bateri esker, gaur bertan jakin dodala. Artu egizu idatziz: Landatxu kalea 35, irugarren mailla.

– Non dago kale ori...?

– Urigoien auzoan aurkitzen da. Ara joateko 5 zenbakiko erri-bere-billa artu bear izango dozu. Dakizunez, gogoan izan dot beti, geisotegira bera ikertzera joan nintzan bein baten, zeozer ezkututzen eustala, eta on litzakizu, beraz, Errotazar'eko ezkutukia argitzeko, ikertu dagizula. Gura ba'dozu neu lagun izango naiatzu.

Une batez, Satur'en esondapena (proposiziñoa) buruan erabili ondoren,

– Begira, Satur –esan neutsan–, eskertzen dautsut eskintza ori, baiña nire ustez oba litzakit bakarrik joatea, bestelan aren arrenkurak itxartu leitekez.

– Ondo diñozu, Pruden. Noiz joango zara...?

– Etzi, bazkalduta gero, biar zeozer lanpetuta izango naz-eta.

– Ederto. Egun bat gora-beera ez da gauza. Dana-dala, eskertuko neuskizu, ikerpenaren ostean ertzaindegira etorri zakidazala, arazoari zelako jarraipena emoten aztertzeke.

– Bai, Satur, joango naiatzu ikerraldiaren ostean, eta eskerrikasko zure argibideagaitik.

Eskegi neban entzungaillua, eta une luze batez amari esan ala ez

ausnartu neban oera joan aurretik. Arazo oneitan emakumeak oztopoak izan oi dira, bildurriago edo zuurragoak diralako, eta arrakasta lortzeko ardurarik andienaz erabilli bear izango neuke nire billaketea. Dana-dala itxaropentsu aurkitzen nintzan, ain luzaro illunpetan ibilli ondoren, noiz-bait, argi apur bat egin zeitekealako ezkutuki aretan. Onen ostean, eta nire jokabidea arduraz zeaztuta gero, lotara joan nintzan.

Biaramoneko arratsaldean Ikastola Nagusiko Izparkaritza-saillean, iru illabetero jasaten genduan azterketea izanda gero, artez-arteaz Esmere'rekin berbaturiko tokira joan nintzan. Eguraldia euritsua izanik, kafe-tegi baten babestu gintzazan, eta akeita-esne ta opiltxuari ekiten geutse-la, Txomiñ'ena edestu neutsan.

Aren begi ederrak neugan jarrita, mintzo erabetiz,

– Zeure egitekoa dala uste ba'dozu joan zaitez, Pruden –esan eustan–, baiña zaindu zure burua, ori beiñena da-ta. Ez dakit esan bear dautsudan ala ez... baiña azken aldiotan baten batek jarraitzen dauskualako oarpen bildurgarria ezin dagiket nigandik kendu.

Au entzutean, biotz-ikara batek astindu ninduan. Egirik izango ete...? Aita-seme iltzailleen itzal ikusteziñak sarri askotan amesetan ezustean agertzen yatazan, errukibako ta zemaikorrak. Baiña ezin zeitekean, ezin zeitekean egirik, oraindiño jarraitu egisten, ez, goiz izugarri aretan Errotazar'en jazorikoa, ez litzakit barriz jazoko, ez orixe...! Baiña mintzo ezkutu batek baiñostan, nire billaketea jarraitzekotan, egunen baten nai-ta-ez bidean gurutzatuko litzakidazala. Zergaitik ez billaketeari bein betiko uko egin eta maitasunari buru-belarri emon...? Orduan, baiña, nire barruan zerbait asaldatu yatan auxe iñostala: “gizona ba'zara, osaba-izekoakanako maitasun eta begirunez, aurrera joan bear dozu, osantzean koldar eta eskerbakoa izango zintzakez...”

Oldozkun oneitan niarduala, Esmere'ren abots gozoa onetaraxe etorri yatan:

– Zertan zabiltz, Pruden, orren begitarte illuna erakusteko...?

– Ara, Esmere... zeuk diñostazuna ez dot iñondik ikusten. Noiztik ona oartu dozu jazarpen orren zantzurik...?

– Ezin dagiketsut ziur esan, baiña noizbeinka baderitxat baten bat atzetik dabilkigula.

– Esan, gela onetan dago...?

– Ori ezin nik esan, baiña oarpen bildurgarri batek badiñost itzaletatik begi errukibakoek begizatzen gaituela. Bildur naz, bildur, Pruden... Uko egiozu billaketeari, eta bizi gaitazan bakean...!

Esmerelezko begi eder arein erakarpenari jarkitea zailla egiten yatan, baiña ezin nengikean nire barruari iñongo saldukeririk egin, eta bere eskuak neuretan artuta,

– Begira, Esmere –samur-samur esan neutsan–, ori dana asmakeri utsa da. Egun aretan aurpegian beera odola parrastaka eridala, eta iñoiz ez ezagaturiko burukomin izugarripean Ibarreta'rantz ibilli nenbillela, nire buruari zin egin neutsan, atsedenek ez artzea gaizkille areik giltzpetu arte. Niri egindakoa aztu egingo neuke, baiña osaba Martin eta izeko Edurne'ren sarraskia, ezelan be ez. Onezaz gaiñera, orren odol-egarritsuak diranak zoratasun izugarriak artuta dagoz, eta erailteari jarraituko dautsoe. Ez, Esmere, ez, billaketeari jarraituko dautsat.

– Orduan, biar Txomiñ'egana joango zara...?

– Bai, bazkalostean Urigoien auzoko Landatxu kaleko 35'an bizi dan gure errotearen morroia ikertuko dot, ia eriotz arei buruz zertzeladaren bat emoten daustan. Onezaz gaiñera, gau izugarri aren ostetik ez do-daz bera ta bere emaztea ikusi, eta zor dautsedan ikerpena dala uste dot.

Nire Esmere kutunak ezin egikean menperatzen eban bildurra ezkutu, eta mintzo urratuaz,

– Zaindu zure burua, Pruden –esan eustan–, beiñena zeu zara-ta.

Eskerronez gaiñezka begiztatu neban. Bera zan maitagarria...!

– Ez zaitez nigaitik arrenkuratu –irribarrez esan neutsan–. Gaiñera, amak diñoanez, nire aingeru jagolea on-ona da.

– Olan bedi...!

Berandutxu zan arrezkero, eta etxerantza lagundu neutsan. Ez nekian egin-egiñean zein etxetan bizi zan, eta nire aalegiñak eta guzti, Markos Deuna enparantzatik aurrera, ezin nengikeon lagundu. Sarri askotan, bere etxeraiño lagun joango nintzakion, baiña berak ezetz beti.

– Baiña Esmere –esan oi neutsan–, zergaitik ez dozu nai etxeraiño lagun joan nakizun...? Zure jokaera ori ezin dagiket ulertu. Bildur ete zara alkarrekin ikusi dakigun-edo...?

– Ez, Pruden –lotsa-gorri zoragarriaz iñostan–, baiña arren, ez eragon orreri.

Eta beste barik, Markos Deuna enparantzan alkar agurtzen genduan. Gau aretan, baiña, enparantzara elduta, bostekoa niri emoteko eskua luzatu eustanean, ez-ikusia egiñez,

– Begira, Esmere –irmo esan neutsan–, gaur ez dausut agur esango emen. Nire ustez badot eskubiderik zure etxeraño lagun joateko.

Au esanda, besotik artuta, aurrera jarraitu gura izan neban, baiña berak orduan,

– Ez, Pruden, ez ni beartu orretara...!

– Ori umekeri utsa da, eta benetako burubiderik emoten ez ba’daustazu, ez dot ukorik egingo.

Argi-mutil baten pean, aurpegi maitagarria lotsa-gorritzen yakola ikusi neban, eta mintzo erabetiz, noizbait, auxe esan eustan:

– Barriro be, Pruden, ez eragon orreri...

– Gure arremonak dirala-ta, orretarako eskubiderik badodala uste dot, eta gaur ez gara bananduko, zure ezetzari buruzkoa jakin barik.

So egin ninduan ikaratuta lez, eta begi ederrak neuretaraiño jasota, mintzo leun eta astiotsuz,

– Begira, Pruden –esan eustan–, etxe zaar ezain baten bizi naz, ezeukiak gara-ta. Zeurearen ondoan txabola landerra da, eta zu edozein ba’zintzaz, tira...! Baiña ez, ez zaitut edozeintzat, ezta urrik emon be...! Ez eragon, beraz, zure eskakizun orreri...!

Ezin izan nintzan aren begikadeari jarki, eta bere esku samurrak neuretan arturik, biotzaren eragiñari jarraituz ezpanetara eroanda, mosukatu neutsazan maitasunez gaiñezka.

– Izan bedi zeuk nai dozun lez –zirrara bakanak artuta esan neutsan–, baiña zure etxea niretzat maitagarri eder baten jauregia izango da beti.

Gau aretan etxera biurtzen nintzala, Esmere’ren maitasun-bidetik gero ta sakonago sartzen nintzala iruditu yatan, eta poz andiak artuta, ezin nengikeazan bere esmeralezko begi yaukalak nigandik kendu.

Asmatua lez, urrengo eguneko bazkalostean etxetik urten nintzan Txomin ikertzearren. Eguraldi txarra izanik, euritakoa edo aterkiña artu, eta erri-berebillaren geltokira joan nintzan. Andik laster, 5 zenbakikoa urreratu zan, eta sartu nintzan Urigoien auzorako txartela eskatzen neba-la. Atzekaldeko jarleku uts bat ikusirik, an jesarri nintzan. Eguraldi eu-

ritsua zanez, erri-busa ia beterik egoan. Nirekin batean sartu izan zan betaurre illunetako gazte bat nire aurrean jesarri zan egunkari baten irakurteari emotsala. Ogei bat miñutuko bidaldia neban Urigoiti auzoraiño, eta aldia emotearren, bidekideak begiz aztertu nebazan berbetearren suzmurren artean. Erdigunean erosketak egitetik etozan geienak, eta enparauak lengilleen itxurakoa ziran. Aurrean neban betaurre illunetako gaztea, aurpegia egunkarian ezkutauta, bere irakurteari erraikion, eta luzaro barik ibaia zearkatuta, Urigoiti auzora sartu gintzazan. Noizbait, geltoki baten Landatxu kalea zala esan eustan berebillariak. Jatsi nintzan, eta euri lodia izanik, aterkiña zabaldu bear izan neban; orduan bertan, lengo gaztea erri-berebilletik jaisten zala ikusi neban.

35 zenbakiko etxea laster aurkituta, irugarren maillara igoten asi nintzan. Etxea itxura apalekoa zan, eta oneri egokionez, motel argituriko zurbu aldapatsua olezkoa zan, karezturiko ormak inguratuta. Laster nintzan irugarren maillan, eta atea jo neban. Leiatillatik emakume batek auxe itaundu eustan:

– Nor da...?

Berealaxe ezagutu neban Sabiñe’ren abotsa, eta,

– Sabiñe, Sabiñe –pozik esan neutsan–, ez al-nozu ezagutzen...? Pruden, Errotazar’ekoa naz.

Atsegiñezko didar bat aditu neban, eta atea edegita, Sabiñe’k eta biok alkar besarkatu genduan.

– Au nire poza, Pruden...! –irribarretsu esan eustan–. Laster urtebete bi izango dira azkenengoz ikusi zindudazanetik.

– Txomin etxean al-da...?

– Bai –erantzun eustan atea ixten ebala–, etxean dago, arratsaldeetan etxetik ez da urteten-eta. Zatoz, zatoz. Aren poza zu ikustean...!

Areto bakun baiña garbi batera eroan ninduan, eta sartzean,

– Txomin –oiu egin eban– begira nor etorri dan gu ikustera...!

Besaulki batetik gizaki argal bat zutundu zan, eta besarkada estu bat alkarri emon geutsan.

– Pruden Jauna –pozaren-pozez oi ugin eustan–, au bai zoriona zu ikustea, ain luzaro zeugandik ezer jakin barik...!

– Orren errua ezin niri egotzi –sasi-asarrez esan neutsan–, Errotazar’en jazo zana igarota gero, zuekandiko aztarnak galdu genduzan, eta ama ta biok aalegindu arren be, ezin izan genduan zuen elbidea jakin.

Ez neban zorrotzegi izan gura. Errotazar'eko izugarrikeriaren ostean, eta erri-geisotegian txarto zauriturik aurkitzen zala, berak eta Sabiñe'k erabagi izan eben, bildurak jota, antza, euren egoitzaren barririk ez emotea.

Oldozkun oneitan niarduala, Sabiñe'k beste aulki baten jesarri-erazo ninduan, eta egokitu nintzanean,

– Arrigarria, benetan, zuen aztarnak galdu izatea –esaten asi nintzazien–. Esan, Txomin, zergaitik guri ezer esan barik alde egin zenduen geisotegitik...? Ama oso minduta egoan arrezkero, eta izan be, neuk ezin izan dot ulertu zuen jokaera ori.

Senar-emazteek alkarri begiratu eutsoen ezpaitsu, eta gero Sabiñe'k mintzo lotsatiaz,

– Begira, Pruden Jauna –asi zan–, lenengo ta bein barkapena eskatu bear dautsuegu egiñagaitik, baiña Txomin geisotegian zala, bein baten gelako atepetik norbaitek txatal bat sartu eban, eta geuk oartu aurretik ostendu zan. Txatal aretan auxe idatzita egoan: “Txomin, zoezer esaten otuten ba'yatzu, zuek biok il egingo zaituet. Urrengoan ez dot utsik egingo”. Itzela izan zan artu genduan ikarea txataltxua irakurri genduan, eta arrezkero, iñori ezer esan barik ostendutea erabagi genduan. Olan ba, nire aizpa batek bizileku au guretzat akuratu eban, eta Txomin osatu zanean, etxe onetara aldatu gintzazan. Zelan jakin dozu, baiña, emen bizi izaten gareala...?

– Ertzaindegiko adiskide batek, bereak eta bost aalegindu ondoren, jakiñaren gaiñean ipiñi nau.

– Pozik nago benetan –esan eustan Txomiñ'ek txeratsu–, zu ikustegaitik. Sabiñe'k eta biok gogoan izan zaituegu aspaldi onetan. Izan be, Errotazar'en udaldi aztueziñak emon genduzan ugazabak bizirik zirañean. Azken aldiotan jakin genduan makur batek jota itsu billakatu zintzazala.

– Bai, itsu biurtu nintzan osaba-izekoena jazota gero...

Eta jarraian, nire makurraren barri emon neutsen, baita osakuntzarena be.

– Orduan –esan eustan Txomiñ'ek–, zure buruaren jabe zaitugu orain, eta onezaz gaiñera, legeiztian baimendua, baita izparkaritzaren ikasketak laster amaitzeko be.

Isillune bat edatu zan gure artean, etxe aretara nindaroana, zelan asi ez nekiala. Alako baten, Txomiñ'ek,

– Pruden Jauna –itaundu eustan oiko begirunez–, arrezkero, biurtu ete zara errotara...?

Alagala etorkidan itaunea zan etxe aretara nindaroana azaltzeko, eta astirik galdu barik,

– Bai, Txomin –erantzun neutsan–, eta itsu aurkitzen nintzala, izan be. Ara...

Jarraian, goiz zorigaiztoko aretan aita- seme erailleek, itsu izanik egin eusten doillorkeria guztitariko zertzeladakaz edestu neutsen. Ardurarik andienaz entzun eusten errotako zerbitzari-oiek, eta amaitu nebanean,

– Izugarria benetan –esan eustan Txomiñ'ek–, zeu lako itsua zan gaixo bat orren anker erabiltea. Aita- seme orreik ez dabe iñongo eskubiderik ortik aske ibilteko.

– Olan uste dot nik be, Txomin, eta ona ekarri nauan zioa orixe da, ots, gaizkille biok giltzaperasartzea. Orretarako, baiña, zuen laguntza bear dot.

– Zelako laguntza...?

– Dirudianez, Txomin, zeuk ezagutu zenduan gau ikaragarri aretan zauritu zinduana, ezta...?

Arrenkura baten keiñua edatu zan morroiaren aurpegian zear, eta gero mintzo erabetiz,

– Bai, Pruden Jauna –esan eustan–, gau aretan ugazabak erail ebazana ta zauritu ninduana ezagutu neban.

Une aretan, Sabiñe'ren abots urratua aditu neban auxe ziraustala:

– Jauna, mesedez, laga gagizuz bakean... Bildur naz, bildur, ai ene...! Geisotegiko atepetik txataltxu a sartu ebanak, erailgo gaitu-ta...!

– Ez dozue ezetariko buruausterik jasan bear, dagokiguzan neurriak artzen ba'doguz iñongo ezbearrik etorri ez dakizuen.

– Bildur naz, Pruden Jauna –mintzo negartsuz Sabiñe'k– jakingo ba'zendu jasan genduan aspaldi gorria, Txomin zauritua zanean...!

– Siñisten dautsut, Sabiñe –erantzun neutsan–, baiña osaba Martin eta izeko Edurne maite ba'zenduezan, gerturik ez ete zagoze, arein erailleai merezitakoa emoteko...? Gaiñera, bada beste zio bat aita- seme erai-

lleak espetxera sartzeko, eta auxe alegia: Zoratasunak jotako gaizkilleok izugarrikeriak egiteari jarraituko dautsoe, eta piztiok giltzapean eukitea, gizarterako ziurtasuna izango litzake.

Isillune bat sortu zan aretoan, besterik aditzen ez zala, ormako ordulariaren txiriol-otsak baiño. Alako baten, Txomiñ'en mintzo errimea aditu neban auxe iñostala:

– Zuzen zagoz, Pruden Jauna, zer nai dozu egin dagidala...?

– Ezagutu zenduan gau aretan erailletariko bat, ezta...?

– Bai, Jauna.

– Nor zan...?

– Niko izeneko langille bat.

– Zerez ezagutzen zenduan...?

– Ara... zure osaba Martin ezkondu zanean, errotea zaar-barritu eban. Etxepean egozan turtukoia-ta, erabilten ziran lez laga ebazan, eta atea erdi-ustel billakatu zan ezkerre, areitzezko ate sendo bat azordeztu eban, armi-sareak kendu, ormak kareztatu, eta dana txukundu eban, antiñako errotearen gomutakitzat iraun-erazorik. Gero, etxeko sarrera-sestran egozan errotarriak, txurruak eta beste zatiak kendu ebazan, eta areitzezko soru ederra ipiñita, orain zeuk ezagutzen dozun areto bikaiña biurtu zan guztitariko apaingarriakaz, eta albo baten kebidet ederra eraiki eban. Illabete bi iraundako zaar-barrizte ori, Ibarreta'ko Laurentzi etxegillearen talde batek egin eban. Lau lagunekoa zan lan-talde onekin etxekoek arremon ugariak izan genduzan, eta orduan, arotza zan Niko ezagutu neban.

– Nongoa zan dalako Niko...?

– Ez dakit, barru andiko gizona zan-eta, baiña Ibarretakoa ez zala, badakit.

– Zelangoa zan bera...?

– Goibez ertaiña, baiña kiriotsu ta indartsua. Barru andikoa izanik, ez eban berba andirik egiten, eta ia beti bere baitan bilduta betosko illunekoia zan.

– Besterik ez...?

– Ezin dagiketsut bere nortasunari buruz, besterik esan.

– Gau aretan zauritu zinduzanean, zelan ezagutu zenduan...?

– Ezin neban ondo ikusi, igarobideko argia motela zalako, eta area-

go ni ikusmen motzekoa izanik, baiña sastakaiaz oldartu yatanean, bere abotsaz ezagutu neban, auxe esan eustanean: “Ilgo zaitut morroi babalasto ori...!” eta bularretik aiztoa sartuta, kordebagetu nintzan, geisotegian nire senetara etorri arte.

– Eta zeuk, Sabiñe'k zer diñostazu...?

– Txomiñ'en oiuzugarri batek iratzarri ninduan, eta arrapalada baten etxeko soingaiñeko bat jarrita, igarobidetik oldartu nintzan. Zurubiko goikaldean, nire senarraren soin etzana ikusi neban odolune baten erdian. Ugazaben gelatik didar asarrekoia eta gauzen erabilte zakar eta zalapartatsua etorkidan. Argi oartu neban, ikusia izatekotan neureak egingo ebal, eta arin baten mailladian beera joanda, atea barrutik giltza emonda egoanez, edegi, eta zubia zearkatuta, aalik ariñen Ibarreta'ra bideratu nintzan. Errira elduta, ate-joka ta oiuka Erroman iratzarri, eta jarraian zentzuna galdu neban. Auxe da gau aretan jazo yatana.

Au esanik, Sabiñe gaixoa ikara itzelak artuta, lertxunaren ostoa lez dardarka asi zan. Izan be, emakume gaixo arek gau aretan bizi izandakoa, neurritz gain izango zan. Isillune baten ostean,

– Entzuidazu, Txomin –itaundu neutsan–, eraso zinduanaren mintzoa Niko'rena zan ziur-ziur...?

– Bai, Jauna, aren abotsa ez da aztu egiten dan orreitarikoa.

– Eta eretia aurkeztuko ba'litzakizu, epai-mai baten aurrean, lekukotzat autorpen emoteko gerturik zagoz...?

Une batez, senar-emazteek alkarri begiratu eutsoen ezpaitsu, eta gero,

– Bai, Jauna –esan eustan–, abagunea aurkeztuko ba'litzakit, zure aukeran izango nozu.

– Eskerrik asko, Txomin –esan neutsan eskertsu–, oraingotz, ez dot uste bearrekoa izango danik, baiña egunen baten...

Onen ostean, ez genduan arazoa barriri aipatu, eta ordu erdi batez etxeko gora-beerak alkarri esanda gero, etxe aretatik urten nintzan.

Etxetik kalera urtetean, aize zakarrak putz egin arren, euria atertu izan zan, eta andik berreun bat metrora egoan erri-berebillaren geltokira abiatu nintzan. Kaleko argi makalek ozta-ozta ibilteko beste argi urria barreiatzen eben gabeko itzalen artean. Alako baten, ibilte baten ots motela atzetik etorkidala begitandu yatan. Nire itsu-aldi luzean, ezinbesteko

entzumen zorrotza neugan garatua zan, eta atzetik yatorbazan oiñotsak oso motelak izan arren, oiñetakoan azpikoa gomazkoa zan-eta, kale bustian arein palastadaren ziri-ziria oarmeneraiño etorkidan. Ustekabez, suzmo bakanak artuta, baten batek jazarten nindualako arrenkurea neugan piztu zan, eta brast...! biurtu nintzan... Bai, bera zan, erri-busean ikusi izan neban betaurre illunetako gaztea. Nigandik bost bat metrotik etorkidan, eta ikusi ninduanean, sakeletik sastakai andi bat atara, eta oldartu yatan, auxe ziraustala:

– Madarikatua, bazaukat, eta orain ez zara onik urtengo. Egun aretan erail izan ba' zindudaz...

Itzok entzutean, biotz-ikara batek menperatu ninduan... bai, bera zan, eta eun urte igaroko ba' ziran be, abots a ez neuke aztuko. Goiz aretan errotan arrapatu ninduenetariko gaizkille gaztearen mintzoa zan. Niki eraille ankerra, noizbait begien aurrean aurkezten yatan. Ez neban, baiña, asti luzerik aiko-maikotan ibilteko, labanari oratuz eta besoa goratuta, tximistaren antzera yatorbazan-eta. Orduan, barruko eragin ezkutuari jarraituz, esku biakaz euritakoa atziturik, oldartu nintzakion, kirtenaz zartada itzela emon, eta betaurreko illunak amaika zatitan apurtuta, aidean zear egan egin eben. Oiu erlatsa jaurtita, esku bat begietara eroan eban, eta bestean labana erabillela eraso eustan. Emondako zartadaz euritakoa erditik autsi izan zan, baiña oraindiño mutur zorrotza erabilli nengikean, eta aiztoa eskuan, itsuka yatorbazan, saiesturik, idunean zauritu neban. Oiu bat jaurti, eta biurtu zan erasoari jarraitzeko, baiña betaurreko leiarrak begi-inguruetan untzatu izan yakozan, eta agiri zan ez ebalá ondo ikusten. Aurpegian beera odola eriola, lipar batez ezpaitsu geratu zan, eta eretia ustiatuz, oldartu nintzakion atzemoteko asmoz. Berak, antza, uste eban ez egoala baldintza onenetan burrukan jarraitzeko, eta,

– Urrengoan ez daustazu alde egingo...! –oiuka esan eustan igesari emotsala–.

Laster ostendu zan urri argitutako kaletik, eta biotzaren taupadak baretzen yatazala, erri-berebilla artuta, etxera biurtu nintzan. Amari ez neutsan ezer esan ikaratu gura ez nebalako, eta txirrio epel atsedengarria izanda gero, oiko lekura joan nintzan Esmere'kin alkartzeko.

An egoan nire usotxu maitagarria, eta euria zan ezker, akeitetxe ba-

tera eroan neban. Mai bateko albo banatan jesarten gintzazala, aretoko argi betean ni ikusi baiño ez, oiuka bat nekez menperaturik,

– Baiña, Pruden –esan eustan arduratsu–, zer jazo yatzu, mutil...? Urduri ta zurbil ikusten zaitut, ezbearren bat izan dozu-ala...?

Eskuai oratu neutsen, eta,

– Begira, Esmere –asi nintzakion–, galtzori gorrian ikusi dot nire burua...

Eta jarraian arratsalde aretan jazorikoa edestu neutsan, zeatz bat bera be aztu barik. Amaitzean,

– Orduan, Niki gaizkille basatia izan da garbitu gura izan zaituana...?

– Bai, aren mintzoa aztueziña yat.

– Orrek esan gura dau kuku egin dautsuela... Bildur naz bildur... Zaindu zure burua, Pruden, zeu beñena zara-ta...

Neskatillaren begien itxura kezkatia, biotzeraiño sartu yatan, eta neugaitik orren arduratsu azaldu zeiten, zorionez bete ninduan. Gero, abots gozoaz,

– Baneritxon –esan eustan– jarraitzen eutsuela, eta gaur jazorikoak baieztan dau. Arren, Pruden, zaindu zure burua...! Emoidazu berba, arduraz ibilliko zareala...!

– Bai, Esmere, gaurdanik aurrera kontuz ibilliko naz.

– Ez litzake egokia, gaizkilleok bein betiko burutik kendu dagizuzan, eta arein jazarpenari uko egin...?

– Uko egin naiz ez egin bardin izango da, Esmere. Laster jakingo dabe Txomiñ'en etxera joan nazala, eta onek amorratuago biurtuko dauz. Nagoan atekan, ez dot beste biderik aurrera joan baiño.

– Zein izango da zure urrengo urratsa...?

– Ertzaindegira joango naz jazotakoaren barri emoteko, eta bidebatez Satur'en aolkua artzeko.

– Ondo deritxat orreri.

Gau aretan etxera biurtzen nintzanean, ezin nengikean nigandik kendu, Esmere'ren begien itxura arrenkuratsua baita txeratsua be, arratsalde aretako nire gora-beerak jakitean. Neskatilea zan maitagarria...!

Urrengo egunean Ikastola Nagusira joan-bearrean, ertzaindegira jo neban, eta Satur aurreguneko jazokizunai buruz jakitun ipiñi neban. Une luze batez oldozkor geratu zan, eta gero,

– Agiri da, Pruden –esan eustan kezkatik–, gaizkilleok zelatan zaituela, baiña orain arrenkurutzen nauana ez da ori, Txomiñ'en bizitzak jasaten dauan arriskua baiña. Gaizkilleok laster jakingo dabe atzo ikertu zenduan etxean Txomin bizi dala, eta Errotazar'eko zerbitzari-oiak Niko erailletzat salatu dagikean ezker, errotako erailleek zelatan edo alatan aaleginduko dira bera isiltzeko, eta bildur naz luzaro barik azartuko ez ete diran beste erailketa bat egiteko...

– Uste al-dozu –bildurak jota esan neutsan–, ori egingo dabenik...? Zelan jakingo dabe Txomin etxe aretan bizi dala...?

– Ori laster ezagutuko dabe, onezkero ez ba'dakie... Zelan edo alatan etxe aretatik atara bear dozuz, baita aalik ariñen be...!

Kezka andiak jota nengoan, gure zerbitzariak jasan legiken arriskua oartzean, eta nire buruari zin egin neutsan, astirik galtzeke zeozer aren alde egitea.

Ertzaindegitik urten-agiñean nintzala,

– Aizu, Satur –esan neutsan–, orain badakizu Txomin gerturik dagoala Niko'ren aurkako autorpena egiteko, eta ori bada zeozer gaizkille ori erailletzat salatzen. Zer deritxazu orreri...?

– Ezer gitxi, Pruden. Gizaki bat giltzapetu, etxeko morroi batek uste daualako gau aretan eraillearen abotsa ezagutu ebal, ez dot uste iñongo epaillerik onartuko leukela ezinbesteko egiztapentzat, ezta urrik emon be...! Benetako salaketa bat arrakastaz egiteko, beste santzu siñisgarriago bat aurkeztu bear dogu, bestelan asti-galtze baiña ez litzake izango. Erakutsi aal izango ba'gendu, emen, ertzaindegian gordeta dirauan Txomiñ'ek iltzailleari erauzitako ule-galparra Niko'rena benetan dala...

Itz oneik asperen bat az amaitu ebazan Satur'ek, eta alkarrak agur esanda, ertzaindegitik urten nintzan. Ezin nengikean, baiña, Txomiñ'ek jasan egikean galtzoria burutik kendu, eta kaleetan zear niñoala, ustekabez gogora etorri yatan baserri txiki baten banebala osaba Martiñ'egandik yarauntsiriko etxe egoki ta uts bat, eta astirik galdu barik, Landatxu kaleko etxera joan nintzan.

Arrituta begiztatu ninduen senar-emazteek atea edegi eustenean, eta bereala arira joan nintzan onetaraxe:

– Gertu zaitezte, orain bertan etxe au laga, eta beean ditxarokigun taxira joateko.

– Zergaitik, baiña –itaundu eustan zur eta lur egindako Txomiñ'ek–, etxe au itzi bear orren bapatean...?

– Ez dagigun astirik galdu. Ertzaindegitik natortzue, eta an esan dauste, galtzori gorrian zagozela Errotazar'en jazo zan erailketea dalata. Badirudi itxura gaiztoko baten bat inguru oneitan ikusi izan dala... Begira, atzo etxe onetatik urten nintzanean, Niki'k, Niko'ren semeak eraso eustan, eta ertzaindegian esan dauste aalik ariñen beste leku batera aldatu zaitezela. Ez dagigun astirik aiko-maikotan galdu. Batu egizuez, beraz, eskuartekoak arin baten, eta urrundu gaitezte etxe onetatik.

– Nora, baiña...?

– Arteagoiti baserrian jabetzen dodan etxe txukun eta ziur batera. Antxe zuen aukeran bizi izango zarie. Orain eroan ezin dozuen erredizak-eta, beste baten bialduko-dautsuedaz egoitza barrira. Arren, arindu zaitezte...!

Arrapalada baten eskuartekoak eta gauza txiki batzuk artu, eta begira genduan taxira sartuta, kalean gora abiatu gintzazan. Ordubete baten ostean Arteagoiti baserriera elduta, etxeko zerbitzari zintzoak bizileku barrian kokatu ziran. Pozik emoten eben basetxe eder aretan, jatorriz baserriarrak izanik, uriburua baiña maiteago izatea gauza arrigarria ez zan-eta. Gabean, taxi berean biurtu nintzan, baiña urten aurretik diruketa bat emon, eta ernai ibilli zeitezte esondatuta gero, zeozer ez-oitua oartzean niri jakiñerazoteko agindu neutsen.

Nasaitasunezko oarpenaz etxera biurtu nintzan, buruan nerabillela amari esan ala ez, baiña azkenean isiltzea erabagi neban artegatu ez zeiten. Gau aretan luzaro egon nintzan lo egin eziñik egun aretan jazorkoaz burua urratzen nebal, eta noizbait erabagi bat artuta, begiak batu nebazan lo urduri baten murgiltzen nintzala.

Orduan niretzat beiñena, Niko'ren nortasuna ezagutzea zan, eta arazo oneri ardurarik andiena emon neutsan. Txomiñ'en autorpenaren arauz, Niko'ri buruzko argibideak emon egikedazana, Ibarreta'ko Laurentzi etxegillea zan. Biaramonean, beraz, ara bideratu nintzan trenez, eta geltokian jatsita, zuzen-zuzen Laurentzi'ren idaztegira joan nintzan. Emen, etxegintzarako bearrezkoak ziran gaien gordetegia egoan, eta izan be, gintza-gaien kopurutik, agiri zan Laurentzi'ren jarduna garrantzitsua zala. Idaztegira sartu baiño ez, bereala ezagutu ninduan, eta nigana urreraturik, aulki bat eskiñita gero,

– Kaixo, Pruden Jauna –esan eustan txeratsu–, aspaldiko ori, poztuten naz zu emen ikusteagaitik, eta ainbat areago, begimena irabazita, iñoren laguntza barik gai zareana edonora joateko.

– Eskerrik asko, Laurentzi.

– Ama, ondo...?

– Bai, betiko osasuntsu ta bizkor.

– Zerk zakaz nigana, Pruden Jauna...?

– Ara, Laurentzi... Zeuk Errotazar'en egindako zaar-barrizte ta atonketa guztietan esku-sartze izan dozu, eta augaitik gomutan izango dozu, urrean, osaba Martiñ'ek aginduta, orain bost bat urte, erroreak jasan eban barriztapena...

– Ez naz gogoratuko ba...? –eten egin eustan Laurentzi'k– Errotazar, inguru oneitako errotarik onena ta aberatsena zan, baiña Martin Jaunen aldietan, tximistindarra uren indarra ordezten asi zanean, errotea lotu zan, eta aspalditik ibilli barik egoanez, zaar-barriztea erabagi eban Martin Jaunak ezkontzeko zanean, baiña aspaldiko itxurea galdu ez egian nai eban. Orretarako, etxazpian egoan turtukoia-ri-ta, ugerra kendu, margoztu, sorua espaloiaz estaldu, ormak leundu ta kareatu, txoko baten zal-

di ta orgarako korta bat egokitu, baita beste txoko baten egurraren gor-
detegia be atontzea agindu eustan. Oso atsegin eta txukuna billakatu zan
aspaldiko etxazpi illun eta ezoa. Goian egozan errotarriak, txurruak, as-
takiña etabar, kendu ziran, eta areitzezko ol ederrakaz soru bikaiña egin
neban, eta ate-aurreko orman sutondo ederra eraiki be, ke-buru bikaiñaz
apainduta. Kale-sestran egoan zati au, areto eder eta argia billakatu zan.
Onen ostean, zure osabak areitzezko zati bakarreko mai bat egin nengian
agindu eustan, eta orretarako Errotazar etxaldeko areitzik ederrena auke-
ratu nengian. Olan egin neban, eta zeuk ezagutzen dozun mai bikain-bi-
kaiña egin neutsan.

Isildu zan lipar batez Laurentzi etxegillea, bere kautan ederresten
ebala, urrean, errotako areto ta mai bardinbakoa. Gero, onetaraxe jarrai-
tu eban:

– Aretokoa sarrera nagusia billakatu zan, eta ate ederra jarri neban,
baita beste bat etxazpian, lengo zaar eta ustela ordezteko. Gero, aretoko
leioak barriztu nebazan, baita zurubiko maillak eta eskudela be. Lo-ge-
lak egozan goiko soruan ez neban barrizte andirik egin, urte gitxi batzuk
lenago atondua zalako. Izan be, Errotazar'ek ez dautse iñongo zor, or
bazterretan ikusten diran landetxe edo txalet orreiri...

Ona elduta, Laurentzi'k eten egin eutsan bere bakarrizketeari, eta
zerbaitek beragana nindaroala konturaturik,

– Barkatu egistazu, Pruden Jauna –esan eustan damu-itxuraz–, zeuk
ondo dakizuzanak gogora ekarri izateagaitik, baiña Errotazar etxerik ku-
tunena dot. Barkatu barrero, baiña zer da neurera zakazana...?

– Begira, Laurentzi –asi nintzakion astiro–, gogoan izango dozuz,
urrean, Errotazar'en egindako barriztapen andi aretan, zeintzuk langillek
jardun eben, ezta...?

– Bai, nire menpekoen aurpegiak gomutateko apartekoa naz.

– Esan, Laurentzi, gomutan dozu, Niko izeneko langillea...?

– Ez dot izango ba...? Gizon berezia zan, adiskideak egiten ez da-
kian orreitarikoa, izan be. Aberatsen aurka beti mormoxetan ziarduna
zan. Ez, dirudunen artean ez eban lagunik asko, ezta bere lankideen arte-
an be.

– Zelako langillea zan...?

– Erdipurdiko arotza, baiña aspaldi aretan langille egokiakaz urri

nenbillen ezkerro, etxe onetara jardun-eske etorri yatanean, beste barik
akuratu neban.

– Zein abizenekoa zan...?

Une batez, oldozkor geratu zan Laurentzi, eta gero ezpaitsu,

– Egia esateko, ez dakit.

– Orain bost urtebeteko aste-sarietan jarrita egongo da, urrean.

– Ez. Aldi aretan, benetako langilleak erroldatzen ziran soillik. eta
dalako Niko, aldirako edo bein-beiñeko langilletzat akuratu neban.

– Zelan daiteke ori, baiña...? –gogait-eraginda itaundu neutsan–.

– Badakizu, aldi areitan lan-arazoak ez ziran gurregunekoak baizen
zorrotzak. Astebeta igarorik, aldirako langilleak beste barik ordaindu,
eta kitto. Berari buruz gogoan daukadana da, errotako barriztapen-lanak
amaitu ziranean, dalako Niko ostendu egin zala.

– Nongoa zan...?

– Ezin dagiketsut esan. Nire ustez uriburukoa zan, euskeraz nekez
egiten eban-eta.

Alperrik zan Niko'ri buruz beste ezer jakitea, eta Laurentzi'ri esker-
tu ondoren, etxera biurtu nintzan gogait-eraginda. Burdin-bidean zear
nentorrela ezin nengikean barrutik yabildan asarrea uxatu. Ikerpen are-
tan, Niko'ren nortasuna ezagutzeko uste osoa jarri izan neban, eta orra
or, blindiblaust...! guzurrak urten eustan. Nire buruari autortu bear izan
neutsan, errotan jazorikoaren ezkutukian urrats gitxi, ezer ez esango
neuke, egiñak zirala. Arazoa asiera baten baizen laiñotsua agertzen ya-
tan, eta txarrena zana, ez nekian korapilloari zelan eldu.

Arratsalde aretan ertzaindegira joanda, Satur'ekin autu luze bat izan
neban. Goiz aretako nire billaketearen barri emon ondoren,

– Lur-jota nozu, Satur –asarre esan neutsan–, itxaropentsu joan naz
Ibarreta'ra, eta txulut egin dot, Laurentzi'k ezer gitxi argitu aal izan
daustalako nire itaunik beiñena, ots, dalako Niko'ren abizena.

Isillik iraun genduan une batez, eta gero,

– Aizu, Satur –itaundu neutsan eskaritsu–, ez al-dozu, billaketa bat
egingo zeintzuk uritar Niko izena edo ezizena darabilen jakitearren...?

– Begira, Pruden, Niko ez da ezelako izenik, laburpen edo ezizena
baiño. Alperrik izango litzake, beraz, ain andia dan uriburu onetan zear
joatea, ia baten batek Niko izeneko edo izengoitiko gizon bat ezagutzen

dauan... Emon dagigun uriburu onetan ogei edo ogei ta amar lagunek laburpen ori dabela, orduan zer...?

Zentzunez betea zan Satur'ek inostana, eta ezin neutsan aurkarik egin. Nire itxura kikildua ikustean, eskua sorbalda-gaiñean ipiñirik, auxe esan eustan nire adorea piztu naiez,

– Biotz on, Pruden...! Gauzak inoizkorik illunen dirudienean, askotan ezustez berez argitzen dira. Nire oar-ikasteak (esperientzia) orixe erakutsi daust. Itxaron ba, eta egunen baten batek-baki....

Nire adiskidearen berba txeratsuak arren, lur-jota urten nintzan er-tzaindegitik. Zorionez, baiña, Esmere laster ikusiko neukelako oldozkuna, nire asarrea ezabatu eustan.

Eta izan be, olan jazo zan; neskatilla maitagarriaren berba txeratsuek eta begi yaukalen argiak, laster uxatu eustezan gogoeta illunak, eta goiz aretako gora-beerak edesten amaitu nebanean, nire eskuak berenetan arturik,

– Ez larritu, Pruden –mintzo laztangarriaz esan eustan–, uxatu zeugandik oldozkun illunok, eta barruko dendua irabaziko dozu. Esan, zelan doatzuz Izparkaritzatik...?

– Polito samar, Esmere. Datorren astean azterketak jasango dodaz, eta gauzak okertzen ez ba' dira, izparkari baimendua billakatuko naz.

– Eta zelango asmoak dozuz etorkirako...? Legegizontzat ala izparkaritzat jardutea...?

– Izan be, ezin dagiketsut erantzun orain, ez baidakit. Benetan esateko, nire gogoia bete-betean jarrita daukat Errotazar'eko ezkutukian, eta au argitu arte ez dakit ba...

Begi argitsuak neureetan ipiñita,

– Pruden –esan eustan txeratsu– uxa zeugandik mendeku-asmook, zorionik ez dautsue ekarriko-ta. Zeozer tematsua zareana esan bear dautsut, eta au ez txartzat artu, ederresten zaitudalako baiño. Giristiñauok aztu ta barkatzen ikasi bear dogu, eta olan bakarrik gure barruko dendu edo orekaren jabe izango gara. Itz emoidazu saiatuko zareala...

Iribarrez begiztatu neban bere aurpegi eder-ederra, eta gero, mintzo leunaz,

– Ez dakit, Esmere, ez dakit...! –erantzun neutsan–.

Baiña nire baitan banekian, Errotazar'eko sarraskiaren egilleak zigortu arte, ez neukela bakerik ezagutuko. Izan be, au osaba ta izekoare-

kiko betebeartzat nire barru-barruan sentitzen neban, eta arein gomuteari zintzo jarraitu nai neutsan.

Gau aretan, Esmere agurtzetik etxera biurtzen nintzala, neska zoragarriaren begi orlegi yaukalak inoizkorik biotzeanago oartzen nebazan, eta beraganako nire maitasuna egunean baiño egunean andiagoa egiten zan. Esmere zan eder eta maitagarria...!

Errotazar'eko etxaguntza aberatsa zan basotan, ariztitan batez be, baiña baebazan lerdoi edo piñudi batzuk, onein artean ogei ta amar urtekoa zan iru ektareko sail ederra. Lerdoi au sasoirik onenean egoan saltzeko, eta papergintza bateko arduradun bat arremonetan asi yatanean lerdokia erosteko, baietz esan neutsan. Erosi aurretik, baiña, dalako arloa ikusi nai eban arduradunak, eta bat etorrita, urrengo larunbatean lerdokia ikertzea erabagi genduan.

Aurregunean, Esmere'rekin izandako oiko alkarrikustean, errotara joan bear izaten nebala jakiñerazo neutsan. Pozik nengoan, ez soillik egiteko zan salketeagaitik, baita egun batzuk lenago izparkaritzan baimendun-agiria lortu izan nebalako be. Aldarterik onenean auxe eskiñi neutsan:

– Aizu, Esmere, zergaitik ez zatoz nirekin Errotazar'era...? Begira, etxetik ogitarteko batzuk eroango dodaz, eta trenez Ibarreta'ra joanda, errotaraiñoiko iru kilometroak oiñez egingo doguz. Eguraldia orain ezin egokiagoa da orretarako, udako ateetan gagoz-eta. Eguberdiko amabietan papergintzako arduradunarekin piñudia ikertuko dogu, eta gero errontan bertan bazkaldu ostean, etxea ta onen inguruak erakutsiko dautsuz, jarraian Ibarreta'tik trenez biurtzeko. Zer deritxazu asmoari...?

– Ederra dala benetan, eta orrek agirian ipinten dau nirekiko beti erakusten dozun begirunerik txeratsueña, baiña tamalez, ezin dagiket onartu zure eskintza ori... Ara, Pruden, aspaldi onetan aita kili-kolo dabil, eta iru orduro zizta edo indiziño bat ipiñi bear dautsat. Au bai tamala...! Ezin dagikezu asmatu zein pozik joango nintzan zurekin Errotazar'era, irrikan nago-ta ain sarritan aipatzen daustazun leku ori ezagutzeko...

– Entzun egistazu, Esmere: ez al-dagike zure amak ziztapen orreik egin...?

– Amak.. bai zera...! Orretan pentsatea be, zorabiotu egiten da. Ni oster a oituta nago, parroko geiso-zaintzak orretara artaratu naualako, baiña berak pentsau be ez.

Nire aurpegian irakurri eban, urrean, bere ezetzak eragiten eustan atsekabea, eta begikada lilluragarria neugan jarrita, mintzo palagariaz,

– Agiri dozu aurpegian –esan eustan–, nire ezetzak eragiten dau-
tsuan naigabea, baiña ziñez diñotsut zeu baizen atsekabetua nagoala.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Damu dot, lenengoz egiten daustazun olako eskintza bateri uko egin bear, baiña orren ordaiñez, egun orretan, zazpiretan barik seiretan alkartu gaitekez, eta gero apaltzera joango gara, ondo ba' deritxazu.

Izan be, eskintzea atsegin yatan, berarekin apaltzera lenengoz niñoa-
la zan-eta.

– Ondo deritxat eskintzeari, eta beraz, arratsaldeko seiretan kafetegi onetan alkartu ondoren, jatetxe on batera joango gara.

Bere begi sorgingarriak neuretan jarrita, irribarre egin eustan, eta dana aztuta, lora-atalak zirudien esku bigun areitan mosu bana ipiñi neutsen.

Biaramonean, lepo-zorro baten jateko batzuk neroiazala, Ibarreta'ra-
ko trena artu neban. Eguraldi ederra zan, baiña aurreko egunetan euri-ja-
sa lodiak izanik, bada-ezpadan besagaiñean euri-txartes bat neroian. As-
paldi aretan, baten batek jarraitzen eustalako oarpen kezkarripean bizi
izaten nintzanez, etxetik geltokira taxiz joanda, burnibideko gurdian
egokituta gero, inguruak begiz aztertu nebazan, baiña ezeren zantzurik
ez. Ibarreta'ko geltokian jatsi nintzanean, une batez gelditu nintzan, oi-
ñetako lokarriak lotzen nebazalako egiñez, eta nirekin batean jatsita-
koak geltokitik ostendu ziranean, kalera urten nintzan. Andik laster erri-
ko kaleak atzean lagata, ibilte bizkorraz oiko gurdi-bidetik
Errotazar'erantz jo neban. Ondo ikusi zeitekean ibiltari bakarra nintzala,
eta Esmere'ren irudi zoragarria gogoan neroiala, adoretzu ta azkar bide-
giteari emon neutsan.

Lengo euriak sortutako itoiek bidea estaltzen eban, baiña eguzki-
printzen pean, ortziko oztiñak eta aldameneko txorien txintek itxura zo-
ragarria emotsoen zabaldiari. Andik ordu erdi batera-edo, errotatik ur sa-
mar nengoala, olezko zubipean arruan beera oldartzen ziran ibaiaren ur

arrotuen burrunbea aditu neban. Andik laster, zubiko eskudelan besoak
kokatuta, une batez uren apar eta zurrunbilloai begira geratu nintzan,
amesetan lez umetaroko oroitzak gogora etorkidazala. Orduan oartu
nintzan, Errotazar'eri lotzen ninduan lillurarik andiena, bere uren suz-
murra zala, batzutan gozo ta eresintsua obauba baten antzekoa, eta bes-
tetan indartsu ta zemaikorra amaika leoien orruak bai'litzazan.

Noizbait nire senetara biurtuta, etxeko atea egegi, eta amaren buru-
bideai jarraituz, leio guztiak zabaldu ta sua piztu neban, eguratsak barru-
ko ezotasunaren sundea ezereztu egian. Ozta-ozta eginkizun oneik amai-
tuta, berebil baten burrunbea aditu zan, eta andik laster papergintzako
arduralariak eta biok bostekoa alkarri emon geutsan. Iraduz etorren pa-
pergintzako, eta artez-arte zlerdoira joanda, beste lagun bikaz saillaren
neurriak artu, eta egokiozan zenbakiak egiñik, etxera biurtu gintzazan.
Luzaro barik, ate-aurrean jesarrita une labur batez gangaillenez jardun
ostean, salneurriari buruz bat etorri, eta gure ituna esku-estutze bataz
egiña, eroslea ta onen lagunak berebillean ostendu ziran.

Ordu bata izango zan orduko, eta etxera sartuta, ogi-tartekoak gogoz
jan nebazan. Onen ostean, sua amatau, etxeko leioak itxi, eta ateari gil-
tza emonda, Ibarreta'ra biurtzeko gertau nintzan. Baiña ozta-ozta zubiko
olak zapalduta, bestaldeko sastraka baten atzetik, gizaki baten irudia
agertu zan, eta zubian zear nigana ibiltzen asi zan. Zauskada izugarriean
elbarrituta lez gelditu nintzan... nor eta Niki berbera...!Eskuan sastakai
anditzarra ekarrela, eta aurpegia irriño isekari bataz piztuta, auxe esan
eustan urreratzen yatala:

– Oraingo onetan, eztimetxa kakati, aberaskume bupera orrek ez
daustazu igesik egingo, ez orixe...! Goiz aretan aitagaitik ze, ilgo zindu-
kedan, baiña berandu bada be, zeureak egin dau, bai, gertau zaitez osa-
ba-izekoekin batzeko, an, beste munduan...

Lenengo zauskada-unea igarorik, bildur-bearrean sumin gorriak
menperatuta oartzen nintzan, nire aurrean gau izugarri aren iltzailletari-
ko bat ikustean. Ez, ez nintzan ezetariko bildur, bai oster a, zital aren aur-
ka aal neban sumiñik andienaz burrukan egiteko gerturik. Sastakaia es-
kuan nigana etorrela, aukera bete a izan neban arratsalde aratzean bere
irudia aztertzeke. Gazte azkarra zirudian, bere baitan basakatuaren arin-
tasun eta malgutasuna ebazana. Aurpegiaren karantza ederra zan, eta lar-

mintz illunaren inguruan buruari ondo atxikitako billo baltzak, neurri baten ijito-itxurea emotsoen...

Oarpen oneik nire buruari egiten neutsazala, sorbalda-gaiñean ne-roian euri-txartesa, besagaiñaren inguruan babeski baten antzera biribilkatu neban. Izan be, urtebete bi lenago, ots, itsu billakatu aurretik, ukabilka-ikasketak artu nebazan, eta banekian, beraz, besoak zelan erabili. Urreratu-ala, auxe esan eustan:

– Banekian emen aurkituko zindudazala.

– Zelan, baiña...? Onantza nentorrenean ez dot iñoren zantzurik oartu...

– Zelatari-sare bikaiña badau Niki'k. Baiña orrek zeuri bost ardura, luzarorako ez zara izango-ta.

Nik, baiña, Niki urduri billakatu zeiten nai neban, eta,

– Bai zera...! –isekari jaurti neutsan–. Itsu dana kate batz zauritze-ko gauza izango zara, baiña bere oarmenen jabe dana, nekez zauritu aal izango dozu, koldarra besteren koldarra...!

Itzok entzutean, begiai txinpartak eriezala oldartu yatan, aitzokada itzela jaurtiten eustala. Erasoari irmo eutsi neutsan, eta besoaren inguruan nerabillen biribilkaturiko euri-txartesan galdu zan, onen ordaiñez ukabilkada bat suurrean emoten neutsala. Ekintza onek bere buruarekiko uste ona oztu eutsan, antza, nire inguruan biraka, noiz erasoteko unerik onena billatzen ebala. Barriro be oldartu yatan, eta lengoan lez aitzokadea nire babeski az saiestuta, beste ukabilkada bat jarri neutsan aurpegian. Bazirudian, bere buruaren jabetasuna galtzen asten zala, aurpegia amorrus gorrizkatzen joiakiola. Edu onetan burrukeak jarraitu eban biok aalegiñaren aztarnak erakusten asten gintzazala arnas-estuak jota.

Ezustean, lipar batez eguzkiak dizdir igeskorra eragin eutsan sastakaiari aidean zear tximistaren antzera yatordanean. Ozta-ozta garaiz ziri egin neban, azkonaren antzera besondoa azalez urratzen eustala. Orain, burrukea eskuz-esku izango zan, eta amorrus oldartu nintzakion ukabilka. Alako baten, zubiko ol baten soster egiñik, jausi nintzan, eta egoerea ustiatuz Niki gaiñean kokatu yatan, esku biakaz ito nai ninduala. Indarrak baturik, baiña, inkeza itzela eginez, albo batera jaurti neban, eta noiz goian noiz azpian alkarri oratuta, batetik bestera iraulka ta narrazka, auzka basatiari jarraitu geutsan, didar itoen eta madarikaziñoen ar-

tean. Areitariko itzuli-murtika baten, zubiko eskudelaren azpitik igarorik, aidean zear beeko ur orrularietara oldartzen gintzazala oartu nintzan. Gure soin alkartuak palastada batz murgiltzen yakuzala, Niki'ren karra-si izugarria aditu neban. Gero ezer ez, ibaiaren besarkada otz eta itogariak inguratzen ninduala baiño. Une aretan, alkarrekiko atzipenetik jare-i, ibaiaren oe arritsua ukutu nebanean, oiñen eragintza indartsuaz gaiñaldera igon nintzan, eta uren zurrumbillo ta orruen artean nire burua eroaten laga neban...

Alan-olako ugerilaria nintzan, baiña Errotazar-inguruko ertzak ondo samar ezagutzen nebazan ezkerero, noizbeinkako besakada batz, ondo ezguturiko urlo batera jo neban, eta andik laster, nire oiñek azpiko legartsua zapaldurik, ertzeko sarats bateri oratu, eta urten aal izan neban, uren suzmur zemaikorra atzean galtzen zala.

Nire janzkiari ura arradaka eriola, bidezka batetik arin-arin Ibarreta'ra jo neban, menperatzen ninduan otza uxatzearren. Laster nintzan errian, eta artez-arte Erroman'enera joanda, etzekoen itaunai erantzun emonez nire janzkia sutondoan legortu bitartean, aurpegi ta eskuetan nebazan arramaskak eta aitzoak besoan egindako zauria osatu eustezan. Andik laster, nire lengora biurtuta, Erroman'ek geltokira lagundu eustan, eta trena etorri arte ez ninduan laga bakarrik.

Jesarlekuan egokituta trenak ikusgaia irusten ebala, oldozkunen zurrunbillo zoro batek ez eustan jazorikoa neurri egokian ikusten laga, baiña uriburura urreratu-ala, noizbait, gogoen aria birrirabazten asi nintzan, eta uriburura eldu nintzaneko, egitekoa erabagi izan neban.

Astirik galtzeke, taxi batek ertzaindegira eroan ninduan. Satur ez egoan une aretan, eta txandako ertzaiñagana joanda, egokidan salakuntzea egin neban, zeatz bat bera be ezkutatu barik. Ordu erdi bat inguru iraun eban nire txostenak, eta amaitzean, urrutizkiñez Satur'ekin berba egitea eskatu neban. Laster nintzan berarekin izketan, eta jakitun ipiñita gero,

– Aizu, Pruden –esan eustan berak–, berandutxu da ezetariko billaketak egiteko, baiña biar lenengo orduan arazoari dagokion billaketea neronek egingo dot, eta zeozer ezagutu baiño ez, jakiñerazoko dautsut. Orain zoaz etxera, atsedean artu bear izango dozu-ta.

Urten nintzanean, ez yatan bururatu etxera joaten, bostak eta erdiak izanik, Esmere'rekin alkartzeko ordua laster izango zalako. Seirak arte itxaron bitartean, egurastegiko aulki baten jesarri nintzan, eta arratsaldeko giro eder eta baketsuak eraginda, lengo egoera artegatsua aztuta, oldozkunak taiutu nebazan otz-otzean. Izan be, goiz aretan trena artzeko etxetik urten nintzanean, ez neban jarraipen-zantzurik oartu, eta Ibarreta'tik urtetean aldamenak aztertu nebazan ia baten batek jazarten ete ninduan, baiña iñoren zantzurik ez. Zelan jakin egikean Niki'k, beraz, egun aretan Errotazar'en izango nintzakela...? Orra or ezkutu andia... Eta egun batzuk lenago, zelan jakingo eban Niki'k arratsalde euritsu aretan, Txomiñ'en etxera joateko nintzala...? Izan be, edonork edozein eretian jarraitu egikedan, baiña autorpen-baietza lortzeko zerbitzariaren etxera niñoala jazo bear be, andia zan gero...! Zergaitik ez niri jarraitu

egurasten edo Ikastola Nagusira niñoeanean...? Ostera be, errotatik urte-ten nintzanean Niki'rekin izandako burrukea ta onen zertzeladak gogora etorri yatazan, eta ezustean, tximista baten argi itsugarria bai'litzan, suzmo batek adimena gardendu eustan, eta dardar ikaragarri batek artuta, zoratzeko zorian oartu nintzan. Ez, eziña zan buruan yabildana, une txar baten auleria, urrean... Baiña barrero be uste zital arek jazartu ninduan, amildegi baten erpiñetik jausteko zorian sentitzen nintzala, eta zerbait maite-maiteak oiñaze esan-eziñaz biotza zaurituko bai'leustan...

Une aretantxe, lekaimetxe batetik sei joale-jote astirotsu aditu nebazan, eta tximistak jota lez zutundurik, Esmere'rekin erabagitako alkar-tze-lekura urrats ariñez bideratu nintzan. An egoan, betiko kale-kantoi-an nire begira, eta berari ezer esan barik, alboko kafetegi bateko mai-aurrean jesarri-erazo neban, aurrez-aurre kokatzen nintzakiola. Bere begi andi ederrakaz begiztatu ninduan, eta,

– Aizu, Pruden –esan eustan oiko usapalaren begikadaz–, itxura ez-oitua erakusten dozu gaur, zer dala-ta...?

– Suge bat ikusi dot bapatean.

– Suge bat diñozu... Non eta zelangoa...?

– Esmeralezko begiak zituan suge iguingarri ori neure biotzaren ondoan jarrita egoan, eta emoten neutsan maitasunaren ordaiñez, niri ziztatzeko gerturik ikusi dot.

– Zer gertatu yatzu, baiña, orren illun mintzatu zakidazan...?

– Zergaitik ez dautsazu galdetzen Niki'ri...? Berak azalduko leuski-zu gaurko gora-beera guztiak.

Bapatean, bere esmeralezko begiak aurpegi zurbil batetik otz eta motelak begiztatu ninduen, arrotz baten aurrean bai'legoan. Izan be, suge baten begi orlegi errukibakoak zirudien. Jarraian, begiak mai-zamauan josirik, mintzo urrutiaz,

– Berak esan dautsu-ala...?

– Ez, ez da bearrekoa izan. Oraintxe bertan alkartze-orduaren begira nengoala, tximistaren argi itsugarria bai'litzan, dana ulertu dot. Baiña zeu lako neskatilla zoragarriak orren zital jokatu legikeanik, burua urratu arren be, ez neuke egundo siñistu. Zelan billakatu zara orren biotzba-ko ta etoia...?

Berak, baiña, buru-makur eta begiak zamauan untzatuta zirauan. Egoera mingots a eroan eziñik,

– Orain argi ikusten dot dana –esan neutsan etsiak jota–, baita zure parrokkiko beartsuen aldeko ipuin ori ta guzti be. Eurok, aita-seme iltzailleok, amuzkitzat jarri zinduezan nire asmoak ezagutzeko, eta neuk, ergeltzar iñuzente onek, maitasun utsaz amua iruntsi egin dot, zure usapalaren itxurak eta edertasunak lilluratuta. Neutsun maitasun garbi ta andia ustiatsu dozu, asmatzen nebana osaba-izekoean erailleai jakin-erazoteko. Nire maitasuna zapaldu, ankapetu dozu, iltzaille zoro bi estaltzearren, eta aalegindu zara ni arein eskuetan ipinten, orretan eriotza baletorkit be... Esan, Esmere, edo zareana-zareala, zelan jausi zara egoera zantar, zital orretara...? Jaio ete zintzazan biotz barik...?

Berak, baiña, isillik eta buru-makur zirauan, aurpegia zamaua bai-zen zurbilla ebalu. Ezin nengikean egoerea luzarogorik jasan, eta bere eskuturrari oratuz, mintzo garratzaz,

– Esaidazu, esaidazu zergaitik saldu nozun...! –oiu egin neutsan–.

Noizbait, asperen bai-zen isiltia, berak,

– Maite dot, maite... –suzmur illaunaz esan eustan–.

– Bazenekian, ni erailteko asmoz Niki Errotazar'era etorriko litzakidala...?

– Ez, ez nekian ori. Ara joateko asmotan zintzazala esan neutsan, baiña berak ez eustan ezer iragarri...

– Ara... –esan neutsan bere eskuturra askatuz–, arratsaldeko asieran, neroiazan ogitartekoak janda gero, errotatik urtetean, aizto bat eskuan ebalu Niki oldartu yat. Dirudianez, aiztoa edo sastakaiari lege andia dautso Niki gaizkille orrek, jakiña, oparia esku utsik aurkitzen danean, gau aretan osaba-izekok egozan lez, edo neu lez orain ordu gitxi, errotatik urtetean nintzanean. Errota-aurreko zubian, burruka itzela jazo da, eta zorionez, ukabillak erabilten zeozer nazan ezkeru, azkenean soiñez-soiñeko auzkan billakatu gara, eta alkar joka giarduala, alako baten olezko zubitik uretara jausi gara. Ur arrotuak arruan beera oldartzen ziran, baiña ango bazterrak ondo ezagutzen dodazan ezkeru, eta ugerilari makala ez nazan aldetik, azkenean ibaitik urtenda, emen nozu bizirik...

Une aretan, Esmere'k begiak jaso ebazan, eta esmeralezko dizdir jorantsuaz piztuta,

– Eta bera zer billakatu da...?

– Nik al dakit...! Ugerilari ona ez ba'da, txarto ikusiko eban bere bu-
rua.

Itzok entzutean, gorroto neurribakoaz begiztatu ninduan, eta berba
urratuakaz auxe jaurti eustan aurpegira:

– Zeuk erail dozu, zeuk, madarikatu orrek...!

Oiko usapalaren itxurea ostendu izan yakon, eta nire aurrean suge
sumindu baten esmeralezko begi kiskalgarriek sastakatzen ninduen
amorruez gaiñezka.

– Ez dakit il dan ala ez –erantzun neutsan–, baiña baietz izatekotan,
bera da eta ez beste iñor eriotzara bultzatu dauana, esku-utsik nengoan-
nean erailteko asmoz eraso eustanean. Esan, Esmere, zelan daiteke zeuk
lako neska ederrak bera lako gaizkillea maite izan dagianik...? Orren lo-
kartua dozu biotza...?

– Ezagutu nebanetik maite izan dot. Niretzat maitagarri ta ona izan
da beti.

– Baiña ez zenekian gaizkille amorratua zanik, osaba Martin eta ize-
ko Edurne erailtzeraiñokoa...?

– Ez dakit ezer; dakidan guztia maite dodana da, eta bera illik ba'le-
go, betirako gorroto izango dautsut.

Une aretan, zoratasunezko itxura azaldu-eziñaz begizatzen ninduan,
eta egoerea luzaroagorik jasan eziñik, jagi nintzan.

– Agur, Esmere –esan neutsan samiñez–, iñoiz ez arte. Kalte andi-
andia egin daustazu nire biotzaz orren zentzunbako jolastean. Zeure go-
rrotoaz zemaitzen nozu, baiña ni, ordea, amorru barik baiña samintasu-
nez beterik urruntzen naiatzu. Apurtu daustazu biotza, eta nire amesik
maiteena ezereztu, baiña aldiaren bide errukitsuak zauriak arintzen ditu,
eta atzokoaren laiñoan galtzen dan irudia biurtuko zara niretzat. Niri egi-
ña barkatzen dautsut, agur...

Arratsalde eder aretan, zugaitzen adaburuak laztanduz, itsas-atzetiko
oatzearen billa makurtzen zan eguzkiak, ortzia urre biurtzen eban, baiña
nire biotzeko urrea ezerezkera biurtu izan yatan, uts mingotsa, bete-ezi-
ña nire barruan sortuz. Aika yabildan biotza, eta galdutako zorionaren
malkoek arimea kiskaltzen eusten... Eta kaleetan zear, lo-ibiltari baten
antzera nora ez nekiala abiatu nintzan.

Nekez lo egin aal izan neban gau aretan, Esmere'ren begi orlegi
ederrak nigandik uxatu eziñik. Orain, len ez oarturiko zertzeladak gogo-
ra yatordazan... Sarri askotan, bere esmeralezko begiak urrunean galduta
lez ikusten nebazan, nigandik eta inguratzen ginduzanetik guztiz bazter-
tuak, bere biotzaz jabetu izan zan Niki'gan gogoa jarrita, urrean. Zo-
riontsu ezin egikean gaizkille bategan, zergaitik bere maitasuna ipiñi, eta
ez neugan, eriotzararte maite izango neban bategan...? Eta zergaitik,
etxeraiño lagun izan nenkionari jarkiten zan beti...? Bizi izaten zan ingu-
ru zakar eta beartsua ezagutu ez nengian...? Batek-baki...! Emakumeen
arazoetan oar-ikaste gitxikoa nintzan, urrean, edo-ta emakume baten ba-
rrukoa, neu lako batentzat aztergaitza zalako, nonbait...

Biamonean, gosaria artuta gero, kalera urten nintzan, eta zerbaitek
gogoa larritzen eustanean egin oi neban lez, mendira joan nintzan, eta
eguberdian ibilliaren-ibillez lerrenak eginda, etxera biurtu nintzan. Une
batez, ezpaitsu egon nintzan Esmere'rena amari esan ala ez, baiña une
aretan amagan nire naigabea asazkatzeko gogorik ez neban ezkerro, beste
eretirako laga neban. Bazkaria amaitzeko zorian zala, norbaitek urrutiz-
kiñez dei egiten eustala, iragarri euskun etxeko neskameak. Entzungai-
llua artuta,

– Nor da...? –itaundu neban–.

Ariaz bestaldetik, Satur'en mintzo urduria aditu neban auxe iñosta-
la:

– Aizu, Pruden, etorri zaitkeez lenbailen ona, ertzaindegira...?

Bertan-bera dana lagata, arrapalada baten ertzaindegira joan nintzan.
Satur'ek beingoan abetaldu ninduan, eta nire aurrean jesarrita,

– Agertu da, Pruden –esan eustan.

– Zein agertu, baiña...?

– Niki. Nor izango ba...? Egunsentian, aize-txalupa bat ustiatuz, gaizka-talde batekin, Errotazar'etik asita ibaia aztertu dogu, eta gora ta beera ertzak arakatu ostean, eguberdian, urlo bateko sastrakan, Niki'ren gorpua aurkitu dogu itota, antza.

Zauskada itzelak artuta,

– Ziur-ziur bera zala...?

– Bai, aldean erorian nortasun-agiriak olan erakusten dau. Aurpegian eta soñean zurekin izandako burrukearen aztarnak agiri ebazan. Orain, uri onetako geisotegian dago, gorpu-azterketea jasatearren, eta betebear ori amaitzean, auzi-osagilleak dagokigun txostena emongo dausku. Dana-dala, eta ekanduari jarraituz, biar eguberdian erriko obitegian eortziko dabe.

Autu onetan giarduala, urrutizkiñak ots egin eban, eta entzunaldia amaituta, Satur'ek auxe esan eustan:

– Auzi-osagillea izan da, Niki itota il dala esateko, eta biar goizeko amabietan lurperatua izango dala.

Isillune bat egin zan, eta Satur'ek barrero,

– Aizu, Pruden –esan eustan adoretzu–, ez ete deritxazu, eretia ustiatuz zure osaba-izekoen erailketearen ezkutuan, aurrerapenak egin dagi-keguzanik...?

Izan be, Esmere'ren saldukeria ezagutu nebanetik, nire adimena erbaldata lez neban, eta Satur'en itzak entzutean,

– Zeintzuk aurrerapen, baiña...? Orainartean dakigun bakarra, Niki il dala da.

– Bai, Pruden, baiña bietariko erailerik nagusi ta odolzaleena dan aren aita, auzipera eroan gura ba'dogu, adimena zorroztu bear. Ain zuzen be, nire menpeko batzuk azterketak darabiltzez une onetan, Niki'ren aita nor dan jakiteko, eta au agirian laster azalduko da.

Une aretan norbaitek atea jo eban, eta baietza emonda, ertzain bat sartu zan txataltxu batekin esanez,

– Aizu, Satur Jauna, ona emen idatzita, Niki'ren aitaren izena.

Menpekoa joanda, Satur'ek txataltxua irakurri eban onetaraxe: Nikola Barea, ezizenez Niko Kandela

– Zer egin geinke orain, Satur...? itaundu neutsan, jakingurea itxarten asten yatala.

– Ara... Dalako Nikola Barea edo Niko Kandela auzitegira eroan gu-

ra ba'dogu, aalik eta egiztapenik zeatzenak ezinbestez aurkeztu bear doguz. Eta asteko, ziurtatu bear dozu goiz aretan Errotazar'en entzun zenduan abotsa berea dala, eta orduan zure osaba-izekoen erailletariko bat dala jakinda gero, urrengo urratsa emongo dogu, baiña arazo onetan ardurarik andienaz jardun bearko, dana pikotara joanda ikusi nai ez ba'dogu.

– Baiña zelako aukerea izango dot, dalako Niko Kandela'ren abots edo mintzoa entzuteko...?

– Ori nire kontura, eta bere garaian jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut. Orain biurtu zaitetz etxera eta an itxaron nire deiari.

Gau aretan apalostean, urrutizkiñaren txirriña aditu neban. Satur zan, eta auxe esan eustan:

– Aitu ondo auxe, Pruden: biar eguberdian Niki lurperatuko dabe, eta nire ustez, eginkizun orretara Niko joango da. Obitegiko arduradunarekin berba egin dot ertzaintzaren izenean, eta erabagi dogu, obi-morroï bietariko bat zu izango zareala. Biar amaikak baiño len, aurkeztu zakioz dalako arduradunari, eta onek aginduko dautsu egitekoa. Ulertu daustazu...?

– Ori dana ondo dago, baiña Niko ez ba'litz etorriko, zer...?

– Joango da ziur-ziur. Gure argibideen arauz, aita-semeen artean lotura estu-estua izan da beti, eta augaitik, seme bakarraren lurperatzean agertuko da. Esan bear dautsut baita be, azken aldiotan aita-semeak lo-bedar edo drogaren arazoetan buru-belarri sartuta bizi izan dirala, eta augaitik, ogasunez gora andia egin ei'dabe.

– Orrek ez nau bape arritzen, Satur. Gogoan dot zoritxarreko goiz aretan, aitik semeari zelan aipatzen eustan, gabean bialketa baten billa joan bear izango leukiela.

– Bai, Pruden, dirudianez, aita-semeak lo-bedarkietan arrakasta andiko talde-buruak billakatu dira azken aldiotan.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Ez aztu –jarraitu eban–, zure aurpegia itxura-aldatzea, ezagutu ez zagizan.

– Bai, Satur, aratuste edo inauteri-gaiak saltzen diran denda ona ezagutzen dot.

– Agur ba, eta biotz on...!

– Agur, Satur, eta eskerrrik asko.

Biaramoneko amarrak inguruan, mozorro-denda batera joan nintzan, eta suurpeko edo bibote bat goiko ezpanearen egokiturik, baita bizar labur baltza be, ispilluaren aurrean nire aurpegia begiztatu nebanean, ezin siñistu nerau nintzala. Bada-ezpadan, eta Esmere joan zeiten bildurrez, aurpegiko larmintza illundu eustan dendariak berak, eta andik urten nintzan beste gizaki bat antzaldatuta.

Asti ugaria nire aukeran neban ezkerro, iradu barik obitegirako trenan artu neban, eta luzaro barik ango arduradunaren aurrean nengoan. Bere-ala, obi-morroï bateri dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Aizu, Joxe, gaur zure lagunak etortetik ez dauan ezkerro, geisorik dago-ta, gazte au lagun izango dozu. Dagokion janzkia emoiozu, eta jarrarian gorputegira joango zarie oiko jardunari emoteko.

Dalako Joxe obi-morroïak janzkitegira eroan ninduan, eta emen tri-pazko prakak, txartes altzitua, eta txapel bat niri emonda, beste barik jantzi, eta gorputegira joan gintzazan. Goiz aretan iru zerraldo obira-tzeko ziran, bakotxa gorpuaren izena txatal baten idatzita. Lenengoa esku-orgatxu baten jarrita, utsik egoan obira bultzaka eroan genduan, eta soka lodi bikaz obira beeratua, bigarren zerraldoaren billa joan, eta au be lengoa lez zuloan lagata, Niki'rena zan irugarrenaren billa joan, eta lengoak lez, gerturik egoan obira eroan genduan Joxe'k eta biok.

Eldu gintzazanean, gizon eta emakume bat gure begira egozan, eta nasaitasun-sentipenaz Esmere ez zala etorri egiztatu neban. Bildur nintzan aurrez-aurre alkar ikustean ezagutu nindegian, baiña bazan beste zio bat, eta auxe alegia: biotzaren zauritik oiñaze bizia eridan, eta nigan-dik aren oroitza uxatzen saiatzen banintzan be, ezin aren irudi zoragarria orren arin aztu. Banekian, bere esmeralezko begi argitsuen atzetik, ari-ma otz, errukibakoa, kokatzen zala, baiña olan eta guzti be, maitemindu baten biotzak zentzunaren aurka jokatzen dau, adimenaren burubideai jaramon egin barik. Niretzat, oba bera ez ikustea, biotz-zauriak aztuteko osagairik onena aldia zan-eta.

Esku-orgatxua gelditu genduan, gizon-emakumeak urreratu yakuzan, eta emaztekiak mintzo dardartsuaz zerraldoa edegiteko eskatu euskun. Gizonak, ordea, ez eban tutik be esan, eta begitarte illunaz emakumearen besoari oratzen eutsan. Bikote aren aurpegi-karantzetik argi

egoan Niki'ren gurasoak zirala, baiña gizonaren abotsa izango zan ziur-tasuna emongo leuskidana.

Zerraldoaren estalkia edegi zanean, an agertu zan Niki'ren aurpegi bellegixka ezko-antzekoa, eriotzaren atzaparra beragan agiri izan arren, oraindiño eder eta atsegiña. Emakumea gorpuagana oldartu zan, eta aurpegia mosukatuz auxe oiukatu eban:

– Niki, nire seme maitia, zergaitik il zara orren gazte ta ederra...? Ai, ene bada, nork esango illik ikusiko zindukedazala, ai ene...!

Gizona, ordea, gorpua begiztatzen eban isil eta betillun, itz bat bera be esan barik. Noizbait, zerraldoa itxita, Jose'k eta biok sokakaz obira jatsi genduan, eta an geratu zan arratsaldearen begira lurraz estalia izateko. Andik joan aurretik, zelan edo alan gizon aren abotsa entzun bear izango neuke, nire etxekoen erailletzat ezagutzeko ala ez. Berak, baiña isillik zirauan. Joateko zorian zala, une batez gora begira geratu zan, eta ukabilla jaso eban zemaikor, Niki'ren eriotzaz mendekua artu gura izango bai'leuan, eta gero emakumea besotik artuta, urtenbiderantz abiatu ziran. Ni, baiña, asarre gorripean-aurkitzen nintzan. Bere abotsa ez entzutekotan, goiz aretako aalegiñak alperrikoak izango ziran, eta zelan jokatuko burua urratzen nebala, bapatean burutapen batek jo ninduan... Ibillera arinduz urreratu nintzakion, eta abotsa aldatuz,

– Aizu, Jauna –apal-apal esan neutsan–, barkatu egistazu, baiña oitura da emen, obi-morroïai eskupeko bat emotea, eta...

– Ze eskupeko ta eskupeko-oste –erantzun eustan garratz–, zoaz artaburuak urkultzera, babalasto ori...!

Itzok entzutean, biotz-ikara batek artu ninduan... Bai, bera zan errotan bere burua osaba-izekoen iltzailletzat autortu ebana, arribiziaren billa goiz aretan sarraski-lekura bere semearekin biurtu zanean. Noizbait, egiztatu aal izan neban nire etxekoen eraillea nor zan, baita laster jakingo neban non bizi zan be. Oldozkun onek poz bakanaz bete ninduan, eta bikoteagandik urrunduta, arin baten obitegiko jantzitegira joan, lengora biurtu, eta andik urten nintzan uribururako trenan artzeko.

Arratsalde aretan ertzaindegira biurtu nintzan, eta ikusi ninduan,

– Ta, Pruden –itaundu eustan Satur'ek–, zer diñostazu...?

– Bera da eraillea, eta eun urte igaro ba'litzaz be, Niko'ren abotsa

millen artean bereiztuko neuke osaba-izekoeen erailletzat. Errotazar'en igarotako adu txarreko goiz aretan, bere mintzo zakarra nire entzume-nean irarrita geratu zan betirako. Zalantza barik bera da eraille nagusia, eta au ziurtaturik, dagokiguzan neurriak artu bear doguz iltzaille zital ori giltzaperera sartzeko.

Satur'ek, baiña, ez zirudian nik baizen baikor arratsalde aretan, eta zigarroari must luzeak emotsazala, begiak sabaian josita, ez eban erakusten ezelako adorerik. Bere oztasuna ikustean.

– Begira, Satur –jarraitu neban–, astirik galtzeke dagokidan salakuntza jarriko neuke gaizkille orren aurka. Bai Txomiñ'ek, bai neuk Niko iltzaille nagusitzat salatu dagikegu.

Une batez begiztatu ninduan Satur'ek, eta gero begikadea sabairantz biurtuta barriro, mintzo astikorraz,

– Tamal dot erakusten dozun adorea ezetsi bear, baiña egia esateko, iñongo epaïkarik ez leuke giltzapetuko Niko, zeuk eta Errotazar'eko zerbitzariak aren abotsagaitik eraillea dala autortzen dozuelako. Ain larria dan auzi onetan, egiztapen ukaeziñak aurkeztu bear dira, erruduntzat epaitzekotan ogei ta amar urtetik gora artuko leuke-ta. Ez, bere burua benetako epaïkaritzat artu dagianak ez leuke gizaki bat bizitzaldi guztirako zigortuko, salatari bik iltzaillearen berba-soiñua ezagutzen uste dabelako.

– Orduan, gaur obitegian neuk egiñiko egiztapenak, ez dau ezertarako balio...?

– Orren urrunera ez nintzake joango, Pruden. Bere garaian lagungarria azaldu legike, egiztapen benetakoago bateri erantsita.

– Zein izan zeitekean garrantzi andiko egiztapen ori...?

– Oraingoz ezin dagiketsut esan, baiña niketz esango dautsut, Niko Barea edo Niko Kandela ori, bere suzmoak iratzarri barik kuku egingo dogula, ia ezuste baten arrapatzen dogun-edo...

– Zeuk adierazoten daustazuna ezer gitxi da, eta ez dot uste, bera barrandatu arren be, gauza andirik lortuko dozunik.

Egia esateko, arazoari buruz Satur'ek uste izaten ebana entzun ondoren, lur-jota sentitzen nintzan. Arratsalde aretan pozik eta sutsu sartu izan nintzan ertzaindegira, eta orain, lengo adorea birrinduta, ezetariko

gogo barik oartzen nintzan. Nire buruari, baiña, autortu bear izan neutsan, zoritxarrez Satur zuzen egoala, eta ordurarte lortutakoa ezer bazan be, oso gitxi zala, bide luze baten asierea baiño ez. Jagi nintzan, eta nire adiskideari agur esanda, gelatik urten nintzan. Ango igarobidetariko baten zear aterantz abiatzen nintzala, ate bateko goikaldean idatzita, onoko iragarkia irakurri neban: “Egiztapenen Gordetegia”. Bapatean, burutapen batek jota, gelditu ta urrats ariñez lengo gelara biurtu nintzan.

Sartu nintzanean, kemenak piztuta,

– Satur –esan neutsan–, burutapen bitxia otu yat gordetegiaren aurretik igarotean... Ara, ba'daukazue oraindiño gordeta, Txomiñ'ek gau aretan Niko'ri erauzi eutsan ule-galparra...?

– Bai, eta arazoa itxi edo amaitutzat ez emon arte, gordetegian iraungo dau bada-ezpadan.

– Ez litzake egiztapen ontzat artuko, erakutsiko ba'genduke Niko'ren billoak eta galpar ori bardiñak dirala...?

– Ez litzake gauza makala izango, baiña zelan egin azterpen ori...?

– Zuek, ertzaiñok, badakizue Niko non bizi dan. Itxaron, eta bera kaletik doanaean, atzitu, artaziakaz ule-zati bat ebagi, eta kitto.

– Ez dago txarto, baiña ori legezkoa ez izanik, eta gainera, Niko koloa ez dan ezkerro, ertzaintza auzitegian salatuko leuke, eta gizaki baten aurkako erasotzat artuta, ekintza ori lege-auspentzat artuko litzake. Ez, orain gauzak dagozan lez, ertzaintza ezin daiteke sartu olako jokora. Ez aztu bestaldetik, lo-bedarkia dala-ta, Niko'k gora andia egin dauan ezkerro, lege-gizonik argienak bere aukeran dituala, eta guk ertzaiñok joko orretan sartzen ba'gara, irabazi-bearrean galdu egingo genduke. Ez, Pruden, kendu burutapen ori gogotik.

Arratsalde aretan bigarrenez txulut eginda, eta barriro be lur-jota, gelako atera abiatu nintzan, baiña nire atzetik Satur'en mintzoak geldierazo ninduan auxe iñostala:

– Aizu, Pruden, bada-ezpadan Niko'ren etxeko elbidea emongo dautsut.

– Zertarako, baiña...? Zuek ez ba'zarie gauza zeozer egiteko, ze demoniño egingo dot neuk bakarrik...?

– Ez dakit lagungarri billakatuko yatzun ala ez, baiña kaltegarria ziur ezetz.

Au esanik, txatal baten zeozer idatzita eskuratu eustan, eta sakelera sartuta ertzaindegitik urten nintzan. Etxera abiatzean, aldarerik illunean niñean. Osaba-izekoez iltzaillea asieratik baizen urrun yabildan, eta illabete ta urtebeteak igaro arren, pot eginda oartzen nintzan. Bazan, baiña, arimea marrazkatzen eustan beste atsekabe larria, eta auxe izan be: Esmere'ren saldukeria. Ezin nengikean gogotik kendu bere irudi sorgingarria, eta gabaz batez be, oe-gaiñean iraulka, lo egin eziñik irauten neban, eta egunsentitik urbil, lokuma urduri batek noizbait artzen ninduean, amestxar baten erdian suge baten esmeralezko begi otz, destaiñariak, sastakaiean antzera oartzen nebazan.

Bajoiazan egunak eta astebeteak oiko jarraigo geldieziñean, ezer bereizirik jazo barik. Nik, Baiña, etenbarik nerabilen gogoan etxekoen saraski izugarria, baiña burua urratu arren, ezin nengikean urtenbiderik idoro Niko auzipetzeko arazoari. Bitartean, ortik lebilke aberasten droga edo lo-bedarkiari emonda, gizarteari kalte andia ekarriz zoratasun-mugan aurkitzen zan gaizkillea. Sarri askotan burura yatordan, ertzaindegian egoan Niko'ri erauzitako ule-galparra. Izan be, indar andikoa litzake errotako eraillea auzitegira eroateko ta salatzeko, baiña zelan lortu olako egiztapena, ertzaintza bera, Niko'ri bearrezko billo-zatia kentzeko azartzen ez zanean...? Bein baten, oldozkun onetan burua urratzen nebala, ustekabez, burutapen bitxi bat otu yatan. Bai, zergaitik ez...? Iñor ez ba'zan gauza dalako egiztapena jaristeko, neu saiatuko nintzake, bai orixe...!

Otu ta egin. Amari esan neutsan, Esmere'ren gomutea burutik kentzearren, bidegite bateri emotea onena izango litzakela, eta beraz, aspaldi baterako txango bat egitea asmatzen nebala.

– Ai ene, seme –esan eustan berak–, nok esango, neska eder ori us tel urtengo litzakizunik...? Ain zentzudun eta polita izanik, guzurra dirudi. Zoaz, seme, zoaz aspaldi baterako, ia lengora biurtzen zanean, eta ez larritu, neska politik eta onak badagoz bazterretan, eta gaiñera zu bazara nor, dagokizun emakume on eta maitetsua jaristeko.

Egun batzuk igarorik, sendi on batenean ostatua idoro neban uriburuan bertan, baiña etxetik urrun samar. Ara aldatu aurretik, ezagunen mozorro-dendatik igaro nintzan, eta suurpeko ta bizar baltz laburraz antzaldatuta, bide-zorroa eskuan nerabillela ostatu aretara aldatu nintzan,

iñork jarraitua ez izanik ziurtatu ondoren. Nire eginkizuna arrakastaz burutzeko, bearrezkoa zan iñork ezagutu ez nindegian. Aspaldi aretan, barrandatua izatearen sentipenak jazarten ninduan, eta augaitik, ostatura taxiz joan nintzan, iñork jarraitzen ez eustana ziurtatu ostean.

Urrengo egunean, Satur'ek niri emondako Niko'ren etxeko elbidea ustiatuz, aratu nintzan, eta bazterrak zeatz aztertuta, andik urrun ez egoan kafetegi baten, nire barranda-lekutzat aukeratu neban. Toki aretatik polito aztertu nengikean Niko'ren etxeko atea. Itxuren arauz, gaizakillearen etxea ederra zan, agirian jarririk, bizitzaren ildotik gora andia lortu izan ebala. Kafetegiko jabeari izparkaria nintzala esan neutsan, eta nire idazlanak an bertan atonduko neukezala, kanpoko nintzan-eta. Olan ba, leio-ondoko maitxu baten aurrean jesarrita, eta idazten nebalakoa egiñez, Niko'ren etxea kuku egiten asi nintzan. Zorionez, kafetegira ez zan jende askorik sartzen, eta maitzaiñari eskupeko onak emon oi neutsazanez, oso ondo erabilten ninduan.

Egun batzuk igaro ziran eraillearen zantzurik bage, baiña bein baten, noizbait, etxetik urtetan zala ikusi neban, eta bertanbera dana lagata, bestela-baitakoan aren jarraian asi nintzan, aalik urrunditik nerrakiola. Andik laster etxe batera sartu zan, eta eguberdian beste lagunekin jatetxe baten bazkaldu eban. Arratsaldean taxi baten urrunduzan ez dakit nora, eta abo bete agiñakaz kafetegira biurtu nintzan.

Aspaldi batez ez zan ezer bereizirik jazo, abaguneran baten begira barrandatzeari jarraitzen neutsala. Batzutan, berebillez beste lagunekin ostendu oi zan lo-bedarkiaren billa, urrean, andik egun batzutara biurtzeko. Bein baten, baiña, irrikatzen neban eretia aurkeztu yatan. Bazan illabete bat-edo kuku egiten neutsala, goiz aretan oi eban kapelea ta kaiña-berazko makilla erabillezala, kalera urten zanean. Aren atzetik oldartu nintzan urruntutik nerrakiola, eta... zarrastada esan-eziñak artu ninduan, bizartegi baten aurrean gelditu, eta sartu zanean. Axe zan, benetan, aspalditik itxaroten neban eretia... eta une batzuk igarorik, neu be sartu nintzan.

Orduko, Niko besaulki baten egoan, eta bizargiñak idune-inguruan oiko zapia ipinten eutsala, nire txandeari begira, aren atzetiko aulki baten jesarri nintzan, maitxu batetik aldizkari bat jaso ondoren. Aurpegia kirol-aldizkariak ezkutauta, eta ardurarik andienaz irakurten nebalakoa

egiñez, bizargiñak bere lanari emoten eutsan. Onek, bere kideek geiennan oi dabenez, berba ta berbatan ziarduan, artaziak klisk-klask egin bitartean. Laster, baiña, Niko'k jaramon egiten ez eutsala ikusirik, bera be isildu zan. Bitartean, besaulkiaren inguruan Niko'ren ule-zati arre, narroak, metatzen asi ziran, bizargiña onein eta nire artean egoala. Alako baten, tresna aldatzearren bizargiña apal batera urreratu zanean, aldizkaria jausi yatalakoa egin, eta onekin batean ule-galpar bat jaso neban. Laster egon zan nire jakeko sakelean, eta poz bakanak menperatuta, sasi-irakurteari jarraitu neutsan. Noizbait, lana amaituta, Niko jagi, eta tuktik esan barik, mozte-saria ordainduta, eta agurtzat kurrinka bat jaurtita, urten zan. Nire txandea zanez, besaulkian egokitu nintzan, eta bizargiñak billoak atontzen eustazala,

- Aizu –itaundu neutsan–, nor da urten-barria dan Jaun ori...?
- Ori, Niko Barea edo Niko Kandela da.
- Zergaitik Kandela...?
- Ez dakit, baiña askok olan esaten dautsoe.
- Zelangoa da...? Dirudianez, lagun ori ez da barritsua.
- Bai zera...! Niri beintzat ez daustaz iñoiz berba bi jarraian esan
- Zertan diardu...?
- Ezin dagiketsut esan, baiña miin gaiztoek diñoenez, gauza argitan

ez.

- Zer ba...?
- Ara... bala-bala dabil ortik, droga-arazoan buru-belarri sartuta da-goala.
- Eta ertzaintzak zergaitik ez dau arrapatzen...?
- Aingira baizen irristakorra ei'da, eta gaiñera aberastu danez, legegizon eta onularirik onenak bere aukeran ditu. Badakizu, bee maillako morroiak bai, orreik erraz arrapatzen dira, baiña goikoak atzi-eziñak beti.

Isildu gintzazan une batez, eta gero bizargiñak,

- Orain illabete gitxi batzuk, aren semea ito zan.
- Ito diñozu, zelan...?
- Batek-baki...! Orreri buruz zarata asko dabil ortik. Drogak dirala ta ez dirala... Arerio-talde baten ekintza dala... Gona-arazoa dala ta ez dala... Zurrumuru asko ibilli zan garai baten. Azken aldi oneitan eza-

guerara eldu yat, Niko orrek ortik dabillega esanez, semearen iltzaillea arrapatu arte ez dauala atsedunik artuko, eta benetan, ori egiteko gaitzat daukat.

– Zenbat seme-alaba ditu...?

– Seme bakarra eban ito yakon ori, eta augaitik amorruz dabil mendekua artzeko. Ezagutzen dabenez zoratu egin dala diño.

Zoratu, bai... Izan be, errotan jazotako osaba-izekoen sarraskia, zoro bateri egokiona zan. Eta au gitxi bai'litzan, itsu izanik arrapatu ninduan goiz aretan gertaturikoak, zoratasunaren menpean egoanaren ekintza zala adierazo eustan. Jakingo eban gaizkille arek, bere semea ito egin zala nire aurka izandako burrukaren ondorioz...? Neure kolkorako itaun au egiten nebala, bizargiñak bere lanari azkena emonik, ordaindu neutsan, eta ostatura biurtzen nintzala, poz bizi batek menperatzen ninduan. Gelara sartu baiño ez, ule-galparra sakeletik atara, eta estalki batera sartu neban, une labur batez begiztatu ondoren. Eskuetan neban, nire senitar-tekoen eraillea espetxera sartu egikean egiztapena, eta aspalditik lenengo, elburura urreratzen nintzala oartu neban.

Arratsaldean ertzaindegira abiatu nintzan, eta Satur'egana joanda, estalkia mai-gaiñean jarrita, garaillearen itxuraz,

– Ona emen –esan neutsan–, bear genduan egiztapena.

Ertzaiñak arritutako itxuraz begiztatu ninduan, eta,

– Zelako egiztapena aipatzen dozu, baiña...?

– Ule-galparrarena, Satur. Bear gendua Niko espetxera sartzeko.

Jarraian, aspaldi aretako nire gora-beerak eta egun aretan bertan bizartegian jazorikoa edestu neutsazan. Amaitu nebanean, auxe esan eustan:

– Ez da ekintza makala burutu dozuna, Pruden, eta esan bearrean naz usainmen ertzainkorrekoa zareala, bai benetan...!

Gero, estalkitik billo-galparra atara, eta auxe esan eustan:

– Biar bertan gure kimi-azterlariari emongo dautsat, emen gordeten dogun galparrarekin erkatzeko, eta ezagulari orren txostena ezaguturik, gure egitekoa atonduko dogu.

Andik egun bitara, Satur'en urrutizkin-deia artu neban. Urduri zirudian auxe iñostala:

– Zatoz ona lenbailen, Pruden, barriak dodaz zuretzat.

Arrapalada baten bertaratuta, laster nengoan bere aurean, eta jesarri neinten aginduta,

– Eguberdiaren artu dot kimilariaren txostena.

– Eta...?

– Bizartegian zeuk jasotako Niki'ren billo-galparra, eta Txomiñ'ek errotako iltzailleari erauzitakoa, gizon berberarena dira.

Nire poza jabetu eziñik, jagi nintzan eta Satur besarkatu neban.

– Izan be, Pruden –esan eustan–, lortutako arrakasta zure aalegiñari zor dauzagu, eta gaur esan dagiketsut lenengoz, eskuan dogula, Niko espetxeratuko dauan egiztapena. Aztertu dagiguzan orain, salakuntzea egiteko emon bear doguzan legezko urratsak.

Une batez, bere baitan bilduta iraun eban, eta,

– Lenengo ta bein –esan eustan–, bearrezkoa da Niko'ren aurkako salakuntza bat egitea auzitegian, eta epaikariak aintzakotzat artu dagian, benetako egiztapenak aurkeztu bear doguz. Au dala-ta, eraildakoen senitartekoa zarean aldetik, salakuntzea egingo dozu, arein lobe ta legegizona zaitugulako. Au da, sendiko salataritzat jokatu dozu, orretarako gerturik bazagoz-eta. Egiteko au onartzen ez ba'dozu, beste legegizon batek egiteko ori bere gaiñean artuko dau. Orain, beraz, erabagi bear ko dozu senitartekoen salataritzat jardutea onartzen dozun ala ez.

– Zer deritxazu orreri, Satur...?

– Alde batetik, legegizontzat ez dozu iñongo jardunik izan, baiña bestetik zuurtzat zaitut, eta gaiñera, beste iñork baiño obeto ezagutzen dozuz Errotazar'en jazo zan sarraskiaren gora-beerak, eta areago eraildakoen lobe zareana kontuan arturik. Auzia ospatzekotan, beraz, salatarri edo fiskal bi izango dira; auzitegiak izendatuko dauan legezkoa, eta zeu sendiko salataria. Esan bear dauzute, salaketaren zatirik garrantzitsuena, zeuk leporatuko dozula, eta auxegaitik zure burubideak ondo landuta aurkeztu bear izango dozuz. Onezaz gaiñera, azken aldiotan Niko gizon garrantzitsu ta aberatsa billakatu dan ezker, uriburu onetako aldeze edo jagolerik onenatariko bat bere aukeran izango dau, eta auzitegitik, gora-beera guztiak ardurarik andienaz aztertu bear izango dozuz, aren burubideak ezerezteko.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Erabagi bear dozu, beraz –esan eustan–, jardun ori onartzen dozun ala ez.

– Ebatzi aurretik, Satur, zer egingo zenduke nire lekuan...?

– On-gaitzak kontuan arturik, baietz esango neuke.

Une luze batez arazoaren gora-beera guztiak ausnartu nebazan, eta gero mintzo ezpaitsuaz,

– Zure eritxia orixe dan ezker, baiezkoan nago.

– Ederto, Pruden, ziurtzat daukat ondo jardungo dozula. Orduan, sendiko salataritzat, dagokizun salakuntza aurkeztea zure lenengo urratsa izango da, eta au sendotzeko, sarraskiaren gabea, eraillearen abotsa Niko'rena zala autortuko dau Txomiñ'ek. Zeuk be baieztuko dozu, goiz aretan zure osaba-izekoe erailletzat, Niko'k bere burua autortu ebala. Gero, autorpenik beiñena etorriko da, ots: ertzaindegiko kimi-azterlariaren txostena diñoanez, zeuk bizartegian jasotako Niko'ren ule-galparra, eta sarraskiaren egunetik ertzaindegian gorde izan dan Txomiñ'ek erailleari erauzaitakoa, gizaki berberarena dira, eta beraz, iñongo zalantza barik Niko gau aretako erailletariko bat dala.

Isildu zan zati batez, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

– Oneik izango dira gitxi gora-beera, aurkeztuko dozun salakuntzeari indartuko dautsoen egiztapenak.

– Ederto, Satur, noiz atonduko dogu dalako salakuntza...?

– Biar bertan, ondo baderitxazu.

– Ondo da, biarrarte ba.

Biaramoneko arrastian, Satur'en gelan arazoari emon geutsan, eta gau-berandutxuan, auzitegian aurkezteko gerturik billakatu zan. Urteteko zorian nintzala, ertzaiñak,

– Gura ba'dozu –esan eustan–, neronek lagunduko dauzute auzitegira.

– Oba ez...! –erantzun neutsan eskerronez–. Olan ez dot asti luzerik galduko.

– Arako ordurik egokiena eguberdiaren izan oi da.

– Amabi-amabitan emen izango nozu.

Urrengoa egunean txanda-epaikariagana joanda, onek bereala abetaldu ginduzan, eta laster ikusi aal izan neban, Satur etxeko andia zala, eta epaikariak lege andia eutsala. Nire aurkezpena egin ondoren, Satur arazoaren mamia joan zan, eta bion artean guztitariko zertzeladak emon geutsazan. Amaitu genduan, Satur'ek,

– Epaikari Jauna –esan eustan–, ikusi dozunez, arazoa oso garrantzitsua da.

– Bai, gomutan dot sarraski izugarri ori. Bere garaian asko mintzatu zan-eta.

– Txostena irakurri ondoren –esan eutsan Satur’ek–, gurekin bat ba’zentoz, auxe eskatuko neuskizu begirunerik andienaz: astirik galtzeke eta badaezpadako igesa eragozteko, gaizkillearen baiturea agindu da-gizula. Salakuntza onezaz gaiñera, bala-bala dabil bazterretan, drogalaritalde bateko burua dala. Epaikari Jauna: bene-benetan diñotsut gizon ori gaizkille amorratua dala, eta ziur naz, erabagi dozuna erabagi dozula, zuzentasunaren alde izango dala. Agur, Jauna.

– Agur bioi. Txostena ardurarik andienaz irakurriko dot, eta legezkoa ba’deritxat, bada-ezpadako baiturea aginduko dot dalako Niko’re n aurka.

Epaitegitik urtetea,

– Aizu, Satur –itaundu neutsan–, zer jazoko da, epaikariak Niko’re n baiturea erabagiten ba’dau...?

– Agintza ori ertzaindegian artu baiño ez, bereala giltzapetuko dogu.

– Eta gero...?

– Aspaldi baten ostean auzia ikusiko da, baiña onen aurretik, salatuaren legegizonak guztitariko aukerak izango dauz, gure salakuntzea irakurteko, eta Niko doillorrarekin guztitariko arremonak izateko. Edozelan be, ondo tinkotu auxe gogoan: eraille orren aldezle edo jagolea, aurkitu daiteken onenatarikoa izango dala. Niko sartuta dagoan ustelkeri edo “mafia” orretan badabez guztitariko tresnak eta bideak onik urteteke, diruaren eragintza andia dalako. Ez aztu ori, beraz, eta aalegindu zaitetz zure egitekoa ondoen atontzeko.

– Bildur naz, Satur, bear dan maillakoa ez izatea.

– Asiera baten, baleiteke; ziur naz, baiña, aldiaren bidean zure egitekoa ondo bai ondo beteko dozuna.

Eskerronez begiztatu neban, eta andik laster banandu gintzazan, otordua zan-eta. Etxera eldutakoan, ama jakiñaren gaiñean ipiñi neban, eta alkarrizketa luze baten ostean bere arrenkurak baretu neutsazan. Niko zala-ta, ama bildur zan kalteren bat etorriko ez ete litzakidan, baiña ertzaintzak etxekoen eraillea laster giltzapetuko leukela burutara emon neutsanean, bere oiko zerera biurtu zan.

Astebete bat inguru igarorik, ertzaindegira joateko mezua igorri eustan Satur’ek, eta araturik,

– Poztu zaitetz, Pruden –adoretsu esan eustan–, atzo gabean epaillearen aginduari jarraituz, ertzain bik lagunduta Niko’re n etxera joan, eta baitu neban. Orain, uri onetako espetxean bada-ezpadako baituran itxita dago auzia ikusi arte. Orduan, dagokion epailleak, errudun dan ala ez erabagiko dau.

– Eta...?

– Errubakoa dalako epaia artzekotan, bereala aske jarriko dabe.

– Eta ostantzean...?

– Orduan epaikariak zigortuko dau, eta nire ustez bizitza guztirako espetxaldia izango da.

– Zelan jokatu eban Niko’k baitu zenduanean...?

– Ia zergaitik alako iraiña egiten yakon itaundu eustan oi u bizitan. Nik, baiña, ez nekiala ezer, epaikariaren agindua zala erantzun neutsan. Berebillera sartu genduanean, bein eta barriz auxe iñoan: Baten batek augaitik ordaindu bear izango daust, bai orixe...!

– Eta orain...?

– Baiturea baldintzabakoa izanik, espetxean jarraituko dau epaia ikusi arte. Zeozer barririk jazoko ba’litz jakiñerazoko daust.

– Noiz ikusiko da auzia, gitxi gora-beera...?

– Ori epaikariaren eritxian datza, baiña bataz beste, illabete bi edo iru igaroko dira.

Etxera biurtzen nintzanean poz baten niñoan. Noizbait, osaba Martin eta izeko Edurne’re n eraille nagusiaren zigorra urrats jarki-eziñaz urreratzen zan, eta onezaz gaiñera, gizarteari kalte egiteko gaizkille bat gitxiago...

Andik iru astebetara-edo, auzitegira joateko deia artu neban, eta idazkari batek auzi-laburpena niri eskuratu ondoren, epaillearen izena, baita salatuaren legegizonarena be jakiñerazo eustazan. Eratxitako agiri baten irakurri neban, auzia illabete biren barruan ospatzeko zala. Jarraian, Satur’egana joan nintzan, eta jakitun ipiñi neban. Auziaren laburpena astiro ta arduratsu irakurri ondoren,

– Azalpena argi ta garbi alderdikieririk bage egiña da nire ustez. Iku-si dagiguzan orain beste zertzeladak

Epaikaria ta salatuaren legegizona nortzuk ziran irakurtean,

– Zenteilla...! –didar egin eban– Ainbeste epaikarien artean Eustaki

Jauna izan bear be...! Biguntxu ta erabetia da, baiña txarrena –jarraitu eban– ez da ori, jagolea nor izango dan baiño. Mikel, ezizenaz “Galtzerdia”, legegizon amarrutsu, berbalapiko, eta agobero porrokatua. Onentzat, auzitegia antzoki utsa da bera antzekilari nagusitzat agertzen dala, berba arranditsuakaz guztitariko ganorabakokeriak jaurtiz. Aingira bai-zen irristakorra, burutapen ariñekoa da. Zuretzat arerio gogorra, benetan, kontuan arturik batez be, gazte ta iñarkunbakoa zareana.

Izan be, ez yatan atsegin Satur’ek orren eritxi ezaiña izan egian nirekiko, baiña egia zan iñostana, adiskide zintzo ta zuzena zan aldetik. Bereala, baiña,

– Barkatu egistazu, Pruden –mintzo damutsuz esan eustan–, ain gogorra izategaitik. Nire ustez ondo jardungo dozu, bai “Galtzerdia”ren aurrez-aurre bai edozeiñen aurka be, zeure zentzunari buruz, usterik onena daukat-eta. Baiña auxe bai, nai izango neuke: ardurarik andienaz atondu dagizula zure egitekoa, neurtzeko dozun laguna gaberdiko auntzaren-estula ez da-ta.

Etxera biurtzean, aurkako oarpen bik menperatuta nengoan. Batetik Niko’reu auzia noizbait ospatuko litzakela, eta bestetik neu lako iñoiz ez jardundako legegizon salatari batek zelan jokatuko leuken. Lenengoa pozagarria ba’zan, bigarrenak zalantzaz bete ninduan, baiña nire buruari zin egin neutsan zeatz guztiak ondo baiño obeto atonduko neukezala.

Onen ostean, auziaren gora-beera guztiak ardurarik andienaz aztertzen nebazala, egunen jarraigo geldieziña aurrera joian, eta noizbait, auzia ikusteko eguna eldu zan. Aurregunean, auziak iraun bitartean, aretoan egongo litzakela esan eustan Satur’ek, eta nire aukeran, beraz, edozertarako.

Legezko salataria ta biok aurretiaz bat etorri gintzazan, neuk eroango neukezala salakuntzaren ugalak, sendiko salataria izanez gaiñera, eraildakoak osaba-izekoak nebazalako. Olan ba, legez izendaturiko salatariak iraizean edo azalez bakarrik jardungo leuke, neugan izanik salakuntzaren eraso nagusia. Auzia ondo bai ondo aztertu izan neban, eta onen ondorioz, nire burubideak Txomiñ’en eta nire autorpenean oiñarrituko litzakez, aztu egin barik, kimilariaren txostena arazo aren zeatzik garrantzitsuena zala.

Auzia amabietarako dei egiña zan, eta ordu orretan aretoko atea edegita, jendea sartzen asi zan, Ibarreta’ko ezagun batzuk, bi-edo izparkari, eta oiko barri-gurak izanik. Bataz beste amabost bat lagun. Epaikaria agertu zanean, idazkariari auzi-laburpena irakurteko agindu eutsan, eta danok jesarrita gengoanean, irakurpena asi zan.

Gora-beera oneik ondo ezagutzen nebazan ezkerre, bitartean aretoko jendea aztertu neban. Epaikaria, Eustaki Jauna, aurpegi gorritzako gizon lodikotea zan, ontasuna alde guztietatik eriola. Beeragoko aulki baten Niko ta bere jagolea jesarrita egozan. Nire etxekoen erailleak itxura ez-kibela erakusten eban, noizbeinka begi asarrekoiak niganantz zuzenduta, sastakaitu gura bai’ninduan. Iru illabete laster izango ziran giltzapetua zala, eta aurpegiko larmintz baltzarana zurizkatzen asi izan yakon. Jantziki ta paparreko bikaiñak erabillezan, epaikariari zarrastada ona egitearren, antza. Bere jagolea, berrogei ta bost urteko gizon sendo ta itxura onekoa zan, eta au agirian ipinteko, ederto jantzita, dotoreegi nire ustez. Bere burua ederresten dakien orreitarikoa emoten eban dalako Mikel’ek, Niko’reu jagoleak. Ikusleen artean Txomin eta Sabiñe ikusi nebazan, euren autorpena emoteko gerturik.

Txostenaren irakurketeak ordubete bat iraun eban, idazkariak astiro

ta arrandiz ziardualako, bere egitekoari garrantzi betea emotearren, antza. Amaitu ebanean, ordu bata igarota zan, eta txilin-jote zaratsuz, urrengo egunerako geroratzen zala auzia, iragarri eban epaikariak, goizeko amarrak arte, izan be. Txomin eta Sabiñe kanpotik etorriak ziran ezkerro, etxera eroan nebazan amaren pozerako, Errotazar'eko zerbitzari-oiak benetan ederresten ebazan-eta. Auziak iraun bitartean ostatua gurean izango eben. Aukeran bizi izaten ziran orain baserriko etxe txukun aretan, eta nirekiko eskertsu azaltzen ziran, ain egoitz atsegiña emonagaitik.

Biarmoneko amarretan auziak jarraitu eban, eta epai-maia eratu zanean, epaikariak niri zuzenduz,

– Sendiko salatzaileak bere txostenari asiera emon dagiola.

Latz-ikara batek jabetuta, jagi nintzan, eta urruma ariña egiñik, onetaraxe mintzatu nintzan, aretoko zabalunean zear batetik bestera ibilli nenbillela:

– Epaikari Jauna, eta Jaun-andreok...

Eta jarraian, gau aretan Errotazar'en jazoriko sarraskiaren gora-beerak asieratik azkeneraño edestu nebazan, iltzailleak bi izan zirala aipatuz. Une onetan, epaikariak eten egin eustan auxe itauntzen eustala:

– Zelan daki salatari Jaunak, sarraskia egin ebenak gaizkille bi izan zirala...? Ertzaintzaren azalpenean zeatz ori ez da agertzen...

– Ara... erailketea igaro ta urtebete batera-edo, eragin bakan batek utsik egoan errotara bultzatu ninduan. Aldi aretan, begien gatx batek jota itsu aurkitzen nintzan, eta aita-semeak ziran erailleen atzaparretan billakatu nintzan. Ustekizun zaar batek diño, txulut egindako erailleak gaiztakeri-lekura biurtzen dirala beti, eta egun aretan, ni baiño lenago iltzaille areik biurtu izan ziran, erailketa-gabean aurkitu ezin eben nire izekoaren arribizia edo diamantea, orain idorotearren...

Jarraian, goiz aretan jazorikoa aalik eta zeatzen edesten asi nintzan. Ordubete luze bat igarota gero, berba oneikaz amaitu neban nire azalpena:

– Aita-semeak ziran eraille areik, billatzen eben bitxia idoro aal ez izateak, zoratu egin ebazan, eta orduan semeak aitari esonatu (proposatu) eutsan ni erailtea, baiña onek ezetz, ertzaintzaren azterketa bat ekarri legikealako. Andik urten aurretik, baiña, semeak kate bat az buru-aurpegitan zauri izugarria egin eustan, eta kordebagetu nintzan.

Ona elduta, epaikariak ogei miñutuko etenaldia iragarri eban, eta igaro zanean, jarraitu nengiala agindu eustan.

– Bai, Jaun-andreok, nire senetara etorri nintzanean –jarraitu neban–, iñoiz ez ezaguturiko beste burukomiñak zoratuta, alboka nenbillela Ibarreta'ra laguntza-eske abiatu nintzan, amorru biziak artuta nire buruari zin egiñez, ez neukela atsedetik artuko, erailleak auzitegira eroan arte, eta orra or gaizkille nagusia epaikari baten aurrean dagoala...

Suge batek ziztatu izan bai'litzan, "Galtzerdi", Niko'ren jagolea jagi zan, eta mintzo indartsuz,

– Epaikari Jauna, ostera egiten dot. Egiztapen benetakoa azaldu arte, nire bezeroa errubakotzat artu bear da.

– Osterea onartzen da. Salatari Jaunak jakin bear dau, epaitu baiño len, edozein salatua errubakotzat artu bear dala. Orain, jarraitu dagiala salatari Jaunak.

Barrero be nire azalpenari jarraitu neutsan. Niki'ren nire aurkako eraso Txomiñ'en etxetik urteteaz azaldu neban. Gero, il zanean, abotsaz zelan oartu nintzan obitegian, Niko zala goiz aretan Errotazar'en berba egin eustana. Onen ostean, nire kuku egitearen ondorioz, bizartegian Niko'ren ule-galpar bat az jabetuta gero, ertzaindegian gordeten zan Txomiñ'ek erailleari erauzitakoarekin bekaldetuta, gizaki berberarena zirala azaldu eba kimia-azterpenak.

– Onen ostean –jarraitu neban–, argi egoan Niko nire osaba-izekoen erailletariko bat zala, eta legeak emostazan bideak ustiatuz, ona emen auzitegi onetan, dagoala berak egiñikoaren erantzuna emoteko, eta ziur naz, epaiketa au amaitzean nire etxekoan erailletzat zigortua izango dala. Besterik ez, Jaun-andreok.

Ona ezkerro, naikoa berandu zan, eta epaikariak egun aretako jarduna amaitutzat emon eban, berba oneikaz:

– Biar, goizeko amarretan lekukoai itaunduz, auzi oneri jarraipena emongo dautsagu.

Urteteaz, Satur alboratu yatan, eta irribarretsu,

– Ederto, Pruden –esan eustan–, ondo bai ondo jardun dozu gaurko ekitaldian. Izan be, ez neban somatzen orren izlari bikaiña zintzazanik. Ain argi ta zintzo mintzatzuz entzuleak lilluratu dozuz. Edozelan be, burutara emon bear izango dautsazu epaikariari, errotan jazo zanaren egi-ilea, Niko dala.

- Aaleginduko naz, Satur.
- Ez uste erraza izango danik. Biar “Galtzerdi” ezagutuko dozu bere saltsaren erdian, eta orduan oartuko be, zein amarrutsua dan.
- Aizu, Satur zergaitik esaten dautsoe “Galtzerdi”...?
- Ara... –barrez erantzun eustan–, dalako legegizon orrek berbetan diarduanean, noizik beiñean gelditzen da, eta prakabarrenak jasorik, galtzerdiai teinkada batzuk emoten dautsez gorantza. Miin gaiztoek diñoenez, bere aztalaren edertasuna erakusteko-edo...
- Barre egin genduan gogoz, eta andik laster,
- Agur, Pruden –esan eustan–, ia biar gaur beste ondo diarduzun. Bada-ezpadan, kontuz ibilli, areriotzat “Galtzerdi” erdipurdiko gizona ez da-ta.
- Gogoan izango dot ori. Biarrarte, Satur.
- Urrengo egunean, jardunaldia asten zanean, epaikariak niri zuzenduz auxe aldarrikatu eban:
- Salatari Jaunak lekukoak aztertu dagikez.
- Jagi nintzan, eta Txomiñ’eri dei egin ondoren, lekukoen aulkian jesarri zanean,
- Entzun, Txomin Jauna: zeuk Errotazar’en ziarduan, sarraskia jazo zanean, ezta...?
- Bai, Jauna.
- Ezagutzen dozu or jesarrita dagoan salatua...?
- Bai, Jauna.
- Zerez ezagutzen dozu...?
- Nire ugazabak, erriko etxegille bateri, erabilten ez zan errotan barriztapan bat egitea agindu eutsan, eta lan onetan ziarduenetariko bat, or jesarrita dagoan Niko zan.
- Azaldu nai dozu, Txomin Jauna, erailketaren gabean jazo zana...?
- Ara... goizaldeko lenengo zatia izango zan, didar antzeko batzuk ugazaben gelatik entzun nebazanean, eta gero soru-gaiñetiko gauzen narraztea be. Arin baten jagi, eta ugazaben gelarantz oldartu nintzan. Une aretan gela aretatik Niko urten zan, eta ni ikustean, eraso ninduan sastakada batzuk jaurtiten eustazala. Luzaro barik, konortea galduta zurubiko goikaldean amildu, eta gero ez dakit noiz, geisotegian itxartu nintzan.
- Aizu, Txomin Jauna –itaundu neutsan–, ilteko zorian jausi aurretik, zelan dakizu erasotzaillea or dagoan Niko zala...?

- Abotsaz, Jauna. Sastakatzen ninduanean, abopeka auxe iñostan: “Ilgo zaitut, morroi kokoloa, jakin-gura ta saskel ori...”
- Orduan, epaikariaganatz biurtuta,
- Jauna –esan neutsan–, ez dot beste itaunik egingo.
- Une aretan, “Galtzerdi” jagi zan, eta,
- Epaikari Jauna –esan eutsan–, lekukoari itaun batzuk egin gura dautsadaz berorren baimenaz.
- Aurrera, jagole Jauna.
- Mikel, Txomiñ’en aurrean jarrita, eta zorrotz begiratzen eutsala, mintzo trumoitsuaz.
- Aizu, erasotzaillea oldartu yatzunean, aurpegiz ezagutu zenduan...?
- Ez, Jauna. Leku aretan argia motela zan.
- Abopean berba egin eutsun, ezta...?
- Bai, Jauna.
- Bildur izango zintzazan une aretan, ezta...?
- Bai.
- Orduan, legegizon jagolea batetik bestera ibilliz, eta epaimaiari zuzenduz,
- Orra or –abots trumoitsuaz jaurti eban–, guzurra darion lekukoaren baieztapena...
- Tximistaren antzera jagi, eta eten egin neutsan onetaraxe:
- Epaikari Jauna, ostera egiten dot. Jagoleak ez dau ezetariko esku-biderik esateko, lekuko aren azalpenari guzurra dariola.
- Osterea onartzen da. Jagoleak ez dau lekukoa aurretiaz guzurtitzat artu bear.
- Barkatu, epaikari Jauna –itxura apalaz esan eutsan “Galtzerdi”k–, baiña lekukoak aurtortu dauana, niretzat ez da siñisgarria, erasotzaillea ezagutzeko argi motela zalako, berak autortu dauanez. Baiña izupean izanik, eta besteak abopeka itz egin arren, ondo bai ondo ezagutu eban norena zan mintzoa...
- Ona elduta, jagolea isildu zan, eta praka barrena jasorik, galtzerdi orlegi bateri teinkada batzuk emon eutsazan gorantza. Izan be, legegizon aren aztalak irudigille baten ederrespena merezi eban. Gero, batetik besterako ibiltari jarraituz,
- Argi dago, beraz, Jaun-andreok, izututa dagoan batek ezin dagike-

ala ondo bereiztu, abopear esaten yakona. Onen ostean ez dot besterik itaundu bear.

Txomin joan zan asarre ta buru-makur, eta orduan Sabiñe, bere emazteari dei egin neutsan lekukoan aulkira.

Nire itaunai erantzunez, gau izugarri aretan berak jasanikoa edestu euskun. Izan be, ez eutsan argi andirik emon errotan jazotakoari. Alde egin baiño len,

– Aizu, Sabiñe –itaundu neutsan–, zure senarra Txomin, entzumen onekoa al-da...?

– Bai, benetan.

Abopear esaten yakonari entzuteko beste...?

– Baita urrundik be.

– Besterik ez, Sabiñe.

Au bere lekura biurtzen zala, “Galtzerdi”ren abotsa aditu zan auxe ino-ala:

– Jakiña, emazte batek beti senarraren alde esan bear. Nire aldetik uko egiten dausat lekuko oneri itaun egiteari.

Eta beste teinkada bat galtzerdiari emonez, bikain eta arranditsu bere aulkira biurtu zan.

Bitartean, berandu samar egin izan zan, eta epaikariak urrango egunerarte geroratu eban auziaren jarraipena.

Urrango eguna, nire ustez garrantzi andikoa zan, kimi-azterlariaren txostena irakurriko zalako, eta zertzelada onetan zetzan salakuntzearen indarra. Augaitik, beraz, urduritsu nengoan morroi batek entzunaldiaren jarraipena aldarrikatu ebanean. Gure tokietan egokitu gintzazanean, epaikaria niri mintzatuz,

– Salatari Jaunak jarraitu begio bere jardunari.

Kimilariaren txostena atara, eta irakurten asi nintzan. Onetan, eza-gulari baten berbakaz, bizartegian neuk Niko’ri artutako ulegalparra, eta Txomiñ’ek sarraski-gabea erasotzailleari erauzitakoa, gizaki berberarena zirala baiezten zan. Irakurketea amaitu zanean, “Galtzerdi”k destai-ñezko itzakaz,

– Zelan ziurtatu –asarre antzean esan eban–, bizartegian jasotako galparra Niko’rena zana...? Arazo orretan ez dakigu zelako amarrua sartu daiteken...

– Epaikari Jauna, zeure baimenaz, legegizon jagoleari baretasuna biurtzeko, kimi-azterlariari itaun batzuk egingo neuskioz.

– Aurrera, salatari Jauna.

Ertzaindegiko kimi-azterlaria lekukoan aulkian jesarri zanean, eta oiko egitasun-ziña emonda,

– Aizu, kimilari Jauna –esan neutsan–, dirudianez, jagole Jauna arrenkura bizipean dago, eta nasaitu daiten, azaldu nai dautsazu areto oneri, zelan egin zan azterketa ori...?

– Ara... bizartegitik etorritako galparra ertzaindegian aspalditik gordeten zanaz kimi-azterketea eginda, gizaki berberarena zirala egiztatu genduan. Niko giltzapetu ebenean, bada-ezpadan ertzaindegitik espetxera aren ule-galpar bat eskatu genduan, eta andik bialdu euskuenean, beste azterketa bat egiñik, ostera be gizaki berberarena zala azaldu zan. Esan bearrean naz, gaiñera, bigarren ule-galpar au espetxe-buruaren egiztapien-agiri batekin, etorri yakula. Ez dago iñongo zalantzarik, beraz, or jesarrita dagoan salatua, gau aretan Txomiñ’eri eraso eutsana dala.

Agiri zan aretoan, kimilariaren azken itzok zarrastada andia egin izan ebela. Danok isil-isillik egozala, ustekabez, “Galtzerdi”ren abots in-dartsua aditu zan onetaraxe:

– Epaikari Jauna, emen gizaki zintzo baten etorkia galtzorian dago, eta zeu gizon arteza ta argia zarean ezkerro, auxe eskatzen dautsut: galpar biok ikusten laga dagistazula.

– Legezkoa da ori. Ekarrri begiez ona eskaturiko billo-zatiak.

Ertzain batek ekarrri ebazan plastikozko zorrotxutan gordetako galparrak. Oneik ikustean, “Galtzerdi”k didar bizitan,

– Somatzen nebana –oiuka esan eban–, galpar oneik ez dira bardiñak...! Begira, epaikari Jauna, bata bestea baiño zurixkagoa da...!

Tximistak eraginda lez jagi, eta neuk be oiuka:

– Lelokeri utsa, jagole Jauna...! Argi dago, galpar bi orrean artean urtebete bi baiño geiagoko alde dagoala, eta azken urtebete bi orrean bitartean, Niko’ri ulea urdindu egin yako...!

Olan eta guzti, baiña, “Galtzerdi” ez zan kikildu, eta,

– Epaikari Jauna –eskatu eban–, zeure baimenaz, kimilariari zeozer itaundu nai neuskio.

– Baimena emonda, jagole Jauna.

- Aizu, kimilari Jauna, zeuk egindako azterketea utseziña al-da...?
- Nire ustez, bai, Jauna.
- Orduan laterri onetan azterbide ori utsezintzat artua izango da.
- Ez dakit, Jauna.
- Ez dakizu laterri onetako legeetan onartua dan ala ez, eta auzi onetan areto onek onartu dagiala gura dozu...? Olako azarkeria...!

Ertzaintzako azterlaria, zer esan ez ekiala geratu zan. Onen arrenkurea ustiatuz, “Galtzerdi”k errukibarik eragon eutsan, auxe iñotsala:

- Ez dakizu, dalako kimi-azterpena laterri onetan benetakotzat artu izan dan ala ez. Esan: beste laterrietan, Englanderria’n, Doixland’en, Prantzia’n, edo USA’n onartua izan al-da...?

– Nik al dakit...!

Orduan jagi nintzan, eta,

- Ostera egiten dot, epaikari Jauna –asarrez esan neutsan–. Nire lekuko orrek, ez dau beste laterrietako legeak zertan ezagutu bear. Egiñiko itaun ori amarru utsa da.

– Onartzen da osterea. Jarraitu begi itaunketea jagole Jaunak.

- Epaikari Jauna, uko egiten dausat kimi-azterlari orreri itauntzen jarraitu. Orain “Kimilan” baltzuko ezagulari baten autorpena eskatzen dot. Aurkeztu bedi Alex Jauna.

Berrogeitsu urteko gizon txiki ta ondo jantzia azaldu zan, eta oiko ziñ-itzak esanda, jesarri zanean,

- Aizu, Alex Jauna –itaundu eutsan Niko’reñ jagoleak–, “Kimilan” baltzuko kimi-azterlari onenatarikotzat dei egiten yatzu auzi onetara. Itaunduko dautsudana beiñenatarikoa da, gizon zintzo baten etorkia orretan datzalako. Esan, Alex Jauna: ziurtzat edo utsezintzat artu daiteke gaur billoen kimi-azterketea, gizaki baten nortasuna epaitzeko...?

- Asko mintzatu ta idatzi da orreri buruz, jagole Jauna, baiña ondiñokarren, azterketa ori ezin daiteke utsezintzat artu...

Ona elduta, Alex azterlaria Niko’reñ diruaz erosiriko izango ez ete, gogora etorri yatan, eta arrapalada baten, eskura neban txataltxuan auxe idatzi neban: “Satur, ziurtatu zaitez, “Kimilan” baltzuak billo-azterketak iñoiz egin dauzan ala ez”. Ertzaiñagana urreraturik emon neutsan, eta au ostentzen zanean nire lekura biurto nintzan. Une aretan “Galtzerdi”k,

- Orduan Alex Jauna –kimilariari iñotsan–, zeure aburuz ezin daite-

ke azterketa ori ziur-ziurtzat artu, gizaki baten nortasuna zeazteko, ezta...? Ezagutzen al-dozu azterpen ori utsezintzat artu dagien Europa’ko edo Ameriketa’ko laterririk...?

- Ez, Jauna, ez dodaz ezagutzen. Badirudi aspaldi batez Europa’ko laterri batek onartu ebal, baiña dirudianez, dalako laterri orretan orain ez dago indarrean.

– Zergaitik...?

- Badirudi azterketa ori dala-ta, errubako bat giltzapetu izan zala.

Orduan, galtzerdiari gorantzako teinkada bat emonez, itxura arranditsuaz Niko’reñ jagoleak auxe esan eban:

- Onen ostean, epaikari Jauna, alperrik da kimilari jakintsu orreri beste itaunik egitea.

Alex Jauna aulkitik jagi, eta duintasun-itxuraz jende-arteko lekura biurten zanean, auzitegiko morroi batek txataltxu bat eskuratu eustan, eta auxe irakurri neban: “Kimilan” baltzuko nagusiak urrutizkiñez diñost, ez dabela iñoiz billoen kimi-azterketarik egin”. Au irakurri baiño ez, jagi nintzan eta epaikariari,

- Jauna –eskatu neutsan–, oraintxe bertan lekukoen aulkia itzi dauan Alex kimilariari zeozer itaundu gura neuskio.

– Biurto bedi Alex Jauna lekukoen aulkira.

Jesarri zanean, eta aurrez-aurre begietara so egiten neutsala:

- Alex Jauna –zorrotz esan neutsan–, legegizon jagoleak esan dauskuanez kimilari jakintsua zara, eta nik neuk ez dot zalantzan ipiñiko, baiña jakin-barri dot “Kimilan” deritxan zure baltzuak, billo-azterpenik ez dauala iñoiz egin. Zelan daiteke, beraz, billo-azterketan ezagularitzat areto onetara azartu zaitez...?

Aurpegia errauskara biurten yakola, Alex’ek aulkitik amiltzeko zorian emoten eban, eskuak dardar biziak artuta. Orduan, baiña, irmo ta ozen “Galtzerdi”ren mintzoa aditu zan:

- Ori baiezipen zentzubakoa da. Gaurregunean ezagulari edo tekniku askok, lantegiz kanpoko jardunak artzen dabezala danok ondo dakigun gauza da. Orren zergaitira ez dagokit sartzen, baiña olan da.

Asiera baten, berba barik geratu nintzan, jagolearen aitzi-erantzun orren ariña ez neban itxaroten-eta. Laster, baiña biurto nintzan nire oikora, eta,

– Alex Jauna –itaundu neutsan–, legegizon jagoleak ziurtatu daukuana ez dakit egia dan ala ez, baiña zeu “Kimilan”eko ezagularitzat azaldu zara areto onetan, eta baltzu orren nagusiak, oraintxe bertan urrutizkiñez jakiñerazo dauanez, ez dabe iñoiz billo-azterketarik bat bera be egin.

Isildu nintzan une batez, eta gero danbada baten arintasunaz,

– Ez dirudi, beraz, billoen kimi-azterketa zeuk ondo ezaguturiko alorra danik. Zelan azartu zara, beraz, bereiztasun ori ondo bai ondo ezagutzen dauan ertzaintzako kimilariaren txostenari aurka egitera...?

– Billoen kimi-alorra polito ezagutzen dot, “Kimilan”eko jardunaz kanpo, nire kabuz lan egin dodalako.

– Ondo ezagutzen dozu, beraz, billoen kimi-alor ori, ezta...?

– Baietz esan bearrean naz.

– Azalduko dautsazu areto oneri, zertan datzan dalako kimi-azterketa ori...?

Suge batek ziztatua izan bai’litzan, “Galtzerdi” jagi, eta abots trumoitsuaz,

– Epaikari Jauna, ostera egiten dot –oiu egin eban–. Alex Jauna lako jakintsu bateri azalpen ori eskatzea, lotsagarria da. Zeu be, Pruden Jauna, legegizon zarean aldetik, gaur agertu zara, baiña iñori ez yako otu zeuri itauntzea, noraiño ezagutzen dozuzan legeak azaldu dagizula. Izan be, Alex Jaunari eskatzen dautsazuna geiegikeri apalgarria da, eta augaitik, epaikari Jauna, indar guztiakaz ostera egiten dot.

Isillune laburraren ostean, epaikariak,

– Osterea onartzen da. Gorde dagiala salatari Jaunak lagun-urkoari zor yakon begirunea.

Asarre baten entzun nebazan epaikariaren azken itzok, eta auxe esan neban pipertuta:

– Ez dot beste itaunik egingo.

Barrutik irakiten oartzen nintzan. Epaikari kokolo aren sasi-ontasunak, ez eban besterik estaltzen lelokeri utsa baiño. Alex kimilariak azaldu bear izan ba’leu, zelako bidea erabillen billo-azterketea egiteko, estuta larri ikusiko eban bere burua, eta nire itu edo elbururako lagungarria izango zan. Aukera au galdu izateak nire onetatik ataraten ninduan.

Epaikariak ordu-lauren bateko etenaldia agindu eban, eta auzia birrasi zanean, auxe esan eban:

– Salatari edo jagole Jaunek, lekukoren bat itaundu nai dabe...?

– Bai, Jauna –esan neutsan–, salatua bera itaundu gura neuke.

– Niko Barea Jauna, lekukoren aulkira joan daitela –agindu eban epaikariak–.

Gogo txarrez jagi zan gaizkillea, eta oiko zin-itzak eginda jesarri zanean,

– Entzun egistazu ondo, Niko Barea Jauna –esan neutsan–, egon ete zara iñoiz Errotazar’en...?

– Bai.

– Zertarako...?

– Orduan, Ibarreta’ko etxegille batenean lan egiten neban.

– Zelako jarduna zenduan...?

– Arotza nintzan.

– Zein luzaro jardun zenduan errotan...?

– Illabete bi gitxi gora-beera.

– Ezagutu zenduan, beraz, errotako ugazabak, Martin eta Edurne.

– Bai alabearrez.

– Bazenekian, Edurne nire izekoa, arribizi edo diamante bikain baten jabea zanik...?

– Bai, zeozer entzun izan neban, baiña gauza andiririk ez.

– Aizu, Niko Jauna, itsu nintzaneko goiz aretan zeuk eta Niki’k zure semeak errotan arrapatu ninduzuenean, zertara joan zintzazan errotara...?

– Lana amaitu zanetik, ez nintzan errotara biurtu.

– Ez zintzazan biurtu, sarraski-gabean ezin idorotako arribiziaren bila...?

– Ez. Badiñotsut ostera be, ez nintzala biurtu errotara.

– Ez dozu gomutan, errotan zuen atzaparren artean nengoanean, ilketa izugarriaren gora-beerak zelako oztasun zoroaz edestu zeustazan...? Eta onen ostean, zure seme Niki’k ni erailtea eskatu eutsunean, zeuk orduan ezetz, alperrikoa izanez gaiñera, ertzaintza erakarri legikeala...? Baiña orren orde, zure semeak katekada izugarri bat az buru-aurpegiak gurutzatu egistazan, laga zenduan. Eta jarraian ni kordebageturik itzita, alde egin zenduen, onen aurretik eriotz-zemaitza niri egiñez, ertzaintza jakiñaren gaiñean ipintea otuko ba’litzakit...?

– Ez, ez dot gomutan, ori zerorrek asmaturiko guzur utsa dalako. Gaiñera, itsu izanik, zelan dakizu goiz aretan errotan izan nintzala...?

– Nire entzumen zorrotza ustiatuz. Zure semea lurperatu izan zanean, obi-morroitzat mozorrotua an nintzan zure abotsa entzuteko, eta zeu goiz aretan errotan izandakoa zintzazan ala ez, bein betiko jakitearren. Lurperatzea amaitu zanean, eskupeko bat eskatu neutsun, eta zeuk “Zoaz artaburuak urkultzera” erantzun zeustan.

Orduantxe jakin neban ezpaibarik nire osaba-izekoen eraillea zintzazana. Au jakinda, kuku egin neutsun, eta bizargiñeagana ziñoazan bein baten, jarraitu, eta sorutik zure ule-galpar bat jasota, kimi-azterketa baten bidez, ertzaindegian gordeta egoan erailleari Txomiñ’ek erauzitako galparra lakoa zala egiztatu zan. Oneri esker, gaur areto onetan zagoz, egin zenduanagaitik erantzuna emon dagizun.

Berba oneik esanda, epaikariari itz egiñez,

– Epaikari Jauna –esan neutsan–, oraingotz besterik ez.

Orduan epaikariak “Galtzerdi”ri ta niri mintzatuz,

– Jaunok, zuetariko baten batek, beste lekuko bat itaundu gura ba’leu, esan dagiala.

Jagi zan “Galtzerdia”, eta mintzo indartsuz,

– Bai, epaikari Jauna –esan eutsan–, garrantzi andikoa dan lekuko bateri itaunketea egin gura izango neuskio, baiña berandu samar izanik, eta ori luzea izango dan ezkerro, biarko geroratzea begirunerik andienaz eskatuko neuskizu.

Orduan epaikariak auxe aldarrikatu eban:

– Onartua da jagole Jaunaren eskaerea. Biar, beraz, auziari jarraipena emongo dautsagu. Jakin daiteke, jagole Jauna, nor izango da lekuko ori...?

– Barkatu beist epaikari Jaunak, baiña isillean gorde nai neuke.

– Orduan –maiari maillukada bat emonez aldarrikatu eban epaikariak–, biar gaurko orduan auziak jarraituko dau.

Andik urtetean, nire buruari itaundu neutsan, nor izango ete jagoleak orren ezkutuan gorde nai eban lekukoa. Alako baten, Satur urreratu yatan, eta,

– Aizu, adiskide –itaundu neutsan– zer deritxazu auziari...?

– Ondo bai ondo jokatu dozu, Pruden.

– Eta...?

– Ez dakit. Epaikaria ain kokolo ez ba’litz... Batzuk, bigunkeria zu-

zentasuntzat artzen dabe, eta bildur naz, Eustaki Jauna, gure epaikaria, orreitariko lagun belaxka edo bigunbera ez ete dan. Edozelan be, Pruden, benetan aalegindu bear izango dozu.

– Lerrenak egiteko gerturik nozu, Satur.

– Biotz on, eta biarrarte, adiskide. Ez aztu, “Galtzerdi” amarrutsu andia dala.

– Ez yat aztuko ori. Biarrarte, Satur.

Biaramonean, agindutako orduan ikustaldia asi zanean, epaikariak “Galtzerdi”ri berba egiteko aukerea emon eutsan. Jagolea jagi zan, eta epaikariari mintzatuz,

– Jauna –esan eutsan–, nire bezeroaren izenean, danok ezagutzen dogun Jaun bat lekukoen aulkian jesarri daitela eskatzen dot.

– Nor da bera...?

Besoa niganantz zuzenduz, auxe esan eban:

– Lekukoen aulkian, salatari Jauna jesarri daitela gura dot.

– Ez al-dakizu –esan eutsan epaikariak–, lekukoen aulkian salatari jesarri daiten gauza ez-oitua danik...? Orretarako zio oso garrantzitsua aurkeztu bear izango dozu.

– Ori eskatzeko eragiten nauan zioa oso garrantzitsua da, berorrek egiztatuko dauanez.

– Onartzen da jagole Jaunaren eskaerea. Etxekoen salatari Jauna jesarri bedi lekukoen aulkian.

Au gertatu bitartean, zur eta lur nengoan siñistu eziñik jazoten zana. Nire ustez, “Galtzerdi”k lakioren batera eroan gura ninduan, eta asiera baten bere naiari jarkitea bururatu yatan, baiña ori nire aurka biurtu zeitekeala oarturik, gogo txarrez bazan be, lekukoren tokira joan, eta oiko ziñ-itzak esanda, jesarri nintzan nire buruari niñotsala, aalik arduratsuen jokatu neukela, amarrutsu aren sarera ez sartzeko.

– Pruden Jauna –asi zan “Galtzerdi”–, tamal dot zu aulki orretan jesarri-erazotea, baiña Niko Barea Jaunaren bidezko eskaera bateri jarraituz, jazoera negargarri bat argitzearren, zure autorpena bearrekoa da.

Isillune bat sortu zan, eta gero,

– Aizu Pruden Jauna –mintzo irmoz itaundu eustan–, Niki Barea’ri gorroto zeutsan, ezta...?

Une batez zelako erantzuna emon ausnartu neban, eta gero,

– Asiera baten, goiz aretan alboka egiñez errotatik urten nintzanean, sumin basatiak artuta oartu nintzan, baiña gero, giristiñoa nazan aldetik, gaizkille arek egiña barkatu neutsan, eta are geiago kontuan arturik, Niki zoroa zala. Bera zan niri gorroto eustana, eta ez dakit zergaitik, baiña goiz aretan bere aitari eragin eutsan erail nindegian. Onen ezetza entzutean, errotatik urten aurretik, kate bataz kordebagetzeraiñoako zartada basatia jaurti eustan. Eraille-zoratasunak artuta egoan Niki, eta olako bate-ri, gorrotoa baiño errukia izaten yako

– Jakingo dozu, urrean, errotatik igaroten dan ibaiaren ertze baten, orain sei illabete inguru, Niki'ren gorpua aurkitu zala, ezta...?

– Bai, badakit.

– Dirudianez, gazte ori errotatik ez urrun il zan, eta onek bearbada zurekin zer-ikusirik izango dau...

Itzok entzutean, asarre biziak menperatu ninduan. Legegizon amarutsu arek, eriotz aren suzmopean jarri nai ninduan jendearen aurrean. Aalegindu nintzan nire buruaren jabetasuna ez galtzeko eta isillik irauten nebala, galtzerdiari gorantzako teinkada bat emonez, onetaraxe jarraitu eban:

– Pruden Jauna, guztiz argigarria izango litzakigu, egun aretan jazo zana azaldu zengigula.

– Niki'ren eriotzak ez dau ezetariko loturarik areto onetan gaur ikusten dan auziarekin, baiña zukanako nire ederrespena adierazoteko, eta arrenkura orrek barrua marraskatu ez dagitsun, ona emen jazo zana...

Isildu nintzan une batez nire burubidea taiutzeko, eta gero,

– Egun aretan goizean –jarraitu neban–, Errotazar'era joan bear izan neban papergintza bateko ordezkari bateri lerdoi edo piñudi-arlo bat erakustearren. Ikerlea joan zanean, etxetik ekarritako ogi-tarteko batzuk jan ostean, Ibarreta'n trena artzeko asmotan errotatik urten nintzan. Etxaurreko olezko zubira abiatzen nintzanean, baiña, aiztotzar bat eskuan eballa, Niki ikusi neban. “Oraingo onetan ez daustazu iges egingo” esan eustan amorru gorrian. Iskillorik bage aurkitzen nintzanez, babeskiaren antzera euri-txartesa beso-inguruan biribilkatu neban, eta orduan buruz-buruko burruka itzela asi zan. Eskerrak ukabil-burrukea ezagutzen nebalari, bestelan nireak egingo eban. Burrukea aurrera joiala, aiztoak eskutik iges egin eutsan Niki'ri, eta jarraian, alkar oratuta, itsu eginda batetik

bestera itzuli-murtika burrukan egin genduan. Alako baten, aidean zear jausten gintzazala, eta jarraian urek nindaroela oartu nintzan. Alkarreki-ko atzipena galdurik, gaiñaldera ugerika igon, eta andik laster ur arro-
tuek eroanda, ertzera urten, eta Ibarreta'ra joan nintzan...

– Ziur zagoz, Pruden Jauna –eten egin eustan jagole amarrutsuak–, uretara jausi zintzazanean, ez zenduala erail Niki gaixoa...?

– Epaikari Jauna –didar egin neban–, ostera egiten dot itaun zital ori dala-ta. Esan dodanez, esku-utsik burrukan egiten genduan.

– Osterea onartzen da. Aldatu dagiala Jagole Jaunak itaun ori.

– Ara... Pruden Jauna, uretara jausi zintzazanean, ziur-ziur baieztu dagikezu Niki gaixoa bizirik egoala...?

– Bai, zure galtzerdi bikaiñok margo orlegikoak dirala baizen ziur.

Irriño itoak aditu ziran aretoan, eta pipertutako jagoleak mintzo asaratuaz,

– Pruden Jauna, arazo onetan gizaki baten eriotzari buruz diardugu, eta nire ustez beintzat, au ez dogu eretirik egokiena txantxetan ibilteko.

– Jagole Jauna –erantzun neutsan–, zure galtzerdi bikaiñok orlegiak dirala esatea, ez dot uste iñongo arinkeria danik, agiri dan zertzelada bat autortzea baiño.

Irriño isekariak len baiño ozenago aditu ziran, “Galtzerdi”ri aurpegia asarrez gorritzen yakola. Orduan oartu nintzan Satur aretoan ez egoala, eta onek arritu ninduan, ordurarteko ikustaldi osoan aretotik urten barik iraun eban-eta.

– Ixo, ixo...! –didar egin eban epaikariak– Jagole Jaunak itaunketeari jarraitu dagikeo.

Begiakaz sastakatzen ninduala, “Galtzerdi”k barriro,

– Eta zer egin zenduan arrezkero...?

– Ertzaindegira joan, eta jazotakoaren barri emon.

– Oso garrantzitsua izango da jakitea zerez il zan Niki, eta txit ego-
kia litzakizu baita be, zeure errubakotasuna zelanbait erakustea.

– Barkatu, jagole Jauna, baiña ez dagokit nire errubakotasuna erakustea, bai zeuri orde, nire gaiztakeria agirian jartea, eta oraindiño ez dozuz besterik esan ergelkeriak baiño. Ain zuzen be, ez dot ulertzen zure jokaera burubako ori.

– Agiriren bat ba'zendu zure baieztapena sendotzeko-edo...

– Uste dozu, baiña, jagole Jauna, munduan zear noala guztitariko agiriak aldean dodazala...?

– Ez, baiña...

Une aretan, epaikariagana urreraturik Satur'ek zeozer esan eutsan, eta orduan Eustaki jaunak,

– Ertzain batek –jakiñerazo eban–, garrantzitsua dalakoan, zeozer esan gura dautso areto oneri.

Aurreratu zan Satur, eta,

– Epaikari Jauna ta Jaun-andreok –esaten asi zan–. Jagoleak Pruden Jaunari itauntzen eutsanean somatu dot noraiño joan nai eban, eta bearezkoa ez izanik be, gauzak argitzearren, eta Pruden jauna dagokion lekuan ipinteko, ertzaindegira joanda, Niki'ri egindako gorpu-azterketaren agiria jaso egin dot, eta ona emen dalako auzitegi-osagillearen txostena. Epaikari Jaunaren baimenaz, irakurri izan daitela eskatzen dot.

– Idazkari Jaunak –agindu eban Eustaki epaikariak– dalako txostena irakurri begi.

Jarraian, idazkariak auxe irakurri eban:

“Nik, Etxebarria'tar Yon'ek, auzitegiko osagillea izanik, Niki Barea'ren gorpua aztertu ondoren, auxe baiezten dot: gorpuak aurpegian eta eskuetan azalezko arramaska garrantzibakoak erakusten dauzala, baiña ezelan be ez eriotz-zauririk. Biriak aztertuta, baiña, urez beteta aurkitu dodaz. Eriotza beraz, ur-itopenak ekarri dautso, eta onen egiztapenaz izepetzen dot agiri au...” Jarraian, izenpea ta eguna agertzen dira.

Isillune baten ostean, epaikariak jagoleari,

– Nai al-dozu, itaunketeari jarraitu...?

– Ez, epaikari Jauna, onenbestez naikoa da.

– Orduan, –asi zan epaikariak– biar...

– Barkatu epaikari Jauna –eten egin neutsan–, baiña zure baimenaz, jagole Jauna lekukoen aulkian jesarri daitela nai izango neuke, neuk be zeozer itauntzeko badaukat-eta.

Une batez epaikaria ezpaitsu azaldu zan, eta gero,

– Bai, baiña luzeegia ez izatekotan.

Lotsak eta asarreak gorrituta jesarri zan “Galtzerdi”, eta begiakaz sastakatzen ninduala,

– Jagole Jauna –asi nintzan–, zergaitik aalegindu zara egin daustazun itaunketean, Niki'ren iltzailletzat agertu neinten...?

– Jazoera negargarri orretan argia egin zeiten.

– Argia egin zeiten, ala Niki'ren erailletzat agertu neinten...?

– Epaikari Jauna, ostera egiten dot.

– Osterea ez da onartzen. Jarraitu, salatari Jauna.

– Argia egin zeiten, diñostazu, baiña zeu izanik ni lekukoen aulkira eroatea asmatzen ebana, zergaitik ez zenduan aurretiaz eskatu gorpu-azterlariaren txostena...? Gauzarik errazena zan zuretzat dalako txostena jaristea, baiña zure asmoa, emen dagozenen aurrean erailletzat agertu neinten izan da, eta gero or-konpon. Egia jakitea ain erraza zanean, guzurreratsi daustazu, eta augaitik, areto onetako guztien aurrean, lege-gizon zitaltzat, ezaintzat, salatzen zaitut.

– Ostera egiten dot...!!! –didar egin eban “Galtzerdi”k aurpegia sumin eta lotsaz gorri eginda–.

– Jaun epaikaria, eta Jaun-andreok, besterik ez.– amaitu neban–.

Zalaparta trumoitsua aditu zan nire lekura biurtzen nintzanean, eta maillukadakaz epaikariak gauzak euren lengora biurtu ebazanean,

– Alderdi bietako azken txostenaz, auziak biar jarraituko dau. Ustu bedi aretoa –aldarrikatu eban–.

Satur eta biok etxerantza giñoazala,

– Aizu, Satur –esan neutsan–, ez dot ulertzen, auzi-arazoetan ain oitua dan “Galtzerdi” lako legegizonak orren burubako jokatu dagianik, aretoko guztien aurrean bere burua barregarritzat biurtzeraiño. Izan be, gaurko bere jarduna asi-barri bateri dagokiona izan da. Orren atzetik elburu ezkuturen bat ez al-da izango...?

Lipar luze samar batez isillik iraun genduan, eta bapatean gelditurik, besoari oratzen eustala, auxe esan eustan:

– Badaukat, badaukat...! Egun aretan bere semea ibai-ertzean ilda aurkitu ebela da, Niko'k ekian guztia. Ez dakit, aitaren isillean, zu erailteko asmotan Niki joan ete zan egun aretan errotara, ala Niko'k berak eraginda. Edozelan be, semea ilda gero, Errotazar'en jazo zana arratsalde aretan, Niko'k ezagutu nai eban, eta au jakiteko bide bakarra, gaur zu lekukoen aulkian jesarri-erazotea izan da. “Galtzerdi”k bere burua barregarritzat agertu bear arren, ordaintzea ona izan da Niko'rentzat, bere semea zure aurka izandako burrukaren ondorioz il zala, orain badauki-ta.

– Eta ori zer...? Orrek ez dau bere semea berpiztuko.

– Ez, baiña...

Begiztatu ninduan itxura ez-oiuaz, eta bapatean, berak itz egian aurretik, argi ikusi neban dana, eta biotz-ikara batek menperatuta, mintzo urduriz,

– Uste dozu, Satur –itaundu neutsan–, uste dozu...?

– Bai, Pruden, orain badaki, eta iltzaille zoroa dan ezker, ez da geldituko bere mendekua jaritsi arte.

– Zaila billakatuko yako ori, espetxean giltzapetua izanik batez be.

– Olan izango al da...!

Isillune baten ostean,

– Eskerrik asko, Satur, gorpu-azterketearen txostena mugonez ekarri izateagaitik.

– Somatu nebanean “Galtzerdi”k noraiño joan nai eban, arin baten ertzaindegira joanda, dalako agiria eskatu, eta ekarri dot.

Isillik jarraitu geutsan bideari, eta gero etxera joateko banandu gintzazan. Arratsaldean, azken txostenaren atontzeari emon neutsan buru-belarri.

Urrengo egunean, atondutako txostena esku-zorroan gordeta, auzitegira abiatu nintzan. Ordu erdiko atzerapenaz edegi zan aretoa, eta gure aulkietan egokitu gintzazanean, epaikaria onetaraxe asi zan:

– Salatari ta jagole Jaunak, Jaun-andreok: epaia emon aurretik, gaur auziaren azken ikustaldia ospatuko da. Oikoa dan ezker, Salatari Jaunak bere txostena aurkeztuko dausku, eta jarraian Jagole Jaunak berea. Eskatzen datsuet bioi, arren, birresate ta alperriko ingurumaritan ez zaitzela galdu, au da, mamiñera artez joan, txikikeritan astia galdu barik. Olako baldintzak beteten diranean, txostenak indartsu ta eragingarriak izan oi dira, bestelan, aulki-gaiñeko eperdiak geldirik ez. Au esanik, Pruden, salatari Jauna asi begi bere ondorioen azalpena.

Zirrara bakanpean jagi nintzan, eta aretoko zabaleran batetik bestera ibilli nenbillela, onetaraxe asi nintzan:

– Epaikari Jauna ta Jaun-andreok: Errotazar izeneko etxean jazo zan sarraski izugarriaren auzia ikusten da gaur areto onetan. Urtebete bi baiño geiago igaro dira erailketa ikaragarria jazo zanetik. Gabeko illuntasuna, baita etxe aretan iskillobako jende baketsua bizi zala be ustiatuz, eraille endekatu bi sartu ziran, eta isil-ostuka etxeko ugazabak ziran nire

osaba-izekoak, odol-egarri zoroak artuta, sastakatu ebezan erruki barik, etxe aretan gorde ei'eroien arribizi bataz jabetzeko asmotan. Ekintza onetan sortu ziran oiuek eta zaratak erakarrirako etxeko morroia be basaki sastakatu eben iltzat laga arte.

Isildu nintzan une batez, eta gero,

– Etxeko morroiak, baiña –jarraitu neban–, or jesarrita dagoan erasotzaillea abotsaz ezagutu eban, aspaldian errotan barrizte-lan baten jardun eban Niko izeneko arotza. Ondo bai ondo ezagutzen eban errota-ko morroiak dalako Niko, iru illabetez errotako barrizte-lan aretan iraun ebalako. Une aretan, igarobideko argia motela zan, baiña entzumen zorrortzeko izanik, etxeko morroiak zin egiten dau Niko izan zala bere erasotzaillea. Arrezkeroko aspaldi luze batez, larri ikusi eban bere burua, baiña azkenean bizirik urten zan.

Gau aretako izua kendu eziñik eta iltzaillearen bildurrez, Txomin ez zan azartu egokion salakuntzea egitera, eta iltzailleek aske izaten jarraitu eben. Gaur, orduko bildurra garaiturik, emen azaldu da Errotazar'eko morroia, eta zin egin dau, gau izugarri aretako iltzailletariko bat, Niko dala.

Isildu nintzan une batez Niko'ri aurrez-aurre so egiteko, eta aren begietan gorroto basati, itzungi-eziña irakurri neban, sastakatu gura bai'ninduan bere basakatuaren betseiñakaz. Saiestu nebazan begiak beragandik esan-eziñeko iguiñaz, eta,

– Baiña erailketa bikotx nazkagarria egin ondoren –jarraitu neban–, arribizi ederretsia ezin eben aurkitu aita- seme bildurgarriek... Bai, txulut egindako gaizkilleak biurtzen ei'dira erailtza-lekura, eta olan jazo zan gatx batek jotako itsu izanik, Errotazar'era joatea otu yatan udabarriko goiz aretan. Ezinbesteko patuak nai izan eban, aurreko gabeen erailleak biurtu zeitez an errotara, aspaldiko gau aretan idoro ezin eben arribizi ederretsia billa, eta etxe aretara sartu nintzanean, demoniñoak artuta bitxia billatzen jarraitu eben. Ordu luze izugarri bi arein atzaparretan iraun neban esan-eziña jasanez. Ez zaituet nekatu gura an jazo zanaz Niki'k zauritu ninduan arte, ori len edestu dot-eta, baiña auxe bai agirian jarri nai izango neuke: zelako nasaitasunaz or jesarrita dagoan eraille orrek, bere ekintza izugarriaren zertzeladak emostazan, munduko gauzarrik garrantzibakoena izan bai'litzan. Buruko uleak laztu edo arrotzeko

beste zan, baiña berak kontu-kontari, mus-jokoan izandako gora-beerak lagun bateri edesten yakozan lez. Orduan oartu nintzan gaiztoenatariko zoro baten aurrean nengoala. Bai, or jesarrita ikusten dozuen Niko Barea izeneko gaizkille orrek, erailten jarraituko dau, odol-egarriaren demoniñoak artuta dagoalako...

Isildu nintzan lipar batez, eta gero,

– Errotazar’etik zaurituta urten nintzanean burukomin erogarriean, amorrak artuta nire buruari zin egin neutsan, aal neban guztia egingo neukela, gaizkille areik euren ekintza ordaindu egien, ez bakarrik nire etxekoen sarraskiagaitik, baita bikote zoro arek gizarterako zemaitza andia zalako be. Areitariko gaizkille batek, areto onetan argitu izan danez, patuaren gurariz, erailketearen lekutik ez urrun, egindakoa ordaindu egin dau. Bestea, baiña, or aurrean dozue lege-epaiketearen begira. Noraiño gaizkillea dan ezagutzeko, ez dozue besterik kontuan artu baiño, dalako Niko orrek, bere semeari erakutsi dautsala erailketearen jardun izugarria...! Bere semea bide orretatik daroana, arimabako pizti iguingarria izanez gaiñera, zoratasunaren atzaparrak artuta dago, eta edozein atxakiaz eriotza sakabanatzen jarraituko dau. Baiña au alde batera lagata, ekin dagiodan arrezkero jazo zanari.

Noizbait, niretzat egun zoriontsu baten, begimena berrirabazi neban, eta nire buruaren jabe billakatuta, auzi onetara Niko ekarriko leukien urratsak emoten asi nintzan. Lenengo ekintza, erdi-ezkututa bizi izaten zan, Txomin, errotan zaurituriko morroia ikertzea izan zan, eta onen ondorioz, zerbitzari zintzo orregandik, auzi onetara lekukotzat autortzeko jaritsi neban.

Niki il zanean, onen aita ezagutzeko eretia izan neban, eta lengo egun baten areto onetan aipatu nebanez, bere abotsa obitegian entzun nebanean, Errotazar’eko eraille berbera zala jakin neban. Orduan kuku egitea otu yatan, eta ondo antzaldatuta, bere etxeko atadiaren aurrean zelatari jarrita, bere ibillerak barrandatu nebazan. Aren billoen galpar batz jabetzea nire asmo nagusia zan, Txomiñ’ek sarraski-gabea berari erauzitako, eta ertzaindegian gordeten zanarekin erkatu edo bardintzeko. Zorionez, bein baten bizartegira sartu zan, eta dakizuen eraz, dalako galparraz jabetu nintzan, eta kimi-azterketea eginda, eraillearena zala egiztaturik, onen ondorioz, dagokion epaiketea jasateko giltzapetu izan zan.

Ur-txurrutada bat artzearren, itzaldiari eten egin neutsan, eta aretoko adikunea nigan jarrita, onetaraxe jarraitu neban,

– Niko Barea errotako iltzailletariko bat dala, ez izan iñongo zalantzarik epaikari Jauna ta Jaun-andreok. Ondo ezagutzen eban errotako morroiak zinpean olan autortu dau, baita neronek be. Aspaldi batez itsu billakatzen danak entzumen zorrotza jaritsi oi dau, eta goiz aretan aita-seme iltzailleek arrapatu ninduenean, entzumen bikaiñaren jabe nintzan. Baiña au dana naikorik ez ba’litz, ule-galparraren kimi-azterpenak ez dau ezetariko zalantzarik emoten. Uts-eziña dala diño ertzaintzako ta beste kimilariak, edonoren billoek beti-beti kimi-ondoren bardiña azaltzen dabelako. Atzamarren irarpen lakoa-izan oi da billoen egiturea. Gizaki batenak, urteak igaro arren, beti ondoren bardiña azalduko dabe.

Eten egin neutsan itzaldiari, barriro be ura edateko, eta,

– Epaikari Jauna, Jaun-andreok, zuetariko baten batek bere buruari esan dagikeo auxe: “Olan diñozu, baiña laterri onetan billoen kimi-azterpena ez da utsezintzat artu oraindiño”, eta izan be ori egi utsa da. Laterri au gai askotan atzeratua da, eta kimi-alorrean beste edozeiñetan baiño areago. Ona elduta, esan bearrean naz, Europa’ko laterri bik, kimi-egiztapen ori ontzat emon dabela, eta auzitegiatan benetakotzat artzen dala. Badirudi, Ameriketa’ko beste bi edo iru laterri bide onetatik be laster abiatuko dirala.

– Amaitzeko –jarraitu neban–, eta emen zagozenen adikune ta eroapena ez nekatzearren, zuen burutara emon nai izango neuke, bai errota-ko morroiak, eta bai neronek, or jesarten dan Niko Barea’re mintzoa ziur-ziurtzat nire etxekoen erailletzat ezagutu dogula, eta geiago dana, erailleari Txomiñ’ek erauzitako ule-galparra, gaur auzi onetan salatutzat agertzen danarena dala.

Eta eten-une laburraren ostean, auxe aldarrikatu neban:

– Erailketa izugarri aren egille nagusitzat, Niko Barea salatzen dot, eta zigortzat, bizitza guztirako espetxaldia eskatzen dot.

Onen ostean isiltasun osoa sortu zan, eta nigandik urrun ez egoan Niko’ren begiai txinpartak eriezan, sastakatu gura bai’ninduan. Laster, baiña, epaikariak aretoko isillunea autsi egin eban onetaraxe:

– Legegizon jagolearen txandea da. Asi bei, beraz, dagokion ekitaldia.

Arrandiz beterik jagi zan “Galtzerdi”, eta benatsu, bera lako jagole andi bateri egokionez, astiro ta andigoiaz gaiñezka, aretoko zabalunea batetik bestera zearkatzen ebalu,

– Epaikari Jauna, Jaun-andreok –asi zan–, ona emen gaur ikuskizun negargarria... Bai, negargarria diñot, gizaki zintzo ta errubako bat iltzailletzat salatu dalako. Biziera eredugarriko gizaki onberatsua, uriburu onetan ezagutzen dabenen eritxiz, eta onezaz gaiñera, zelako baldintzetan...! Bere seme maite bakarra orain asko ez dala galduta... Asmatu daitেকে gizon zintzo batentzat, ori baiño kinka larriagorik...? Badira iru illabete gizaki gaixo au bere emazte maitekorregandik baztertua bizi dala...

Isildu zan jagolea galtzerdiari teinkada bat emotearren, eta gero arranditsu,

– Eta ori dana –jarraitu eban–, zergaitik...? Ara... etxe baten senar-emazteak eraillak izan ziran, eta gau aretan, etxeko morroi batek iltzaille baten mintzo edo abotsa, or jesarrita dagoan gaixo orrena dala baieztan daualako. Zelan, baiña, ontzat emon, izututa, ikara bizipean aurkitzen zan morroi baten ziñalpena...? Argi urria egoan, baiña berak abotsaz ezagutu, bildurrez zoratuta egoanean. Gauza bat jakin gura izango neuke, eta auxe alegia: zergaitik olakorik orain autortu, eta ez urtebete bi lenago, ertzaintzak esku-sartu ebanen...? Guzur-usaiña dario dalako autorpenari, eta nik ez diñot lekuko orrek nire bezeroari, guzurra eratsi dagiola berariz. Ez, nik ez neuke olako arinkeritan jausi gura, lagun-urkoari begirune andi goa zor yako-ta.

Isildu zan unetxu batez, galtzerdiari oiko teinkadea emotearren, eta gero.

– Badago beste autorpen bat morroiarena baiño bitxiagoa, eta auxe dana: eraildakoen lobeak, une batzuk erailleekin berbetan izan ostean, areitariko baten abotsa or jesarrita dagoan Niko gaixoarena dala baieztan dau. Ori al-da benetasuna...? Une labur batez gizaki batekin berbetan jardun, eta urteak igarorik norena zala jakin...? ori ez da siñisgarria, ori irudikeriari egotzi bear. Burubide motel, astin ori sendotzeko, aspaldi batez itsu izandakoaren entzumena uts-eziña dala autortu be...! Ez, Jaun-andreok, gizon baten etorkia jokoan dagoanean, arinkeria utsa da olako ezerezkeriak itarantzutea.

Nori ez yako jazo bein baiño sarriago, abots bat entzutean bere eza-

gun urlia edo berendia dala ziurtzat artu, eta gero eritxikeri utsa izan dala azaldu...? Ez, Jaun-andreok, ori danagaitik gizaki bat epaituko ba’genduke bizitza osorako zigorraz, pekatu barka-eziña litzake. Edozeiñek begirune geiago merezi dau, eta areago gizon zintzo ta ongille orrek seme bakarraren eriotza jasaten dauanean.

Gero, billo-galparren arazoa dator, eta siñisgatxa badirudi be, kimi-azterpen bat utsezintzat aurkezten da, laterri onetan baita munduko geienetan be onartua ez danean. Eta zergaitik ez da onartzen...? Benetako ez dalako, eta are gitxiago gizaki baten etorkia jokoan danean. Onezaz gaiñera, lengo egunean areto onetan “Kimilan”eko azterlari jakintsua dan Alex Jaunaren eritxia entzun zenduen, eta zalantza barik argi geratu zan, billoen kimi-azterketa ori ez dala guztiz siñisgarria. Ez dakit egunen baten laterri onetan utsezintzat artuko dan ala ez, baiña bitartean ez dagigun jolastu gizaki baten bizitzaz. Bein baten, Englanderrian gizon bat urkatu izan zan lagun baten erailketea zala ta ez zala. Auzia ospatu zanean, auzoko emakume bik zin egin eben, salatuaren abotsa zala eurok entzun ebena etxeko leio batetik, erailketea jazo zanean. Onezaz gaiñera, etxe aretan aurkitutako jake-botoi bat salatuak erabillezan lakoa zan. Erruduntzat epaiturik, urkatu izan zan. Andik illabete batzutara egizko eraillea arrapatu eben. Orduko, baiña, nork urkatua berpiztu...?

Amaitzera noa, entzuleen adikunea nekatu eragitea ez dot gura-ta. Gaur, areto onetan, seme bakarra galdu-barri dauan gizon zintzo ta ongille baten etorkia, betirako pikotara joateko zorian dago. Arren eta arren, bere geroa epaitzeko aalmena dauan lege-ordezkeriak, ez bei artu bere bizitzaldi guztirako, zigor bidebako baten erantzukizuna. Ez, barriro be badiñot gizon errubakoa dala, eta beraz, aske biurtu daitela bere emazte naigabetuaren besoetara eskatzen dot. Besterik ez, epaikari Jauna ta Jaun-andreok.

Jagolearen berba oncin ostean, eta aretoak isil-isillik zirauala, entzuleen aurpegiak aztertu nebazan. Zenbaitek, betosko illunaz begiztatzen eben salatu; beste batzuk, ordea, txeratsu ta errukitsuak. Epaikariak, baiña, ez eban iñongo zantzurik erakusten, eta une aretan mai-gaiñeko maillu-jote batzaz, auxe aldarrikatu eban:

– Iru egunen buruan, eguberdiko amabietan, epaia jakiñerazoko dot ementxe. Ustu bedi aretoa...!

Urtetean, Satur alboratu yatan, eta,

– Zelako erabagia artuko dau epailleak...? –itaundu neutsan–.

– Ondo jokatu dozu, Pruden, baiña “Galtzerdi” amarrutsuaren burubideak ez dira makalak izan.

– Orduan...?

– Arazoa epailleagan datza. Ez dautsut atsekabetu gura, baiña bada-
ezpadan, ez baikorregi izan.

– Baiña billo-galparraren kimi-azterketea guztiz argigarria da, mun-
du onetan argigarririk ba’da

– Bai, olan da. Bere burua zuzentzat ederresten dauan epaikariak,
aurretiaz benetako argibideak eskatuko ebazan kimilarien alkartetik
epaia emon aurretik, baiña auzi onen epaikaria alper eta belaxka da. Ez
dakit, beraz...

Satur’en burubideak arrenkuratu ninduan, baiña nire kolkorako esan
neban burua ez alperrik urratu, erabagia laster ezagutuko neuke-ta.

Berbatua lez, andik iru egunera, goizeko amabietan aretoko atepak
edegi ziran, eta luzaro barik epaikaria azaldu zan. Bere erabagiaren txos-
tena mai-gaiñean jarrita, salatua jagi zeiten agindu eban, eta astiro ta
ozen onetaraxe asi zan:

– Salatari Jauna, Jagole Jauna, eta entzuleok: ardurarik andienaz ja-
rraitu ta aztertu doguz areto onetan esandakoak, eta esan bearrean naz,
alde bietako legegizonak gain-gaiñekoak azaldu dirala euren itaunketak,
azalpenak, eta ondorio-laburpenak egitean.

Salatari Jaunak ziurtasunik andienaz adierazo dausku, bai morroi-
aren autorpenaz bai bereanaz, abotsaz ezagutu dabela Niko Barea, Errotaz-
zar’en jazo zan sarraskiaren egilletzat, eta izan be, ez dot zalantzan ipin-
ten euren autorpena, niretzat argi dagoalako usterik zuzenenaz dalako
baiezpena egin dabela.

Onezaz gaiñera, kimi-azterpenaz agirian ipiñi dau salatari Jaunak,
errailketaren gabea etxeko morroiak iltzaille bateri erauzi eutsan billo-
galparrak eta Niko Barea Jaunari dagokionak, kimi-ondore bardiñak
azaldu dabezala, au da, salatuarena dala gau aretan iltzailletariko bateri,
Txomin morroiak erauzi eutsan billo-galparra. Ez dot zalantzan ipinten,
ezta urrik emon be, kimi-azterketa biok ondorio bardiñak erakutsi dabe-
zala, nik neuk ertzaintzako kimilariakan uste osoa jarrita daukat-eta.

Ontzat emoten dodaz, beraz, kimi-azterketa orreik teknikaren aldetik
akatsbakoak izan dirala.

Orain, baiña nire itauna auxe da: lekuko zintzo batek baiezten daua-
nean, mintzoaz edo abotsaz gizaki baten nortasuna ezagutzen dauala,
ziur-ziurtzat artu daiteke baiezipen ori...? Uts-ezintzat artu bear-
ko do-
gu...? Emen dago untzea... Abotsak bereizteko edo zeazteko ez dot eza-
gutzen iñongo neurkiñik. Irudimena da erabilten dan neurria, eta onek
uts egitera eroan gagikez. Niri beintzat, bein baiño sarriago jazo yat ba-
ten bat izketan entzutean, ezagun batetzat artutea, eta gero beste batena
azaldu...

Goakiozan orain ule-galparraren kimi-azterpenari. Barriro be badi-
ñot, arazo onetan jardun dauan kimilariagan uste osoa dodala ezaguera
edo teknikaren aldetik. Baiña orain auxe diñot: gizaki baten billoek beti-
beti kimi-ondorio bardiña azaldu bear dabe...? Edo-ta gizaki ezbar-
diñen billoek nai-ta-ez, kimi-ondorio ezbar-
diñak azaldu bear-
ko...? Olan
ba’litz, zergaitik ez da utsezintzat artu laterri onetan, billo-azterpenen
ondorioa...? Azaldu danez, ez laterri onetan, ez ludiko guztietan, billoen
kimi-azterpena ez da utsezintzat onartu, eta au guretzat arazorik beñe-
netarikoa da.

Or, zutunik dagoan Niko Barea Jauna, erailketa izugarriaren egille-
tzat salatu izan da, eta au ez da gaberdiko auntzaren eztula, ezta urrik
emon be...! Orregaitik letorkioken zigorra, bizitza guztirako espetxaldia
izan leiteke, eta bere burua ederretsi dagian epaikari batek guztitariko
ziurtasunak artu bear ditu. Gure ustez, badira zantzuak dalako Niko Ba-
rea Jauna Errotazar’ekoen erailletzat bereizten dabenak, baiña ziurtasun
guztiaz ezin dagikeguz onartu.

Ona emen, beraz, gure burubideen laburpena:

1. Lekuko bik abotsaz, salatuat, Errotazar’ekoen erailletzat ezagu-
tzen dabe. Baiña norberaren entzumena utsezintzat ezin onartu.

2. Salatuaren billoek, eta eraille bateri gau aretan kendutakoek kimi-
azterketa bardiña azaltzen dabe. Egiztapen ori, baiña, azaldutako zioa-
kaitik ezin dagikegu utsezintzat onartu.

3. Salatuari letorkioken zigorra, bizitzaldi osorako izan leiteke. Au
dala-ta, ardurarik andienaz jokatu bear da.

Burubide oneikaitik, beraz, eta Niko Barea Jaunaren aurka suzmo

ugariak izan arren be, kontuan arturik ziurtasun osoa ez dagoanean, edozein salatua errubakotzat artu bear dala, Niko Barea Jauna askatua izan daitela erabagiten dogu. Auzia amaitu da. Ustu bedi aretoa.

Itz oneik entzutean, angu astrapala ta karrasiak...! Niko'k eta "Galzterdi"k alkar besarkatu eben. Aurpegia eskuen artean nebala, lur-jota geratu nintzan nire osaba-izekoen eraille zital, zoroa, aske ikustean... Alako baten, mintzo batek dei egin eustan, eta begiak jasorik, Niko'ren irudi iguingarria nire aurrean ikusi neban, gorroto basatiaz begizatzen ninduala.

– Zeu, zeu izan zara nire semea il ebana –abots latzaz esan eustan–, baiña ziñez diñotsut, munduko beste muturrean ezkutatuko ba'zintzaz be, arrapatu ta erailgo zaitut, urdeseme koldar ori...!

Barriro be, eraille aren begietan zoratasunaren txinpartak ikusi nebazan, eta biotz-ikara larriak menperatu ninduan. Zeozer esateko zorian ja-gi nintzan, baiña alperrik izango zala oartzean, txintik esan barik alde egin neban.

Auzitegitik urtetean, Satur etorri yatan, eta,

– Damu dot –esan eustan– epaillearen erabagia, eta ainbat areago zure aalegiñak ikusi ondoren. Oraingo onetan kukuak oker jo dausku, eta ez dakit zer besterik egin, jasapenez artu baiño. Dana-dala, auxe esan bear dautsut: ardurarik andienaz ibilli zaitezala, Niko biozbako ori edo-zertarako gai da-ta. Aurrerantzean, edonora joatean ardurarik andienaz zaindu zure burua, eta norbaitek jarraitzen ete dautsuan ziurtatzeko ernai ibilli.

– Oraintxe bertan, epaia amaitu baiño ez urreratu ta esan daust, munduko beste muturrean ezkutatu arren be, arrapatu ta erailgo nauala.

– Zoritxarrez, badakigu ori egiteko gai dala. Kontuz ibilli, Pruden...!

Etxera eldu nintzanean, ama jakiñaren gaiñean ipiñi neban, epaiari garrantzia kenduz, baiña berak ezer esan ez arren be, kezkatua aurkitzen zala igarri neban. Bazkaria amaitzean.

– Aizu seme –esan eustan–, aspaldi gogaikarria jasan dozu, zergaitik ez artu atsedenal-di egokia toki baketsu baten, jasandakoa aztu dakizun...?

Burubide ona begitandu yatan, eta andik egun batzutara, Naparra'ko errixka baztertu ta baketsu baten illabete biko atsedenal-dia izan neban. Etxera biurtu nintzanean, bizkor eta osasuntsua oartzen nintzan.

Laster, baiña, oarpen bakan ezkutu batek menperatu ninduan. Niñoana-niñoala, begi ikusteziñek jarraitzen eustela begitantzen yatan. Ez zan gauza agiria, baiña oarpen kezkarri arek ez ninduan bakean izten. Egoera onek eraginda, Satur'gana joatea erabagi neban.

– Aizu, Satur –esan neustan–, jarraitu izatearen oarpen kezkarri-pean bizi izaten naz. Ez dakit ziur zer dan, baiña begi ikusteziñek nora-gura jarraitzen daustela iruditzen yat.

– Egia da ori. Aspaldi onetan nire gizon batzuk zaintzen zaitue, eta orixe oartu dabe. Atzo Niko ertzaindegira eratorri neban, eta drogari buruz baita zutzaz be luzaro samar mintzatu ostean, bide orretatik jarraitzekotan ertzaindegiko ziegatan egun batzutarako giltzapetuko ne-kela, zemaitu neban. Badirudi autu onek zeozer eragin dautsala, eta nire ustez, aspaldi batez bakean itziko zaitu. Edozelan be, eta badaezpadan, nire gizonak babestuko zaitue.

– Eskerrik asko, Satur.

– Aizu –esan eustan–, izkilloak erabilten ba'dakizu...?

– Gauza andirik ez.

– Erabilte ori ikasi bear dozu ba. orain arazopetuta nagotzu, baiña biar eguberdian zatoz ona

Berbatua lez, biaramonean joan eta Satur'ekin izkillotegi batera joan nintzan. Su-izkillo asko erakutsi eustezan, eta nik izkillo arin bat nai neban ezkerro, Satur'ek sei jaurtikiko errebolber eroso aukeratu eban ni-retzat.

– Ez da andia –esan eustan–, baiña ona ta ariña. Orain goazen ertzaindegiko jaurtitegira, eta zelan erabili erakutsiko dautsut.

Izan be, laster ikasi nebazan errebolber aren gora-beerak, eta saioal-di batzuk izan ostean, Satur'ek egokitzat emon eban nire erabiltea.

– Dana-dala –esan eustan–, eroan beti aldean, eta ibilli ernai baten batek barrandatzen zaituan jakiteko.

Bajoiazan asteak eta illabeteak aurrera ezer bereizirik jazoten ez zala. Bein baten, osaba-izekoak iru urtebete inguru erail izan zirala, Errotazar ikertzea otu yatan. Ezetariko zaintza barik igarotako iru urtebete areitan, etxea laskitu izan zan zearo. Teillatua itogiñez betea egoanez, ormak eta soruak batez be atonketa andia bear izaten eben. Urrilla'ko egun baten, Laurentzi'ri, Ibarreta'ko etxegileari, urrutizkiñez dei egin neutsan, eta oso lanpetuta aurkitzen zanez, arratsaldeko bostetan errotan bertan alkartzeko berbatu gintzazan.

Egun aretako bazkalostean, arestian erosiriko mototxirindolea artu, eta Ibarreta'n zear errotara joan nintzan. Arratsalde epel, gardena zan, eta urrezko litsa artzen asi ziran zugaitzen adaburuek, unkipen sorgingarrria emotsoen zabal-diari. Eldu nitzanean, mototxirindolea etxeko albo-estalpera sartu, eta Laurentzi'ri itxaron bitartean, etxaurreko egoarrian jesarrita, urredun arratsaldeak lilluratuta, mutiko nintzaneko garai zorionsuak gogora etorri yatazan. Eresi amesgarria zan niretzat, ibaia burrunba atsegiñaz arruan beera oldartzen zala zidar eta urdiñezko zurrunbillotan. Une artean, txoriek arratsaldeko aintza abesten eben, eguzki epelaren printzak galdu nai ez bai'lebezan, neguko isiltasun eta kade-nean ostendu baiño len.

Ez dakit zein luzaro iraun neban Errotazar'eko lillurapean, baiña Laurentzi'ren etorrereak nire senetara biurtu ninduan. Sartu gintzazan etxera, eta goiko ganbaratik asita, teillatuko itogiñak ainbatu ondoren, etxeko mailla bien soruak eta ormak aztertu ebazan Laurentzi'k, eta noizbait, urrengo astean aurre-domua jakiñerazoko leuskidala aginduta gero, Ibarreta'ra biurtzeko gertatu zan. Ustekabez, zirkin bakanak eraginda, errotan ordu batzuk geiago emotea erabagi neban, eta biurtzeko zorian zan Laurentzi'ri,

– Aizu, Laurentzi –esan neutsan–, etxera eldu zaitezanean, dei egizu

gurera urrutizkiñez, eta esaiozu amari, geroago biurtuko nazala, baiña edozelan be, gaberdia baiño beranduago ez dala izango.

– Ondo da, Pruden –erantzun eustan–, laster illunduko bada be, arrats-beera ederra da.

Joan zanean, etxera sartu nintzan, eta ateari giltza emonda, leio guztiak itxi nebazan barrutik, oiko atelangakaz ziurtaturik, eta au dana amaituta, aretoko argiak piztuta, besaulki eroso baten on-izatearen oarpenaz jesarri nintzan. Azken aspaldi aretan, ez neban barrandatu izatearen suzmorik artu, ez dakit Satur'ek Niko'ri egiñiko zemaitzagaitik-edo, baiña gero ta nasaiago oartua nintzan. Andik laster, Esmere'ren gomutea nitzaz jabetu zan, eta nigandik kendu ezin nengikean oiko maitasun-kadentasuna etorri yatan. Bazan aspaldi luzea neska etoiagandik alde egin nebala, eta saldu ninduala jakin arren, ezin nengikean nigandik aren gomutea uxatu. Ai, aren oroitza sustraitik erauzi aal ba'nengi...! Oiñazea erion nire biotzari, eta ordutik urtebete bat igaro izan arren be, ezin aren irudia nigandik jaurti. Azkenengoz ikusi nebazan bere esmeralezko suger-begiak, gogora nenkarrezan berariz, gorrotagarriak biurtu ekidazan, baiña dana alperrik, nire maitasunak ez eban il gura...!

Ezustean, ego-aizea putz egiten asi zan ulu ta uluka egapetik igarotean. A lako gaba izan zan etxe aretan osaba Martin eta izeko Edurne erail ziranean. Begiak itxi nebazan, eta erailketa a gomutara yatordantetan lez, argitu ezin nengikean itaun berbera etorri yatan: nondik sartu ziran erailleak, etxeko ate ta leioak itxita izanik, orain lez...? Une aretan irudimena lanean asi yatan, eta ustekabez, tximistaren arintasunaz korapilloa askatu zan... Bai, soru-zulotik...!

Errota erabilten zanean, etxazpiko turtukoira joateko, eta goian egozan errotarriak, txurruak, etabarreraiño igoteko etxetik urten barik, osabaren aitak, soru-zulo bat atondu izan eban, eta onen estalkia jasota, orman bertan jositako burdiñezko kako batzuk erabilliz, turtukoira jatsi zeitekean. Argi egoan niretzat, axe izan zala gau aretan gaizkilleek erabillitako sarbidea. Niko zan errotako zaar-barriztean jardundako bat, eta arotza zan ezkerro, kanpotik etxazpikora sartzeko ate usteldua barri batatz ordeztu izan zanean, ate barri onetako giltz bat berarentzat gordeko eban bada-ezpadan.

Orduan arribizia ostutea asmatzen eban, edo-ta asmo zital au geroa-

go bururatuko yakon, baiña zana-zala, baekian zelan sartu errotara nai izatekotan. Erraza yatan burutapen au egiztatzea, eta besaulkitik yagita, soru-zulora urreratu nintzan. Enparautik oso bardinduta egon arren, laster ikusi neban dalako soru-zuloa. Bearrezkoa ez izanik be, osaba Martiñ'en aitak, dalako soru-zuloak iraun egian nai izanik, barriztu eban, sorutik nekez bereizten zala. Makurtu nintzan, eta laster idoro neban orarestuna. Oneri teinkada bat egitera gertauten nintzanean, baiña, etxeko argiak amatau ziran...

Latz-ikara batek astindu ninduan alderik-alde, eta dardar baten, illunpetan lengo besaulkira biurtu ta jesarri nintzan. Banekian illunaldia ez zala ustebakoa, eta jazoteko zanari aurre egiteko gertatu nintzan. Guzti aren atzetik, Niko'ren esku luze ta asmo zitala somatzen neban. Zorionez, errebolbera aldean neroian, eta sakeletik atarata, belauenen gaiñean ipiñi, eta itxaron neban geldi-geldi. Kirrinka motelaz giltz batek eraginda, etxazpiko atea edegiten zala entzun neban, eta ostera be isiltasun osoa. Apaltasunik egitienaz autortu bear dot, izu itzelak artuta nengoala, eta nire buruari esan arren oroz gain baretasuna gorde bear izaten nebala, nekez nengikean nire buraren jabetasunari eutsi. Ego-aizeak uluka zirauan egapean etxeko teillak erauzi gura bai'leuazan, eta nire biotzaren taupadak aren baten yabildazan...

Alako baten, kirrinka motela aditu neban, eta esku-tximistargi bat eskuan eballa, mulko illun batek soru-zuloko estalkia jaso eban.

– Geldi or...! –didar egin neban errebolberaz eztanda egiñez sabairantz–.

Une aretan bertan esku-tximistargia amatau, eta soin baten ibilte ariña aditu neban. Orduan, aretoko txoko batetik, Niko'ren mintzo zakarra aditu neban auxe ziraustala:

– Bazan ordua, babalasto zikin orrek, zeuk eta biok aututxu bat izan gengiala, baiña asi aurretik, zu erailtera natorrela esan bear dautsut.

Au entzutean, lengo nire ikarea asarreari bide emoten asi zan, eta,

– Asmotik ekintzara –esan neutsan–, bide luzea dago, Niko zital ori. Zeu ta bion artean sei jaurtikiko errebolber bat gerturik dago.

– Bai, baiña lenengoa galdu dozu onezkero, eta ez dozuz bost baiño. Nik, ostera, kutunena dodan aiztoarenak ez dabe mugarik ezagutzen. Ilgo zaitut, gau aretan zure osaba-izekoak garbitu nebazan legetxe. Izan

be, zelangura garbitu zengikedazan; ez neban besterik nire menpekoren bateri agintzea baiño, edozein bazterretan tiroz josi zengizan, eta onez-kerok zeureak egingo eban. Baiña ez, zin egin neutsan nire buruari neronen eskuz erailgo neukela nire semearen iltzaillea.

– Guzurra...! Iskillo barik aurkitzen nintzanean, bera zan ni erailteko asmoz etorri yatana.

– Niki, nire semea, mundu onetan geien maite nebana zan, eta zure erruz betirako galdu egin dot.

– Zoroa baiño besterik ez zara. Semea benetan maite dauan aita batek ez leuke ezelan be, gaiztakeri-bidetik eroan, zeuk egin dozun lez. Beste gizonen antzekoa izan ba'zintzaz, Niki orain bizirik egongo litzake. Zeuk bultzatu zenduan zure seme bakarra gaiztakerira, burutik eginganda zarealako. Laguntzat ekarri zenduan gau izugarri aretan etxe onetakoak erailtearren, eta ori dana, idoro ezin zenduen bitxi bategaitik...

– Ez, ez genduan idoro aal –eten egin eustan Niko'k– diamante marrikatua, baiña ori baiño askozaz geiago balio dauan zeozer aurkitu neban gero... lo-bedarkia edo drogea, izan be. Oneri esker, diruketa polita jaritsi dot, lege-gizonik onena ordaintzeko beste, zeuk jarri zeustan salaketatik jareit atara nindegian. Bai, gaur nire ordua etorri yat. Aspaldi onetan ez dautsut kuku egin, baiña Ibarreta'n barrandari bat akuratu neban, eta gaur jakiñerazo daust mototxirrindolaz etxe onetara etorri zintzazala, eta astirik galtzeke ona etorrita, tximistargiaren aria eten egin, eta neronek dakidan sarbidetik etxera sartu, gau aretan semeak eta biok egin genduan legetxe.

– Bai, orain badakit, eta argia itzungi danean, zeure ekintzea zala igarri dot.

– Nire semea erail zenduan leku berean garbituko zaitut. Amesetan agertzen yatanetan, berak, Niki'k, orixe agintzen daust-eta, Bai, ortxe ikusten zaitut izu gorriak artuta, azkena noiz elduko yatzun begira. Izan be, zeuk siñistu ez arren, illunditan ikusteko doai bereizia dot, eta or ikusten zaitut ikara bizian jesarrita, bildurra zeugandik uxatu eziñik. Ez al-dakizu, Niko Kandela esaten daustela, illunpetan ikusteko gai nazalako...? Bai, gazte ergel ori, katuak baizen ondo ikusi dagiket illundirik andianean, eta zure errebolber orren jaurtikiak amaitu dakizuzanean, oldartuko natzaizu ta sastakada bizitan, zure bizitza zikin ori kenduko

dautsut. Ez zaitut, baiña, bereala garbituko, astiro ta otzean baiño, eta gau onetako izuak elbarritu zaituanean, zure ordua etorriko yatzu, odolusturik azken arnasa emon arte.

Isildu zan Niko. Ezin nengikean ikusi, baiña batetik bestera ibilli ebillela basakatu baten arintasun eta malgutasunaz ondo bai ondo oartzten neban, entzumen ernaikoa nintzan-eta. Nire errebolberren jaurtikiak alperrik ez galtzearren, su egingo neuke ziurtasunez. Ez neban bera ikusten, baiña berak ni bai, eta onek urduri jarten ninduan. Ezustez, soster egin eban Niko'k aulki baten, eta orduantxe izkilloaren katua eragin neban. Zoritxarrez, jaurtikiak uts egin, eta batetik bestera igitzen zala, Niko'ren barre-santzo zaratatsua aditu zan, auxe ziraustala ziñotso:

– Uts barrero be, trauskil orrek...! Orain ez dozuz lau aukera baiño, eta menperatzen zaituan bildurra dala-ta, ez nindukezu apararik egingo, ezta argi betean be, kakati orrek...!

Batetik bestera zirkin egiten ebala oartzten neban, baiña ezin nengikean ziur-ziur igarri non aurkitzen zan. Bapatean, nigandik ez urrun, soruko ol baten krask...! aditu zan, eta su egiñik, len lez uts egin neban. Ostera be, Niko'ren barre zaratatsua etorri yatan, auxe iñostala:

– Uts egin dozu barrero be, eztimetxa orrek...! Ego-aizearen uluck zure burujabetasuna kentzen dautsue, antza. Begira, gau aretan zure senitartekoak garbitu genduzanean, gaur legetxe ego-aizearen orruiek teillak urrutira sakabanatzen ebazan, eta guzurra badirudi be, zure azkeneko gau onetan be, aizearen uluak aditzen dira aurretiaz zure illetak iragarritz. Baiña ez izutu, gazte kokolo ori, oraindiño geratzen yatzuzan iru jaurtikiok erre arte bizirik iraungo dozu.

Agiri zan, nire onetik atara nai ninduala Niko'k, baiña astia igarotala, bildurra joaten yatan sumin andi batek ordeztuta. Orduan oartu nintzan bizitzaren alde indar guztiakaz ekingo neukela. Ez litzake txarra izango, neuk be aren lepotik barre egitea, eta,

– Arroputza zara, Niko –destaiñez esan neutsan–, ziurtzat emoten dozu ilgo nozula-ta, baiña gau aretan Txomin esku-utsik egoanean, eta zeuk aukera guztiak zure alde izanda, onik urten zan zure atzaparretatik, agobero ergel ori, berba-lapiko baiño ez zara-ta. Bera lako adiñeko bat ilteko gai izan ez, eta erail gura nozu...? Bai, len esanda lez, zoratuta zagoz.

Soru-zulotik ez urrun, aren mintzoa etorri yatan orain asarre gorrian ziraustala,

– Denganiño madarikatu ori...! –oiu egin eustan–. Nire semeak gau ta egun eskatzen daust zure odola, eta isuri arte ez dot bakerik ezagutuko.

Ziur nintzan, aren abotsa soru-zuloaren ondotik yatorดาลa, eta bapatean su egin neban.

– Arraioa...! –barre-santzoka esan eustan– Oraingo onetan aparta egin ez nozula ez dau askok egin ba...! Oartu al-zara madarikatu ori, aukera bi baiño ez dozuzala...? Sei jaurtikiekin eldu zara ona, eta bi baiño ez dozuz onezkero.

Besaulkitik jagita, arin-arin ibilliz kebide ta ormaren arteko txokoan ezkutatu nintzan. Ez nekian Niko gai ete zan illunpetan ikusteko, baiña bada-ezpadan txoko aretan babestuago oartzen nintzan. Gaizkillearen mintzo ziñosoa etorri yatan orduan auxe iñostala:

– Alperrik dozu or ezkutatzea, igesbiderik ez dozu-ta. Lekuren baten Niko nire mendekuaren begira dago, eta ase izango da laster.

Errebolberrari eusten neutsala, kebideko apalean jarri neban zer etorrikoaren begira. Une aretan aulki bat lurrera amildu zan, eta zaratea etorren lekura su-egin neban. Niko'ren karkar ozentsua etorri yatan.

– Iñuzente ori –oiu egin eustan–, ango txokora aulki bat bota dot, eta nik soster egin nebalakoan su-egin, kaiku orrek...! Ez al-zara konturatzan orain, nire aiztoa ezagutu aurretik, aukera bat baiño ez dozunik...?

Egia zan; jaurtiki bat baiño ez neban izkilloaren danborrean, eta arduraz erabilli bear izango neuke. Ustekabez, zerbaitek iragarri eustan Niko urreratzen yatala, eta nengoan ezkerretik bere arnasa etorkidala begitandu yatan. Une batez itxaron, eta su-egin neban. Jaurtikiak baiña, ez eban ezetariko ezandarik egin.

– Ederto, mutil...! –eldu yatan Niko'ren abots isekaria– Azken aukerea zenduan seigarren jaurtikiak uts egin dautsu. Orain neure aukerea da, eta ziurtzat emon dagikezu, zartada bat bakarraz naikoa izango dodala zu beste mundura bialtzeko. Zeugandik ur nozu, eta or txoko orretan bildurrez kukurio jarrita ikusten zaitut, kakati ori...!

Asarre bizipean oartu nintzan, errebolberra ez yatala ezetarako gauzarik, eta Niko egongo litzaken lekurantz aalik indartsuen jaurti neutsan,

baiña uts egin neban ostera be, gaizkillearen mintzoa gero ta urrago yatorดาลa onetaraxe:

– Azken aukerea zenduanaz apararik ez, eta orain ordua urreratzen yatzu, zeure odolaz neure Niki'ren eriotza ordaindu dagizun.

Bapatean gogora etorri yatan, kebidetik guztitariko tresnak apaingarrizat eskegiten ziralta, eta edozein gauzaren billa, eskua luzatu neban... Bai, axe zan ni zauritzeko Niki'k erabilli izan eban kate-zati berbera, goiz aztuezin aretan. Teinkada bat az euskarritik atara neban, eta buru-gaiñetik biraka erabilliz, aurrerantz oldartu nintzan. Alako baten kateak zeozer jotzen ebala begitandu yatan, eta zartadaz batean, Niko'ren ulu-antzeko karrasi latza aditu neban,

– Madarikatu orrek, aurpegia gurutzatu daustazu...!

– Bai, itsu nintzanean zure semeak goiz aretan erabilli eban kate berberaz.

Gaizkilleak artutako kate-zartadea ez zan makala izan, antza, min andiak oi ta aiñen egitera bultzaten eban-eta. Niri au oso lagungarria azaldu yatan, arerioa non egoan adierazoten eustalako, eta adorea artuta, kate erabilteari jarraitu neutsan, Niko'gana entzumenez urreratzen nintzala. Alako baten, kateak zeozer jo eban ostera be, Niko'ri ulu garratza iges egin yakon-eta. Aiztoa erabillen eskua izan zan, eta sastakaiaren jaustea, geugandik urrun samar aditu zan. Iltzailleak aiñen eta oi egiteari jarraitzen eutsan, eta noizbait, katearen eraso mingarriak uxatzearen, zezen amorratuaren antzera oldartu yatan soiñez-soiñeko burrukeari emoteko. Buruaz bularrean jo ninduan, eta kaska andiak sorua jo eragin ninduan, aratiñik jausten nintzala. Egoera onetan Niko oldartu yatan, eta alkar oraturik, burruka basati bateri emon geutsan. Nire gaiñean jarrita, Niko'k esku indartsuakaz urkatu nai ninduan zorabiotuta nengoala ustiatuz. Konturatu nintzaneke, atsanka ta biraoka iltzaillearen atzaparrek laster itziko ninduen arnas barik. Ezinbestez, oiñak jaso nebazan, eta bere sabelean ipiñita, azken indarraldiz nigandik urrun jaurti neban, alboka egiñez atzeraka joiala...

Bapatean, karrasi izugarri batzuk aditu nebazan, izuturiko pizti baten uluen antzekoak; jarraian etxazpitiko kaska bat, eta gero dana isilisillik geratu zan, ego-aizeak egapeari erauzitako uluak baiño besterik aditzen ez zala.

Une luze samar batez soruan jesarrita iraun neban, eta arnasa baretu yatanean, jagi, aztamuka kandela bat piztu, onen argi aulpean gaizkilleak ekarritako esku-tximistargia lurretik jaso, eta soru-zulotik etxazpikoa argitu neban. An beean, aratiñik jausita Niko turtukoiairen ondoan zetzan. Orman sartutako kakoetatik jatsi nintzan, eta Niko'gana urreraturik, belauniko jarri nintzan. Lokiko zauri andi batetik odola erion, eta alboko turtukoiairen maskulu bateri eratsita, odol eta billoak ikusi zeitekezan. Agiri zan niretzat, goiko aretotik buruz-beera jaustean, lokian kaska andi bat artu izan ebal. Eskutur bateri oratu neutsan, eta pilpiraren zantzurik erakusten ez ebal oartu nintzan. Gorantza zuzendutako begietan, eriotzaren errezela agiri eban, eta barruko eragintza bateri jarraituz itxi neutsazan. Gero, an bertan belauniko nirauala, Gure Aita bat esan neban bere arimaren alde, eta onen ostean gora joanda, etxetik urten, mototxirindolea artu, eta Ibarreta'n zear etxerantz abiatu nintzan. Ego-aizeak orraztutako zabaldiko giroa epela zan, eta bidean gaindi niñola, nire buruari itauntzen neutsan, jazotakoa benetan izango ete, ala Errotazar'eko lillurak neugan eragindako amesa...

Gaberdian inguru uriburura elduta, astirik galtzeke ertzaindegira joan nintzan. Txandako ertzaiñak artu ninduan, eta errotan jazorikoa edestu ondoren, autorpena izenpetu neban. Goizaldeko lenengo orduak izango ziran etxera eldu nitzanean, eta jasandako neke ta larritasuna ziralata, lo urduri batek artu ninduan.

Urrengo egunean, jazotakoari buruz ama jakitun ipiñi ostean, eta bazkaria amaitzeko zorian zala, urrutizkiñaren txiliñak jo eban, eta bertaratuta, Satur'en abotsa entzun neban auxe iñostala:

– Aizu, Pruden, zure autorpena egin ondoren, goizeko lenengo orduetan ertzaintza ta auzitegiko osagillea Errotazar'era joanda, zeuk autortua lez Niko'ren gorpua idoro dabe, eta gaur bertan gorpu-azterketea egingo yako. Oraingotz ezin dagiketsut besterik esan.

– Eskerrik asko, Satur. Aizu, adiskide, ondo ba'yatortzu, gaur "Txinbo" jatetxean apaldu bitartean, arazoari buruz jardungo dogu. Zer deritxazu gabeko bederatzieta...?

– Ondo da, Pruden, gero arte.

Apalostean, akeita edo kafea txastatzen genduala, aurreguneko gaban errotan jazorikoa zeatz guztiakaz edestu neutsan.

– Ozta-ozta bizirik urten zara –esan eustan ertzaiñak– Niko'ren atzaparretatik, eta gizartea gaizkille bategandik jarei billakatu da. Eraille izanez gaiñera, drogalaria garrantzitsua zan, eta orain bera ostendu ezker, bere taldeak nekez jarraitu aal izango dau. Gaur bertan bere etxea arakutzen genduala, taldekoez izen-zerrenda luze samar aurkitu dogu, eta laster sarera sartuko dira. Azkenean, zure etxekoan erailleak merezitakoa jaritsi dau.

– Bai, legeak ezin izan dau gaizkilletzat zigortu, baiña zeuk eta biok ondo dakigu Errotazar'eko erailleok, utseziña dan epai-mai baten aurrean dagokiena artu izango dabela onezkero.

– Baiña bada gauza bitxia –esan eustan Satur'ek "Montecristo" txokorrari pautada sakona emon ondoren–, eta auxe alegia: gizarteko legeai iruzur egiteko gai izan diran aita-semeak, euren gogoz erailketearen lekura zeu erailtearren biurtu diranean, patu uxa-eziñak nai izan dau, toki berean eriotzak arrapatu egiazan. Errotazar'ek ez dauz barkatu, eta gaur, antxiñako etxe onek garai bateko eriotzen mendeku betea artu dau.

– Bai, nitzaz baliatu da orretarako, eta oarkabez, patuaren eskuak erabilli nau.

Isildu gintzazan une batez, eta gero,

– Orain, Pruden –esan eustan irribarretsu–, nasai bizi izan zaitezke, kalte egin legikezuenak betirako joan dira-ta.

– Azken aldiotan nire bizimodua ez da atsegiña izan, ezta urrik emon be. Nengoana-nengoala, begi anker ikusteziñek etenbarik kuku egiten eustela begitantzen yatan.

Beste isillune bat, eta txokorra autsonztzian amatatzen ebal,

– Aizu, Pruden –esan eustan Satur'ek–, jasandakoa jasan ondoren, on litzakizu aspaldi batez bizimoduz aldatzea.

– Bai, eta gaur amarekin autuan niarduala, bat etorri gara, datorren astean atzerritik txango luze bat egin dagidan. Bitartean, errotan aginduriko atonketak Laurentzi'k amaituko dauz, eta datorren udean ara bizi izatera aldatuko naz.

– Maite-maite dozu Errotazar, ezta...?

– Bai, eta maite izanez gaiñera, axe da bakea jaritsi dagikedan leku bakarra.

– Idoro dagizula lenbailen opatzen dautsut.

Badira egun batzuk Errotazar'en nagoala atzerritiko txangoa egin ondoren. Azken barriztapena eginda gero, beste etxe bat emoten dau orain. Eraillketearen aztarnak ezabatu dira, eta iñoizkorik txukunen agertzen da, Txomin eta Sabiñe'ren zaintzapean garbi ta dizdiratsua. Niko'ren azkena jakin ebenean, gerturik azaldu ziran errotara biurtzeko, eta orain oiko lanetan diardue. Badaezpadan, errifle bat erosi dot Txomiñ'ek eskatuta, eta arein gelako atearen atzean eskegita ikusten da, guztioi ziurtasuna ekarririk.

Zaldi bat erosi dot, eta betiko zalpurdiari buztarturik, etxerako gaiak ekarteko ta errirako joan-etorriak egiteko erabilten dogu, etxeko zerbitzariak batez be jaiegunetan Ibarreta'ko eleizara eroateko, nik mototxirindolea darabilt-eta. Naikoa ondo bizi naz diru-aldetik, osaba-izekok ondorengotzat euren ogasuna laga eusten-eta, baiña edozein gizakik jardun bateri emon bear dautsan ezkeru, idazteari emotea erabagi dot. Izparkaritza-ikasketak erraztasun andia emon daust orretarako, eta gaiñera oso atsegiña dot eginkizun ori. Augaitik ba, etxe onetan jazo ziran gorabeerak idaztea otu yatan, eta orra or, irakurle maite orrek eskuetara dozuzala.

Udalena da, eta ibaiaren urek arruan beerako joiaran, niretzat sorgingarria dan leiarrezko eresi samurraz inguratzen nabe. Aize bigun batek laztanduta adaburuetan txoriak kulunkatzen dira, eta urrezko abotsakaz ongi-etorria emoten dauste. Urre ta argiz beteriko egunek alkarrri darrikioe edertasunez kateaturik, eta arrastiko argia ilten danean illunpetan izarrek zabaldua laztandu dagien, nire lo-gelako leio-barrenean besoak kokaturik, gau-miñari ditxarokiöt maitasunaren mintzo gorena entzutearren.

Bai, aspaldian lez, mutikoa nintzaneko urretxindorrak, eunurtedun areitzetik zerura naroan erestaldia jalgiten dau, eta uren leiar biziak la-

gunduta, bere soin ñimiñoa abeslari erraldoia biurtzen da. Gabeko bake ta isilla aukeratzen ditu, bere samaren asperenak galdu ez daitezkan, eresi yaukalek isilla eskatzen dabe-ta, arimaren txokorik ezkutuenak, aintzaz sutu daitezkan.

Benetan maite izan bear dau urretxindorrak orren yaukal abestu aal izateko. Maiteminduko zan gabeko aize illunaz, onek, azabatxezko asperenakaz ariztiko ostoak dardarrerazoten dauzanean...? Izango ete bere maitasun-iratzarlea dan izar urrutien argi-dardarrak, bere abes-guraria eragiten dautsoela, ala negar isilletan illundia laztanduz iretargi zuritan agertzen dan urgeldien zidarra, eguzkiaren urreak gabaren lillura ezerez-tu dagian aurretik...?

Orrek danak urretxindorra olerkariago biurtzen dau... baiña beneta-ko eragiña, nonbaiten adi-adi dagoan bere eme-lagunarekiko maitasuna da. Onen asperen isillak gabaren sakonetik datorkioz, eta bere biotzean kokaturik, gabeko olerkaria biurtzen da. Maitasun orren oiartzunak ari-man sentitzen dodaz, eta oartu barik, nire biotzari oiñazea dario, betira-ko galdu nebana negar isilletan uts emoten dodala.

Bai, gabeko gantzapean nire biotzari atzo-miñezko malkoak darioz, eta izarretan zear begi eder bi eta zidarrezko koskabilloen soiñua irrika-tzen dodaz zoroki, saldu ninduan begi orlegitako neskatilla zoragarriare-nak, izan be. Iñoizkorik maiteen nebanean saldu ninduan, etsipen esane-ziña nitzaz jabetzen zala... Eta ori dana eraille bateri eutsan maitasuna-gaitik. Zelan daiteke, baiña, nire etxeakoak erail ebenetariko gazte zital, zakarra, ni saltzeraiño maite egian...? Begi ederren eta berba txeratsuen atzetik, kuku egiten eustan esmeralezko begiak zituan neskatilla etoiak, suge batek arrapagaia barrandatzen dauan antzera, ziztatzeko gerturik. Zelan zeitekean, baiña, Niki lako gazte doillor, ustelduta, ainbesteraiño maite egian...? Ona emen iñoiz argituko ez dodan ezkutukia. Emaku-meen aiurria ulerteziña ei'da; bai, olan izan bearko, adimenaren bideeta-tik, beintzat, Esmere'ren nirekiko jokaerea, burua urratu arren, ez dot iñoiz argituko-ta.

Gaba bere azkeneraiño doa urrats geldieziñaz, eta urretxindorren maitasun-jorana noizbait baretzen da, lagun-emearen erantzuna oar-tzean, antza. Mendien atzetik sortuko dan urredun argia somatzean, gaba igesi doa nonbaiten ezkutatzeko bere itzalezko janzkipean. Eguna geriz-

petan il oi da, eta gerizpeen artetik argia jaioten da egunsentiaren besar-kadaz joran barriak ekarteko. Jasan dot gau luzea ez dakit noiz amaituko dan, baiña badakit niri be egunsentia etorriko yatala, eta nonbaiten di-txarokidan Maite Kutun batek, jasandako ezbearrak eta saldukeria Erro-tazar'eko bakean aztueraziko daustazala.

Edesturiko ezbear eta pairamena arribizi baten izan eben sorkundea, eta irakurleren batek, urrean, auxe itaunduko dau: baiña, benetan, zer bi-llakatu zan Errotazar'eko arribizi ospetsua...?

Ara... Bein baten osaba-izekoean lo-gelea garbitu ta apaintzea otu ya-kan Sabiñe'ri. Onen ostean, zaarki asko egoan jaurtiteko, ezetarako gau-za ez ziran-eta. Zaarkiok ezereztu aurretik, Sabiñe'k dei egin eta,

– Begira, Jauna –esan eustan– pillo andi au saramarako da, baiña orren aurretik, on litzake ikustaldi bat emon dagiozun bada-ezpadan.

Iraizeko azterketaren ostean, baietza emoteko zorian nintzala, baiña, izeko Edurne'ren meza-liburu batek nire adikunea erakarri eban. Eza-gutzen neban dalako liburuxka izekok eraspem andia eutsalako, eta le-kaimeen ikastetxetik etxera etorri zanean, baita geroago be ezkondata gero, erabilten jarraitu eban. Dalako meza-liburuak gomazko galartzu batek inguratua zan, eta onek apaingarriztat Andra Mari'ren domiña bat eban orratz bat az galartzuari josita. Saramarako pilloan ipinteko zorian, baiña, dalako domiñea lodiegia begitandu yatan, eta eskuen artean erabi-lli neban. Olan niarduala, barruan zeozer igitzen yakola antz emon eus-tan, eta estalkia zan Andra Mari'ren irudia eragiñez, orpotxu baten ingu-ruan bira egiñik, egundo ez ikusiriko diamanterik yaukalena dizdir bizi-tant agertu yatan...

Zur eta lur eginda, atzamar dardartsuakaz jaso, eta biotz-ikara baka-nak artuta, une luze batez begiztatu neban zer egin ez nekiala. Eskura yatan etxeakoen ondapena erakarri eban bitxi bardinbakoak, atsekabe ta biotz-min andiak eragin eustazan bitxi bikaiñak. Gero, lengo lekura sar-

tu, eta galartzua meza-liburuaren inguruan barriro jarrita, nire lo-gelako oe-maitxuan gorde neban.

Gau aretan luzaro irauin neban begiak batu eziñik, eta noizbait erabagi bat artuta, Errotazar'eri erion lillurak menperaturik, loak artu ninduan.

Urrengo goizean, gotzaindegira joan nintzan, eta gotzaiñari, berari, emon neutsan baldintza bat, eta auxe alegia: bitxiaren ordaiñez artzeko zan dirua, mixiñoen bearrizanetan erabilliko litzake, Irugarren Munduko arimak eta soiñak zaintzeko. Egun aretako illuntzean errotara biurtzen nintzala, osaba-izekoen onesprenak lekuren batetik yatorðazala iruditu yatan, eta orduan ñir-ñirka asten zan sartaldeko artizarraren pean arein alde otoi bat esan neban.

Irakurleren batek esango daust, zergaitik ez gorde arribizia ames egiten neban Maite Kutunarentzat, baiña au ez neuke iñoiz egingo, dalako arribiziak, nire ustez beintzat, madarikaziño baten dizdira eroian bere baitan, eta irrikatzen neban Maite Kutuna, zorion eta maitasunez inguratu nai neban. Egunen baten, Errotazar'eko sorgindurapean, berarentzat nai izan ez neban arribiziarena edestuko dautsat...